JUAN LUIS ZABALA

Agur, Euzkadi

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2000 Juan Luis Zabala
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2000ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Agur, Euzkadi, Jaunak naroa
Aberri eder argira.
Neure negarrak jarion neuzan
zeure mendiai begira.
LAUAXETA

Eder yatazan euzko basterrak,
eder itxaso zabala;
baña oraintxe ederrago yat
eriotz orren itzala.
LAUAXETA

Erri zintzo onenak zaindu dagiala
il gintzanen atsa, il gintzanen ala.
LAUAXETA

Arrats Beheran

– Ertzaintza! –atera zitzaion barren-barrenetik oihua Lauaxetari, bera eserita zegoen bankura gerturatzen ari zen ertzain-autoaren kanpoaldeko errotuluei harriduraz begira.

Inork ez zuen entzun oihua. Ingurura begiratu eta, bere burua kontrolatuz, barrenerako gorde zituen hasierako harridura-kolpearen ondorengo adierazpenak: «Guk asmatutako berba jaukak agerian autoak! Eta matrikula be ertzainena dok, geure ertzainena! Geureak dozak horreek, geureak! Ertzainak nagusi kalean, alajainkoa! Ez gintzuazan alferrik hil! Irabazi egin ete genduan ba azkenean guda? Euzkadi azke ete da?»

Nahiz eta ezer esan ez, ertzain-autoari begira-begira geratu zitzaion Lauaxeta, eta txoferrak susmo gaiztoz begiratu zion aldamenetik pasatzean.

Harrituago utzi zuen Lauaxeta polizien ibilgailuko errotuluak bere bat-bateko berpizte ustekabekoak baino. 1937an hila zen, gogoan zi-

tuen Gasteizko hilerriko fusilamenduko xehetasunak. Orain, ezerezetik bat-batean jalgia, ezkutuko indar batek heriotzaren ilunpeetatik biziaren argira itsumustuan erauzia, plaza bateko bankuan eserita berpiztu berria zen, gerra aurreko traje dotorez jantzita, gorbatadun eta betaurrekodun, baina fusilatu zutenean aurpegia estaltzen zion bizarraren aztarrenik gabe; eta ez zekien non eta noiz berpiztua zen, zein herritan eta zein urtetan, ez zekien noiz arte, eta, batez ere, ez zekien zertarako.

Funtsean ez zitzaion askorik axola hori guztia. Begien aurrean agertu berri zitzaion munduaren nondik-norakoek kezkatzen zuten Lauaxeta bizira itzuli berria, eta ez bere patu pertsonalak. Azken batean, ondo barneratua zuen hila zela. Kezka erlijioso handirik ere ez zuen une hartan. Hil zenez geroztik ez zuen Lauaxetak Jaungoikoaren existentziaren frogarik izan, ezerez huts eta ilun batean emana baitzuen osoosorik denbora tarte zehazgabe hura; baina ez zuen inongo frogaren beharrik bizirik zelarik hain kartsuki sinesten zuena berpiztu ondoren ere sinesten jarraitzeko.

Ertzain-autoa begien bistatik galdu zitzaionean, inguruetara begiratu zuen: etxe handiak, dendak, tabernak, jendea hara eta hona, autoak asfaltozko bide gainean... Autoen itxura bitxiak XXI. mendean egon zitekeela pentsarazi zion Lauaxetari; inguruak, berriz, zehazki zergatik ez bazekien ere, Gernika ekartzen zion gogora. Horretaz pentsatzen ari zela, «Gernika Garbiketak S.L.» errotulua irakurri zuen ondoko bidetik igaro zen furgoneta txuri batean. Gernikan baldin bazegoen, urte mordoska bat izan behar zuen iragana herria suntsitu zuen bonbardaketatik.

Bankutik altxatu eta ertzain-autoa igaro zen norabidean abiatu zen oinez. «Ertzaintza» zioen errotulu batekin egin zuen topo bat-batean; «Gernika-Lumo. Don Tello Kalea», zioen bestaldeko etxeetako batean erantsitako plakak; aurreraxeago, Arriaga jauregia ezagutu zuen, bonbardaketaren ostean Gernikan zutik geratutako etxe bakanetako bat. Ertzaintzaren Gernikako komisariaren aurrean zegoen, beraz, eta faxistek atxilotu zuten lekutik gertu. Atxilotu zutenek lotu zizkioten unean, esku zurbil biak dardarka zituela ekarri zuen gogora Lauaxetak; ezin izan

zuela ezer egin izuaren agerpen lotsagarri hura eragozteko.

Bonbardaketatik hiru egunetara izan zen atxiloketa hura, 1937ko apirilaren 29an. Guztiz suntsitua zegoen orduan Gernika, baina Andra Mari eliza eta Juntetxea osorik geratu ziren. Osorik ote ziren oraindik? Zutik iraungo ote zuen Gernikako Arbolak? Lauaxetak bazekien jada non zebilen, bazekien norantz jo; berehala agertu zitzaion begien aurrean Andra Mari eliza, eta agudo heldu zen Juntetxearen atarira ere. Harritu egin zuen sarreran zaindaririk ez ikusteak. Barrura sartzen hasita, ordea, konturatu zen sarrera ondoko garitaren barruan, aulki batean eserita, gizon bat zegoela; ertzain bat seguru askorik, arestian ikusitako ertzain-autoko poliziak bezala baitzegoen jantzita, txapel eta jertse gorriz.

Ertzain-autoan zein kaleetako plaketan euskarazko hitzak irakurri berria zen arren, zalantzak izan zituen ertzainarekin zein hizkuntzatan mintzatu. «Tira, ez hadi koldarra izan», esan behar izan zion bere buruari. «Ez habe euskaraz berba egiteagaitik fusilatuko. Zentzunbakoa izango litzatekek horretarako berpiztu izana.»

– Jaungoikoak egun on emon deigula, ertzain jauna.

– Berdin –erantzun zion, aurrean zuen despistatu itxurako gorbatadun bitxiaren solemnitateaz harrituta, garita barrukoak.

– Jakin gura neuke... zera... Ba dago barrura...?

– Sartu, sartu lasai, gizona. Libre da sarrera.

– Mila esker, ertzain jauna, mila esker...

Gernikako Haritz Zahar aspaldi ihartua zegoen kanpoko lorategian, baina hari begira geratu barik jakinminak barrura bultzatu zuen Lauaxeta. Batzar-aretoa presaka eta aztoratuta zeharkatu ondoren, Gernikako Haritz bizia agertu zitzaion begien aurrean, 1860an landatutakoa, eta harexen aurrean geratu zen pixka batean, hunkituta.

Haritzak «Euzko lur gañian zutunik» zirauela ikusteak ez zion, alabaina, erabateko argitasunik ematen Lauaxetari berpiztu eta ertzain-autoa ikusi zuen unetik buruan bueltaka zituen bi galderen inguruan: «Irabazi egin ete genduan azkenean guda? Euzkadi azke ete da?» Galdera haientzako erantzunen bila, zuhaitzaren ondoa

utzi eta han-hemenka argazkiak egiten ari ziren turista-bisitarien artean ibili zen batetik bestera, inguruak miatzen. Inorekin mintzatzeko lotsa eta beldur zenez, Leiarpeko aretoa deritzonean ezarritako informazio-taulen irakurketan murgildu zen, urduri.

Buruan zituen galdera haietako baten erantzuna aurkitu zuen tauletako batean. «Euskaldunen Herria / El País de los vascos» zen taularen izenburu nagusia. Izenburua bezala, euskaraz zein gaztelaniaz irakur zitezkeen paneleko testuak. Euskaraz irakurri zuen Lauaxetak: «Euskal Herria edo Euskadi euskaldunen herria da. Sustrai sakoneko herria dogu, kultura berezia daukana eta hizkuntza bereziaren, euskerearen, jabe dana. Zazpi herrialdek osatzen dabe Euskal Herria eta hiru administraziotan banatuta dagoz: Euskal Herriko Autonomi Elkartea eta Nafarroako Foru Komunitatea Estatu Espainiarrean, eta Iparraldea Estatu Frantseseko Pirineo Atlantiarren Departamentu barruan.» Eusko Legebiltzarraz mintzo zen taula beste testu batean: «Euskadiko Autonomi Elkarteak bere Legebiltzarra dauka. Legebiltzar horretarako Jatorrizko Lurralde bako-

txetik 25 Legebiltzarkideek Lehendakaria hautatzen dabe, Eusko Jaurlaritzaren buru izan daiten, Gernikako Estatutoan autortutako aginpideen arabera. Euskal erakunde biok –Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak– Gasteizen dauke egoitza ofiziala.»

Ez zuen 1936ko uztailean piztutako gerra aipatzen zuen inongo taularik aurkitu Juntetxean. Ezin zuen, horrenbestez, gerra hura nola amaitu zen jakin, baina, han emandako ordubetean ikusitakoak ikusita, gerra hura bere burkideek irabazi zutelakoan zegoen, Errepublikaren indarrek faxisten erasoari azkenean ere aurre egiten asmatu zutelakoan. Nekez uler zitekeen bestela Euzkadiko hiru herrialdek autonomia izatea, Legebiltzarra, Jaurlaritza, lehendakaria... Eta ertzainak!

Erabateko baieztapen ziurra nahi izango zukeen, baina garitako ertzainaren aurretik pasatzean ez zen hari galdetzen ausartu. Gainerako bisitariak imitatuz, ertzainari diosalik egin gabe irten zen Juntetxetik.

Emaztearengandik banatu berria nintzen Lauaxeta berpiztu zen garai hartan, eta etsipenak guztiz mendean hartua ninduen. Sorkunde gabe, 40 urteko agure zahar bakarti bat nintzen; «arratsari» nengoen, Lauaxetak esango zukeen moduan; «lainoz akribilatutako bihotza» nuen golkoan, Iñigo Aranbarrik esango zukeen moduan.

Lana uzteko asmoa buruan bueltaka zebilkidan ordurako. Kulturako erredaktore nintzen *Euskaldunon Egunkaria*-n, aspaldidanik, kazetaren sorreratik, eta guztiz galdua nuen hastapenetako interesa eta bizipoza. Nazkatuta ninduten, leporaino beteta, egunero tratatu behar nituen artista, idazle, musikari, aktore, zinema edo antzerki zuzendari, bertsolari, dantzari eta abarrek. Munduaren zilbortzat zuten gehienek nork bere burua, eta gizadiaren historiako monumentu garrantzitsu eta funtsezkotzat nork bere lana; apalenak, berriz, gizajo hutsak ziren, edo hipokrita handinahi errukarriak. Horrela ikusten nituen nik behintzat, horrelaxe ikusarazten zizkidan horrenbeste urtetako errutinak. Bizi izan ez duenak ez daki: eguna joan eta eguna etorri, ur-

teetan eta urteetan, hainbeste liburu eta aldizkari, hainbeste margo, eskultura, instalakuntza eta perfomance, hainbeste kanta, disko eta sinfonia, hainbeste aktore, pailazo eta txotxongilo, hainbeste aurreskulari, zamaltzain eta koreografo, hainbeste kopla, bertso, bertsopaper eta txapelketa, hainbeste sariketa, antologia, izendapen, omenaldi, hileta eta urteurren... Zertarako baina? Inori gera dakiokeen zaletasun eta interes hondarra zapaldu eta itotzeko baino ez! Azkenerako, egia osoa esanda, polemika eta ikamikarik gordinenek baino ez zidaten pizten benetako jakinmina eta interesa –edo morboa, zuzenago esateko–, baina horiek ere, gehienak behintzat, ziklikoki errepikatzen ziren, eskema berberei jarraiki ia beti, eta aspergarriak izaten ziren azkenean.

Lanaz aparteko ilusiorik ere ez nuen, ordea, garai hartan, eta horrexek eusten ninduen eguneroko zeregin hutsal hari lotuta. Aizarnazabalen jaio nintzen ni, Urola bailarako herririk gordeenean, eta gazte samarrik Tolosara ezkondu, baina Sorkundek utzi nindunean Andoainen hartu nuen pisu koxkor bat errentan, lantokitik

gertu, Martin Ugalde idazle eta *Euskaldunon Egunkaria*-ko Ohorezko Lehendakaria jaio zen kale berean, Kaleberrin. Lanetik etxera itzuli orduko telebista pizten nuen garai hartan, egunero, inon ziren lehiaketarik lerdoenak edo futbol partidarik aspergarrienak ikusteko prest. Pizza zatiren bat edota beheko tabernan erositako ogitartekoa jango nuen, edo lardaskatu askotan hura ere, osorik sabeleratu gabe, hiru laurdeneko botila ardoa lagun. Ondoren, besaulkian ia hondoratzeraino murgildu eta botila osoa hustu arte ez nintzen handik altxako.

Manuel Lasartek «Basarri bateko mutilzar edarizale bati bere auzotar baten erreguz» *Aizak i, mutil maiñontzi* doinuan jarritako bertsoak ez zitzaizkidan gaizki egokitzen garai hartan: «Berrogei urteko adiña, / zerbait pentsatzeko diña / baluke, baiña gizarajoak / burua ariña. / Zurrutak dago eragiña, / ainbeste badu egiña, / txikitandikan ekarri zuen / ortarako griña.» Ez nintzen bertso horietako gizonaren neurriko zurrutero amorratua, baina gainerakoan alde handirik ez.

Jai egunetan mendira irteteko joera nuen hala ere. Horixe zen garai hartan egiten nuen ganorazko gauza bakarra.

Hamaika eta erdiak ziren Andra Mari elizako erlojuan. Herriko kaleetan barrena, lanak ematen zizkion Lauaxetari benetan Gernikan zegoela sinesteak. Batez ere erlauntza itxurako etxe eskerga haien artean ibiltzeak ikaratzen zuen, baina autoen abiadurak ere eman zion sustorik.

Kanpoaldean egunkari eta aldizkari pila bat erakusten zituen liburu-denda baten parean geldiarazi zuen aurki jakinminak Lauaxeta. Aldizkari bateko azalera joan zitzaizkion begiak lehenlehenik: titiak agerian zituen neska gazte ilehori baten koloretako argazkiak hartzen zuen osoosorik azal ikusgarri eta aztoragarri hura. Ikuspen bortitz hark eragindako barne-asaldura pixka bat baretu zitzaionean egunkarietako hitzak irakurtzen hasi zen, nahasian, urduritasunak ez baitzion izenburu handietako esaldi nabarmenak ere osorik irakurtzeko betarik eta patxadarik uzten. Nahaste hartan, besteak baino

meheago zen egunkari bati erreparatu zion batbatean, harrituta: euskaraz idatziak zituen azaleko testu guztiak! Eta... bere argazkia ez zen ba azalaren goialde hartako eskuineko bazterrean zegoena! Alajainkoa! «Gaur 60 urte fusilatu zuten Estepan Urkiaga 'Lauaxeta'», zioen irudiaren ondoko izenburu nagusiak; «Gasteizen hil zuten, Gernikan atxilotu ondoren, olerkari eta kazetari bizkaitarra», jartzen zuen beheraxeago, letra meheagoetan. 23. orrialdean hasi eta 27.ean amaitu, bost orrialdeko erreportaje zabala zuen *Euskaldunon Egunkaria*-k berari buruz, Lauaxetari buruz. 1997ko ekainaren 25ean zegoen. 60 urte ziren fusilatu zutela. Orain bazekien hori.

Kanpoan egonaldi luzea egin ondoren, asaldura, urduritasun eta ezinegon guztiak mendean hartu eta hitz egiteko moduan zela iritzi zionean, denda barruan sartzera deliberatu zen azkenean.

– *Euskaldunon Egunkaria*-ren ale bat emoidazu, mesedez, andereño –eskatu zion ahots herabez saltzaileari.

– Ehun eta hogeita bost pezeta –esan zuen saltzaileak, Lauaxetari *Egunkaria*-ren ale bat eskuratzearekin batera.

«Hogeita bost ogerleko, alajainkoa!», larritu zen Lauaxeta bere kautan, ezer esan gabe. Nondik atera behar zuen dirutza hura? Ordura arte ez zen txikikeria hartaz ohartu ere egin, baina dirurik gabe larri behar zuen inondik ere. Eskuak sakeletan sartu eta eskuinekoan txanpon batzuk eta billete pila bat zeukala ohartu zen. «Eskerrik asko, Jauna, eskerrik asko.»

Saltzailea berantetsia eta haserretzen ere hasia zegoen, argazki zahar batetik aterea zirudien erosle bitxi haren geldotasuna kari.

– Har eizuz zeuk, mesedez –esan zion Lauaxetak, txanponez betetako esku ahurra harengana hurreratu eta zabalduta.

Hasperen egin zuen saltzaileak txanponak bereizi, berari zegozkionak jaso eta gainerakoak Lauaxetari itzultzen zizkion bitartean.

Egunkaria-ren alea eskuan zuela, liburu-dendaren aldamenean zegoen plazarantz jo zuen Lauaxetak. «Ez gintzuazan alferrik jardun, Estepan», esaten zion behin eta berriz bere buruari,

«Ez gintzuazan alferrik hil. Euskarazko egunkaria, alajainkoa!» Hunkituta zegoen.

Handik gertu zegoen plazako banku batean patxadaz eserita, ertzain-autoko txoferrak begiratu egin ziola ekarri zuen gogora; gero Juntetxeko sarrerako ertzainarekin mintzatu zela; eta, azkenik, liburu-dendako saltzaileak berak eskatutako egunkaria eman ziola. Jendeak bera ikusi eta entzun egiten zuen beraz. Ez zen ingurua ikusi, entzun, usaindu eta sentitu baino ezin zuen espiritu bakartu eta hutsal bat. Hantxe zegoen, benetan, bizirik. Poza eman zion horrek, halako barne-indar bat sentitu zuen, osotasuna, ilusioa.

Luzaz egon zen han, bankuan eserita, egunkaria ia-ia osorik irakurri arte, errealitateari zuzenean aurre egin aurretik derrigor kontsultatu beharreko gida iruditzen baitzitzaion paper mordoska hura. *Egunkaria*-n berari buruz esaten zutena ere oso-osorik irakurri zuen, hunkidurak xehetasunez jabetzea eragozten bazion ere. Artikuluez gain, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak kontratatutako iragarki bat ere bazen gehigarri hartan, «Euskal kazetarien lehen martiria» eta

«Euskadiren eta euskararen aldeko aitzindaria» izan zenaren ohoretan ezarria. «Ez habe ahaztu oraindino, Lauaxeta», esaten zion behin eta berriro bere buruari, «ez habe ahaztu.»

Pozezko irria loratu zitzaion Lauaxetari aurpegian *Egunkaria*-ko eguraldiaren mapak Euskal Herriko zazpi herrialdeak batzen zituela ikustean, eta zinema emanaldien agendan Donibane Garazi, Donapaleu eta Mauleko aretoetako programazioen berri ere ematen zela. Gainerakoan ez zen Nafarroa Behereko edo Zuberoako albiste gehiagorik, baina Haur Kantu Txapelketako finalaren berri ematen zuen artikulu batek; igandean Miarritzen jokatzekoa zen final hura, Euskal Herri osoko kantariak lehiakide zirela, baxenabartarrak eta zuberotarrak haien arteko asko eta asko.

Baina egunkariak ez dira 60 urteren ondoren bat-batean berpiztu berri diren irakurle despistatuentzat egiten, eta ederki igarri zion horri egun hartan Lauaxetak. Arraro samarra sentitu arren, ulergarria zitzaion artikulu gehientsuenetako euskara, baina artikulu askoren mamian kontu askotxo zitzaizkion guztiz arrotz, urrun, atzema-

nezin. Azkenean, irakurketa amaitu ostean ere argitu gabe jarraitzen zuen Lauaxetaren zalantza nagusiak: «Egia ete da, dirudien legez, guda irabazi egin genduala?»

Egunkaria-ren irakurketa amaitu zuenean, erdarazko egunkari batzuk erosi zituen liburu-dendan. Haiek ere indartu egin zioten gerra irabazi zutelako susmoa, baina erabateko baieztapenik gabe. Misterio ilun bat argitzeko irrika bizia ere sortu zion egunkarien irakurketak: «Zer ete da dalako ETA ospatsu hori?»

Prentsaren irakurketa urduri hartan ordu batzuk eman ondoren, paseo txiki bat egin zuen Gernikako kaleetan zehar. Tristatu eta sumindu egin zuen entzuten zituen solasaldi zatietan gaztelania nagusi zela jabetzeak. «Horretarako daukogu Jaurlaritza? Horretarako irabazi genduan guda? Horretarako hil ginan?»

Euskal Herria Museoan eta Gernika Museoan izan zen baina, haietan ere inori ezer galdetzen ausartu ez zenez, gerrari buruzko zalantza argitu gabe irten behar izan zuen bietatik. Euskal Herria Museoan Imanol Larrinagak sinatutako marrazki batean bere burua ikusi zuen; gerra ga-

raiko Lauaxeta zen marrazkikoa, komandante jantzian eta betaurrekorik gabe. *Arrats beran* liburuaren ale bat ere bazen, Lauaxetak 1935ean argitaratutako poema liburuarena, hango beira-arasa batean.

Ondoren, gosetuta, taberna batean pintxo bat jan eta baxoerdi bat hartu zuen. Bizirik zegoelako beste froga bat zen hura, ukaezina guztiz: jan eta edan egiten zuen. Gustura gainera.

Sorkunderekin bizi nintzelarik, eta baita ezkondu arretik ere, maiz joaten ginen biok mendira, ia-ia astebururo, igandeetan batez ere, astelehenean *Egunkaria*-rik plazaratzen ez zenez gero igandea beti jai izaten nuela baliatuz. Euskal Herriko mendi gailur garrantzitsuenetan izan ginen elkarrekin, behin baino gehiagotan horietako asko eta askotan: Gorbeia, Anboto, Udalaitz, Aizkorri, Erlo, Ernio, Txindoki, Beriain, Larrun, Orhi, Iparla, Auñamendi, Hiru Erregeen Mahaia... Ekialderagoko Pirinioetan ere maiz izan ginen: Bisaurin, Midi d’Osseau, Collarada, Balaitous, Aneto, Gran Tuc de Colomers, Perdido...

Tolosako Oargi mendizale elkarteko bazkide ginen, eta mendi gailurretako buzoietan txartelak utzi ohi genituen, ordainean, urtean zehar egindako mendien alturak batuz 25.000 metro osatuz gero, dominatxo bat jasotzeko. Urtero irabazten genuen dominatxoa, eta atxikimendu maitekorra genion gure kirol-garaipen xume eta herrikoi hari.

Sorkundek utzi ondorengo lehen asteetan, ez nintzen mendira irteteko gauza izan. Mendira betiko bidelaguna gabe joatea saminegia egingo zitzaidala iruditzen zitzaidan, ezin izango nuela sekula Sorkunde alboan ez izatearen pena ahaztu. Poliki-poliki, irteten hasi nintzen hala ere, bakarrik, neure kasa, etxe ingurutik asko urrundu gabe, Sorkunderekin ezagututako gailur handietara jotzeko kemenik edo ausardiarik ez banu bezala. Buruntzara joan nintzen, Belkoainera, Andatzara... Trena edo autobusa hartuta inguruko herrietako mendietara ere joaten hasi nintzen gero, baina mendi txiki eta ez oso urrunetara beti: Intxurre, Otsabio, Mendikute, Illaun, Irukurutzeta, Atxolin, Azkonabieta, Gaintxipitxa, Gaztelu, Ertxin, Indamendi, Aldura, Igoin, Urdaburu,

Zaburu, Urdelar... Batzuetan, inongo gailurretara igo gabe, herri batetik besterako bidea egiten nuen, mendizalerik gabeko bide galduetan barrena maizenik, txara sasiz betetakoetan galtzak urratzeko beldurrik gabe.

Lehen mendigoizale nintzena mendibehezale bihurtu nintzen, neure arima barruko isuri ilunari men eginik. Mendia beste era batera bizitzen, sentitzen eta neure egiten hasi nintzen. Mendira joatea ez zen jada, niretzat, kirola egiteko, paraje ederrekin gozatzeko edo izadiarekin batzeko modu bat, neure bizia errotik ukatzeko saioa baizik. Mendia ez zen, niretzat, edertasuna eta historia, bazterketa eta ahanztura baizik; ez zen bizitza eta kolorea, ezereza eta heriotza baizik. Eta horrexegatik jotzen nuen mendira, gero eta sarriago.

Herri eta auzo txikietako hilerrietan denbora luzea ematen nuen garai hartako ibilaldietan, orduak batzuetan, hilarrietako izenen jabeei buruzko asmaketa zoroetan murgilduta. Hilarrietako harrietan idatziak oso bestelakoak iruditzen zitzaizkidan pertsonen izen-deiturak, ilunagoak eta tristeagoak, gaixoagoak eta ahulagoak,

xahutuak, umelduak, harrokeriaren arrastorik gabeak, eskuragarriak, gertukoak guztiz. Hilerrietatik aparte ere, mendiko bide baten bazterrean hilarri bat agertuz gero, pausoak gelditu eta errespetu handiz begira geratuko nintzaion, hura han jarri zutenei saminean eta hilarenganako maitasunean lagundu nahirik bezala.

Etxola eta borda pitzadura beldurgarriz zaurituak edota jada behea joak; ola, errota, harrobi eta meategi zaharrak; zubi hautsiak; iturri agortuak; argindar-kablerik gabeko alferrikako zutoinak... Zirrara atsegingarri bat, halako kidetasun edo haurridetasun kontsolagarri bat-edo, sentiarazten zidan gizakiaren inoizko kemenak utzitako arrasto haiek neure begien aurrean horren antzu eta ahantzi ikusteak, lurperatu gabeko aspaldiko hilotzak balira bezala. Ez zitzaidan ardura arrasto haiek batzuetan mendizalearen gustukoak izaten ez diren forma ustez itsusiak izatea: askotariko tresna eta trastez betetako zabortegi klandestinoa, mendia erraietaraino irentsitako harrobia, higatutako pneumatiko pila handia, pendizean behera errekazuloraino eroritako auto abandonatu eta herdoildua...

Hala ere, zirrararik sarkorrena bidean aurkitutako baserri abandonatuek eragindakoa izaten zen. Sorgindu eta seko liluratuta katigatzen ninduten, nondik nora nindoan eta zer ordu zen guztiz ahaztuta. Hondakinen artean sartu eta negarra begietan nuela geratzen nintzen sukaldeko axuleiu sarritan artean ere zuri eta osoei begira. Pareta erori haien artean behiala izandako familia irudikatzen nuen, denborak gupidarik gabe hondatutako zoriontasun apal eta laño hura guztia.

1997ko Gernika pixka bat ezagutu ostean, oso argi zuen Lauaxetak zein izango zen bere hurrengo zeregina: trena hartu eta Bilbora jo. Hirurak eta laurdenetako trena hartu zuen.

Beldurtu egin zen hasieran, trenaren abiadurari biziegi iritzita, baina bidaiariak ez zirela larritzen ikusteak lasaitu egin zuen bera ere. Aldameneko errepidean, berriz, autoak trena baino are abiadura biziagoan mugitzen ziren, baina haien txoferren aurpegietan ere ez zen inolako larridurarik sumatzen. «Aurrerakada handia egin

jok teknikak azkeneko 60 urteetan», ondoriozta-tu zuen Lauaxetak.

Treneko bidaiarien isiltasunak eta bakarda-deak ezinegona piztu zion, nolanahi ere, barre-nean. Gehientsuenak bakarrik sartzen ziren ba-goira eta, orotara bagoi osoan dozena bat lagun baino gehiago ez bildu arren, inori diosalik egin gabe, elkarrengandik ahalik eta urrunen eser-tzen saiatzen ziren. Ez zen hala izaten Lauaxetak lehen mende laurdenean ezagutu zuen garraio publikoan. Horretan oso aldatuak zeuden kon-tuak. «Alkarregaz haserre dagozela emoten jok», esan zuen Lauaxetak bere artean, «hondo-rik gabeko tristura sakon batek alkarrengandik bananduko baleuz legez.» Bagoi barruko bozgo-railuetatik entzuten zen musika melengak ez zuen ezinegona larritu baino egiten.

Lemoako geltokian gizon gazte beltz bat igo zen bagoira, bakarrik hura ere. Gainerakoak be-zala, ahalik eta lekurik bakartienean esertzera joan zen, baina Lauaxetarengandik aski gertu hala ere. Agian euskaraz jakingo zuelakoan eta beltz bat euskaraz mintzatzen entzuteko irriki-

tan, harekin hizketan hastekotan egon zen une batez Lauaxeta, baina azkenean ez zen ausartu.

Bilboko kaleetan bueltaka, pentsatzekoa zenez, gauza asko gertatu zitzaion harrigarri Lauaxetari: jendearen emana oro har («beredin notin», Lauaxetaren garai bateko idazkeran), jende askoren janzkera, sakelako telefonoak, bikote gazte askoren libertinaje lotsagabea, trafikoko argiak, etxeen pilaketa basati eta itogarria, Salbeko zubi erraldoia, Guggenheim Bilbao Museoa, panel publizitario erraldoi eta koloretsuak, El Corte Inglés, San Francisco kaleko prostitutak eta trabestiak, inguru hartako beltzen ugaritasuna... Telebista ere orduantxe deskubritu zuen, harrituta, Lauaxetak, Zazpi Kaleetako taberna batera mokadu bat egitera sarturik.

Henao kalean bera garai batean bizi izan zeneko etxea ikusi zuen kanpotik. Handik ez oso urrun, *Lauaxeta* izeneko liburu-dendarekin egin zuen topo. Harritu eta hunkitu egin zen berriro, Gernikan *Egunkaria*-ko azalean bere argazkia ikustean bezala. Liburu-dendako erakusleihoetan erdarazko liburuak ziren nagusi, baina euskaraz idatzitako batzuk ere ageri ziren bazter ba-

tean. Ez zen haatik barrura sartzen ausartu, ezagutuko ote zuten beldur. Ez zen inoren aurrean bere burua aurkezteko prestatuta sentitzen.

Egun osoa eman zuen batetik bestera Bilbo berritu eta moderno hartan barrena, begiak zabal-zabalik, bere garaiko eraikin zahar berraurkituei zein eraikin berri estonagarriei miraz begira. Politikaren inguruko kezkak ere ahaztu zituen, eta harridura etengabearen zorabioan murgiltzen utzi zion bere buruari. Ume bat bezala sentitu zen. Edo LSD pilula haluzinagarri bat hartu izan balu bezala. Ibilaldi hartan bere belarrietara Gernikan baino are euskara gutxiago sartzeak kezka baten itzala lerrarazi zion, nolanahi ere, arima barreneraino.

Euskalduna ez ezik, euskaltzalea eta abertzalea ere izan naiz beti. Kasik ezinbestean, jaio nintzen lekuan eta jaio nintzen garaian jaiota. Ezkertiarra ere bai; aukerakoagoa izanagatik ere, azken batean horixe izan da beti ohikoena eta errazena nire inguruan. Gaztetan euskaltzale, abertzale eta ezkertiar sutsua izan nintzen,

baina ondoren gero eta epelagoa. Beste asko bezala. Ohikoena eta errazena egin nuen horretan ere seguru askorik, egokitzen zitzaidana.

1990ean *Egunkaria*-n lanean hasi nintzenean 33 urte nituen. Aspaldisko errauts bihurtuak ziren ordurako nire gaztetako suak. Urte gehiegi ziren jada gurpil berari leku beretik eta modu berean bultzaka beti, euskara eta aberria gora eta euskara eta aberria behera beti, geure antzinako euskal txilbor mitiko aratz parerik gabekoari mirespen erlijioso-folklorikoz begira beti, ETAk, KASek, HBk, AABk, LABek eta abarrek ziotenaren edo egiten zutenaren mende beti. Ez nion ezeri behar adinako federik, ez nintzen inongo talde, elkarte edo kolektibotako kide izateko gauza sentitzen. Desartikulatuta nengoen. Jitoan nenbilen, galduta, eta *Egunkaria*-ko kontratua sinatu nuenean izar gidari bat atxiki nuela uste izan nuen, kontratu hartan bat egiten baitzuten hileroko soldatak eta militantziak, eguneroko lan arautuak eta euskararen eta aberriaren aldeko borrokak. *Egunkaria*-ko erredakzio nagusia ez zegoen artean ere, urte batzuk geroago egongo zen bezala, Andoaingo Gudarien etorbidean, La-

sarte-Orian baizik, baina hara lan egitera joaten ginenok gudaritik zertxobait behintzat bagenuela sinetsirik nengoen hasierako garai hartan. Koldo Izagirre idazlea erredakzio nagusira etorri zen aurreneko zenbakia plazaratu zen egunean, guri zorionak ematera. Hori ez zen gero ahuntzaren gauerdiko eztula!

Urteek, ordea, hutsean utzi zuten nire ilusio hura, eta Lauaxeta ezagutu nuenerako errutinak guztiz bereganatua ninduen. Distantzia eta soraiotasun handiz bizi nituen *Egunkaria*-ren gorabeherak, eta baita inguruko egoera politikoa ere: ETAren atentatuak, presoen sakabanaketa, torturak, etakide batzuen heriotza ilunak, alderdi abertzaleen arteko ika-mika eta ezinikusiak, noizean behin hauteskundeak... Ezker abertzalearen alde nengoen eta HBri ematen nion beti boza, baina gogorik eta grinarik gabe bizi nuen saltsa politiko guztia, astelehenean Espainiako Futbol Ligako emaitzak errepasatzen nituen axolagabekeria eta urruntasun berberaz. Pozgarria zen niretzat Realak irabazi egin zuela jakitea, eta, antzeko gisan, pozgarria zen HBk hauteskundeetan gora egin zuela jakitea ere. Ez zego-

en alde handirik bi poz horien artean. Nire bizitzarekin zerikusi zuzenik ez zuten errealitate urrun eta ukiezinak ziren biak ala biak. Horretan ere beste asko bezalakoa nintzen. Ohikoena eta errazena zen.

Lauaxeta ezagutu aurreko garaian, 1997ko udaberrian eta udan, Espainiako Gerra Zibila deituaren inguruko kontuetan interesatuago nengoen neure garaiko politika gorabeheretan baino. Luis Fernandez kazetaria eta Josu Chueca historialaria gerra hari buruzko hainbat erreportaje ari ziren argitaratzen *Egunkaria*-ko *Igandeko KZ* gehigarrian, eta batzuetan nik neure mendi ibilaldietan ezagututako parajeak ziren haiek kontatutako borroken gertaleku: Pikoketa, Erlaitz, Aritxulegi, Arrate, Usartza, Kalamua, Karabieta, Intxorta, Urbasa, Oiz, Bizkargi, Artxanda...

Gerrari buruzko interesak horretaraturik, 1997ko iraileko lehen igandean, Lauaxeta ezagutu baino egun batzuk lehentxeago, Elgetara autobusean joan eta Intxortako «odolezko mendietara» igo nintzen. Han pasatu nuen eguna, gerra garaian inguru hartan gertatutakoak buruan bueltaka nituela, faxisten hegazkinen era-

soak eta gudarien mugimenduak irudikatzen. Agirre'tar Nikola *Metxa* ere –Koldo Izagirrek sortutako pertsonaia suhar, herren eta erretxinahan ibilia izango zela oroitu nuen, enlaze lanetan jo batera eta jo bestera.

Elgetatik gertu, errepidea utzi eta Intxortarako bidean pixka bat aurrera egin orduko, monolito bertikal handi batean, Francoren aldekoek 1937ko apirilaren 24 eta 25ean hildako lau elgetarren izenak irakurri nituen. Sesto-Gain, Antzuategi eta Antzuategi Baztarrekoa baserrietakoak ziren, harriak zioenez; hiru gizonezko eta emakume bat. Emakumeak nire deitura bera zuen. Lamarain'tar Prantziska, ibili-ibili eginda, tartekoa izatea ere ez zen ezinezkoa, gure aitona zena Elorriokoa omen zen-eta.

Intxortatik jaitsi eta gero, beste harri bat ikusi nuen, Angiozarko errepideko bidegurutzearen parean: «Euzkadi'k emen geldi-azo eban etsaiaren jazarraldia», zegoen idatzia harri hartan. Data batzuk ageri ziren behean: «1936-10-4 / 1937-4-20 ta 23.»

Mendi ibilaldietan aurkitzen nituen hilarri guztiek hunkitzen baninduten ere, haiek aparte-

ko indarra hartu zuten nire begien aurrean. Zirrara eragiten zidan inguru hartan gerra bat izan zela irudikatzeak; inguruko baserritar batzuk Francoren aldekoen eskuetan hiltzen eta beste batzuk inguruko mendietan Euzkadi Francoren atzapar etsaietatik defenditzen, armak eskuan hartuta, herriaren alde bizia emateko prest. Ez ziren artean 60 urte baino, eta hori huskeria bat da, 40 urte bizi izan den edonork ondotxo dakienez, 20 urte baino ez dituenari hala ez iruditu arren. Txikitatik nituen entzunak gerrako kontuak, etxean eta herrian, baina sekula ez nituen une hartan bezain gertu sentitu. Inguruko aktualitate garaikidea baino askoz ere gertuago.

Kanpazar gaineko tabernan patata-tortilla pintxo bat jan eta baxoerdi bat hartu ondoren, artean denbora nahikoa nuela-eta, Arrasatera jaitsi beharrean Angiozartik barrena Bergararaino joatea erabaki nuen. Angiozarra heldu baino pixkat lehenago, hilerriarekin egin nuen topo ezustean. Hilerriaren sarrerako burdinazko bi ate beltzei begira geratu nintzen. Denbora pixka bat behar izan nuen ate haiek erakusten zituzten hutsuneak letrak zirela jabetzeko, eta beste tarte

bat artean ere letra haiek zeintzuk ziren deszifratzeko. Sekulako danbatekoa sentitu nuen barruan letra haiek osatutako esaldiaz jabetzera heldu nintzenean: «Il nintzan», zioen ezkerreko ateak; «eta bizi naiz», eskuinekoak. Ondoeza egin zitzaidan, eta tarte bat egin nuen hantxe, hilerriaren atarian ahozpez etzanda, konorterik gabe. Ez zen, antza, tarte luzea izan, inork egoera kezkagarri hartan ikusi baino lehen itzuli bainintzen neure onera, harrituta, zer gertatu zitzaidan ezin ulerturik.

Hilerrian sartu gabe berrekin nion bideari. Angiozarren geratu gabe, zuzenean egin nuen behera, Bergara aldera. Beste bide bat bazen arren, basoan zehar, nahiago izan nuen errepidetik jaitsi, bide zuzenaren bila duda-mudatan ibili beharrik ez izatearren. Espaloirik gabeko bideetan, oinezkoak diosala zor dio parean edo inguruan egokitzen zaion oinezkoari; gizalegeak hala agintzen du. Nik diosal egin nien ondoan egokitu zitzaizkidan ibiltari eta baserritar guztiei, eta baita neuri haiek ere, baina diosal bakoitzaren ondoren, nahiz eta diosala neure begiekin ikusi eta neure belarriekin entzun berria izan,

ibiltariaren edo baserritarraren keinu jator hura nire irudimenaren iruzurra baino ez zelako goganbehar absurdua izaten nuen, ibiltariak edo baserritarrak benetan diosalik egin ez zidalako susmo deserosoa, ez hark nire aurka ezer zuelako, ikusi ere egin ez ninduelako baizik, haren mundutik eta haren pertzepziotik at nengoelako.

Trafiko urriko errepidea zen Angiozartik Bergarara bitartekoa. Paraje ederren ikusmira eskaintzen zuen eta horretarako zurezko banku egokiak zeuden errepide ertzean txukun apailatuak, baina nik horretaz ohartu gabe egin nuen bidea, inguruko errealitatetik urruntzen ninduen lilura itsugarri batek bereganatua banindu bezala. Normalean horrelako xehetasunetan erreparatzea maite banuen ere, orduko hartan ez nintzen, haren ondotik pasatzearakoan, errepide ertzeko San Kristobal –belarriko minaren kontrako santua eta txoferren zaindaria– han zegoenik ohartu ere egin.

Bergaratik Andoaina, etxera, autobusean itzuli nintzen, gero eta normalago sentituz, inguruko errealitatetik gero eta gertuago banengo bezala. Baina aurrerantzean, egun hartaz oroi-

tzearekin batera beti izango nuen ondoez absurdu haren ondoren nire barrenean zerbait aldatu zelako irudipen zentzugabea, Angiozarko kanposantuaren atarian zerbait, ezin jakin zer, utzi izan nuelakoa.

Jaun Ahalguztidun errukiorrak eskuineko sakelan utzirik zion diru mordoskari esker arazo ekonomikorik ez zuenez, Bilboko pentsio batean ostatu hartu eta hantxe bizitzen geratu zen Lauaxeta, Bilbori, Euskal Herriari eta mundu osoari buruzko jakinmin erraldoi hura asetzera emana.

Asko ikasi zuen oso denbora gutxian. Gernikan berpizturik azaldu zenetik bi hilabete pasatxo ziren nik ezagutu nuenean, eta ordurako aski laketua zegoen XX. mendearen hondarreko Euskal Herriko bizimodura. Ordurako bazekien dirua erabiltzen eta neurtzen, eta baita jendearen tratabidea bizi zen garaira egokitzen ere, gehiegizko kunplimenduak baztertuta. Bazekien nor ziren Salbatore Mitxelena, Iratzeder, Jon Mirande, Koldo Mitxelena, Piarres Larzabal, Yon Etxai-

de, Gabriel Aresti, Manex Erdozainzi-Etxart, Txillardegi, Bitoriano Gandiaga, Xabier Lete, Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Joseba Sarrionandia, Koldo Izagirre eta beste asko, eta irakurriak zituen haietako batzuen hainbat idazlan. Arte plastikoen arloan ere asko ikasi zuen, katalogoak begiratuz batez ere: Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Remigio Mendiburu, Rafael Ruiz Balerdi, Nestor Basterretxea, Jose Luis Zumeta, Bixente Ameztoi, Koldobika Jauregi... Horretaz gain, kultura arloko hainbat ekitalditan izan zen berpiztu ondorengo lehen bi hilabeteetan: bertso saio batzuk, antzerki zein zinema emanaldiak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertu bat...

Hasierako uste ustela baztertuz, 1936an hasitako gerra hura galdu egin zutela ere ikasi behar izan zuen, jakina, hamabi edo hamahiru aste haietan, eta berpiztu berritan ikusi zuen ertzain-autoa ez zela inondik ere bera hil ondoan bizirik geratutako burkideen garaipen heroiko baten ondorio. Gerra hura faxistek irabazi zutela ikasi behar izan zuen; Jose Antonio Agirre Euzko Jaurlaritzako lehendakaria erbesteko Euzko Jaur-

laritzako lehendakaria baino ezin izan zela 1937ko abuztutik aurrera; etsaien burua, Francisco Franco *caudilloa*, ohean hil zela 1975ean, Euskal Herria eta euskara ahal izan zuen bezain zapalduta utzirik eta ondorengotzaren inguruko kontuak ahal izan zuen bezain estu loturik. Horrekin guztiarekin batera, garaiko abertzaleen zatiketaz jabetu zen, eta ETAri buruz ere asko eta interes biziz irakurri zuen.

Baina ikasitako guztia ahalegin pertsonal handi bati esker ikasi zuen bi hilabete pasatxoko tarte hartan, inoren laguntzarik gabe, liburutegi eta hemeroteketan begiak erretzeraino lan eginez. Autodidakta izatea egokitu zitzaion, eta ez berak hala nahi izan zuelako, beste erremediorik izan ez zuelako baizik. Jendeak Lauaxeta ikusi eta entzun egiten zuen, Lauaxetak egunkaria eros eta irakur zezakeen, irratia entzun, telebista ikusi, zinemara joan, jan eta edan ere egiten zuen, ondoriozko hondakinak gerripetik hustu, lo eta amets edonork bezala, trenean edo autobusean ibili... Baina guztiz ezindua zegoen harreman pertsonaletarako.

Bere burua jendaurrean aurkezteko prest zegoela erabaki ondoren hasi zen horretaz jabetzen. Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzara jotzea izan zuen lehen urratsa. Euskararen eta Euzkadiren alde ahal zuena egiteko prest zegoen, eta zer egin zezakeen argitzen hasteko modurik egokiena bere burua Euskaltzaindiari eskaintzea izango zelakoan jo zuen hara.

– Egun on, jauna –adierazi zion sarrerako harrera-gelan aurkitu zuen idazkariari.

Idazkariak, ordea, ez zion jaramonik ere egin. Alegia deus ez, bere mahaitxoan zeuzkan paperekin jarraitu zuen lanean.

– Parkatu, jauna –ekin zion berriro Lauaxetak, eztul pare baten ondoren–. Estepan Urkiaga naz.

Gizonak burua paperetara makurturik zuela jarraitzen zuen.

– Ni Lauaxeta naz, jauna, gudan fusilatu eben olerkaria...

Alferrik ari zela ikusirik, idazkariari ezer esan gabe barrura jotzea erabaki zuen. Hainbat euskaltzain aurkitu zuen barruko gela batean bilduri k. Egunkarietako argazkietatik ezagunak zitzaizkion haietako batzuen aurpegiak.

– Egun on, jaun-andreok. Parkatu beharko deustazue zuen bilera etetea baina...

Haiek ere, ordea, idazkariak bezala, ez zuten ez ikusten ez entzuten Lauaxeta.

– Lauaxeta olerkaria naz! –egin zuen deiadar–. Berpiztu egin naz, jaun-andreok! Eta euskararen alde egin beharreko guztia egiteko gertu nozue, neure hatsaren eta ahalaren azkeneko hondarreraino, aurreko bizian izan nintzan legez! Gora Euzkadi!

Alferrik. Berean jarraitzen zuten euskaltzainek, olerkaria aintzat hartu gabe. Egunkarietako argazkien bidez ondo ezagutzen zuenez, eta bazekienez gizon huraxe zela euskaltzainen burua, Jean Haritxelharren sorbalda ukitzera ausartu zen, baina Lauaxetaren eskuak Haritxelharren gorputza ukitu gabe zeharkatu zuen, aurreko paretatik proiektatutako irudi bat baino ez balitz bezala. Eta eskua bakarrik ez, Lauaxetaren gorputz osoa zen berak baino ezin ikusi zuen irudi huts bat, espiritu hutsal bat, gela hartan. Euskaltzainik zein altzaririk ukitu gabe pasatu zen gelaren alde batetik bestera eta, izututa, lasterka abiatu zen kanpora. Sartzen ikusi ez zuen beza-

la, irteten ere ez zuen ikusi Lauaxeta harrera-gelako idazkariak. Jada Lauaxeta kanpoan zela, haize-boladatxo bat sentiturik, burua altxatu eta kanpoko atea ixten ari zela ikusi zuen. Ate inguruan inor ez zegoenez, bere paperetara bildu zen berriro berehala, kezkarik gabe.

Euskaltzaindiaren egoitzaren atarian, lasterka jarraitu zuen Lauaxetak plazako arkupean zehar, harik eta elkarri helduta eta musuka zetorren neska-mutil bikote gazte batekin behaztopa egin zuen arte.

– Parkatu, gazteok! –esan zuen Lauaxetak, arnasestuka–. Eskerrik asko. Eskerrik asko. Bizirik nagok, alajainkoa! A zer sustoa!

Harriduraz begiratu zioten neska-mutikoek, eta ezer esan gabe beren bidean aurrera jarraitu zuten.

Euskaltzaindiko kideekin ez ezik, beste idazle eta intelektual batzuekin ere egin zuen Lauaxetak bere burua aurkeztu eta harremanetan jartzeko ahalegina. Jon Kortazar idazle, irakasle eta kritikariarengana jo nahi izan zuen lehenik, huraxe zelako Lauaxetaz ugarien eta sakonen idatzitako pertsona. Telefonoz deitzen zionean, ordea,

Kortazarrek telefonoa hartu bai, baina ez zuen entzuten Lauaxetaren ahotsik. Kortazarren etxera ere joan zen Lauaxeta, Mungiara, bere haurtzaroaren lekuko izandako herrira hain zuzen ere, baina Kortazarrek, atea zabaldu zuen arren, ez zuen ate ondoan ikusi ere egin. Beldur handiz luzatu zuen eskua orduan Lauaxetak Kortazarrengana, baina, Euskaltzaindiko egoitzan bezala, han ere espiritu hutsal bihurtua zela jabetu zen, aurrean zuen gizonarentzat ikusezin, entzunezin, ukiezin, atzemanezin guztiz. Orobat gertatu zitzaion *Egunkaria*-ko erreportajean idazten zuten beste bi idazleekin ere, Koldo Izagirre eta Edorta Jimenezekin, eta baita erreportaje hartan elkarrizketatzen zuten kantari lauaxetazalearekin ere, Antton Valverderekin.

Bizirik zen artean Lauaxetaren arreba eta baita haren hainbat ahaide, adiskide eta burkide ere, pertsona aski ezagunak horien artean: Augustin Zubikarai, Basarri, Polixene Trabudua, Sorne Unzueta *Utarsus*, Gonzalo Nardiz, Elias Etxeberria... Haietako batzuei bisita egiteko aukera aztertu zuen Lauaxetak, baina haiek ere ez zutela seguru askorik ez ikusiko eta ez entzungo

pentsatu zuen; eta ikusi, entzun eta ezagutuko balute ere, halako agerpen fantasmagoriko bat senide, ahaide, adiskide eta burkide zaharren osasunerako kaltegarri izan zitekeela, laurogei urtetik gora baitzuten guztiek ere. Ez zitzaizkion, gainera, andre eta gizon haiek iruditzen garai berriko Euskal Herria ezagutzeko izan zitzakeen lagunik egokienak. Garaiko norbait nahi zuen ondoan Lauaxetak.

Horrenbestez, asko ikasi arren, jendearen aurrean piztia arraro baten gisa agertu gabe bizitzeko gauza izatera heltzeko lain bai behintzat, galdua sentitzen zen Lauaxeta, bakarrik, deserroturik, abandonaturik, arrotz Euzkadi edo Euskal Herri berri, bizi eta interesgarri hartan. Lagunak behar zituen, konfiantzako gidari bat zen haren amets handia.

Huts egindako aukerek ez zioten, nolanahi ere, erabat etsiarazi. Azken aukera baten esperantza gordetzen zuen artean.

Ahalegin etsigarri haien guztien ondotik, eguarte batez joan zen Lauaxeta, 1997ko iraile-

ko bigarren astean, Andoaina, *Egunkaria*-ko erredakzio nagusira, nahiko goiz, hamarrak irian.

Ordu horretan kazetari gutxi izan ohi zen erredakzioan, eta neu ere kasualitatez suertatu nintzen han. Bere lan guztietan etsipenetik abiatzen zen abangoardiako artista plastiko multidiziplinar bati egindako elkarrizketa transkribatu behar nuen egun hartan, eta goi mailako solasaldi hark emango zizkidan buruhausteen beldur joan nintzen horren goiz lanera, aurrez aurre izan nuenean ez bainion piperrik ere ulertu gizon distiratsu hari.

– Julen, zurekin hitz egin nahi duen gizon bat dago hemen –eman zidan enkargua, sarreratik, telefonistak–. Ba al duzu etortzerik une bat?

– Nirekin hitz egin? Orain? Ez dakit... Nor da ba?

– Estepan Urkiaga.

– Estepan Urkiaga? Hara, a zer izena! Lauaxeta izango da –esan nuen irriz.

– Ez dakit –erantzun zidan telefonistak, nire txantxaz jabetu gabe–. Zer esango diot?

– Tira, joango naiz horra. Esaiozu itxoiteko pixka batean.

Harrera-gelako aulkietako batean eserita aurkitu nuen. «Lauaxetaren antza dik benetan», esan nion neure buruari: 30 urte inguruko gazte lerden bat, *pipiolo* itxura erabatekoa behetik hasita goraino. Aurpegi mehe eta garbia, betaurreko biribilak, ile laburra atzeraka orraztua, arropak ere dotoreak oso, gorbata eta guzti, baina aspaldiko moldekoak... Bazkalorduan, lankideekin batera, delako Estepan Urkiaga haren kontura barre pixka bat egiteko moduan izango nintzela etorri zitzaidan burura.

– Lamarain'tar Ju... Parkatu... Julen Lamarain jauna? –galdetu zidan zutitu eta bostekoa ematen zidan bitartean. Gogor estutu zidan eskua, eta elkarrekin lotutako esku biei begira geratu zen lipar batez, irri bitxi bat ahoan.

– Bai, neu naiz.

– Ni Lauaxeta naz –esan zidan, nahiko isil, nitaz gain beste inork entzuteko beldurrez balitz bezala–. Olerkaria. Eta baita kazetaria be, zeu legez. Ezagutzen nozu. Zuk nitaz idatzi dozu. Kontua da... berpiztu egin nazela...

– Berpiztu?

– Bai, ez dakit nola, ez dakit noz arte, ez dakit zertarako, baina orain bizien artean nago barriro. Saiatu naz nitaz idatzi daben beste gizon argi batzuekaz berba egiten baina ez nabe ikusten, ez nabe aditzen, ez nabe sentitzen. Zuk ikusi egiten nozu, eta bostekoa emon deustazu, ez da halan? Hori gauza handia da! Eta badakizu nor nazen, zuk nitaz idatzi dozu, erreportaje zabala egin zenduan nire fusilamenduaren 60. urteurrenean, eta pentsatu dot...

– Polikiago, jauna, polikiago! Eser zaitez, mesedez. Zer demontre pentsatu duzu?

Eseri egin ginen biok. Bai, benetan barre ederrak egin behar nituen lankideekin bazkalorduan. Baina... orain zer? Orain zer arraio egin behar nuen aurrean nuen zoro harekin?

– Hara, zuk gertutik ezagutzen dozu euskal kulturaren mundua, eta zure ondoan gauza asko ikas neikez... Laguntzaile bat behar dot, gidari bat...

– Tira, tira, nahikoa da! –eten nion jarduna, hura gehiegizkoa zela iritzita–. Ez daukat honelako adar-jotzeetarako astirik. Oso ondo egiten duzu Lauaxetarena, eta antza ere handia duzu,

egia osoa esan behar bada, baina nahikoa da. Ados?

– Itxidazu eskerrak emoten gitxienez.

– Eskerrak? Zer dela-eta?

– Neuri buruz atondu zenduan erreportajeagaitik. Bikaina zan. Hunkitu egin ninduan.

– Tira, tira... Besteren iritziak jaso besterik ez nuen egin nik, idazleenak eta Antton Valverderenak. Ezer interesgarririk bazen, haiek zuten meritua.

– Baina ardura zeurea zan azken baten, ez da halan? Eskerrik asko, benetan.

– Ez horregatik.

– Aizu, eta... larregizko ausardia ez bada: zer iritzi dozu zuk zeuk Lauaxetaz? –galdetu zidan, serio, interes handiz.

– Nik? Lauaxetaz? Tira, nik, egia esan, aukeran, ez zaitez haserretu baina Lizardi nahiago dut, errazago sartzen zait, bai, samurragoa zait, gertukoagoa, beharbada neu ere giputza naizelako, ez dakit... Baina Lauaxeta ere estimatzen dut. Ausarta zen, berrizalea... Eta sutsua, epikoa batzuetan, eta sekulako zirrara eragiten dute haren poema batzuek, batez ere gero nola hil

zen aintzat hartuz gero... «Jauna, eriotz au arren emostazu, / koldarrentzat itxi larrosen usaña...»

– Poza emoten deust hori aditzeak, jauna... –esan zuen, irri herabe batez–. Ez zenduke Lauaxetaren adiskide izan gura? Horra nire eskaintza.

– Zer da hau baina? –haserretu nintzen berriro, ordura arte egon nintzeneko hodeitik bat-batean erorita bezala–. Telebistako broma horietako bat? –Zutitu eta ingurura begira hasi nintzen–. Kamera ezkutu bat al dago hemen?

– Ondo da, ondo da... –etsi zuen Lauaxetak, eta zutitu egin zen bera ere–. Banoa. Agur, jauna. Parkatu, parkatu. Mila esker eta barriro ikusi arte.

Bostekoa eman zidan berriz ere, aterantz jo aurretik. Gogor estutu zidan eskua oraingoan ere, eta lehengo irri bitxi bera egin zuen esku lotuei begira.

– Atsegin handia izan da zu ezagutzea –esan zidan ate ondotik–. Benetan. Uste dot gizon handia zarela. Badodaz motiboak hori pentsetako eta esateko. Sinetsidazu. Azkenik, gauza bat eskatu gura deutsut, mesedez: ez eiozu inori esan hemen izan nazenik.

Erredakziora itzuli eta bere lan guztietan etsipenetik abiatzen zen artista plastiko arranditsuaren esaldi labirintikoak transkribatzeari berrekin nion. Itzuli ere egin behar nituen, erdalduna baitzen euskal artearen printze gaindiezin hura. Banekien zentzugabea zela, erridikulua guztiz, baina Lauaxetarekin egoteko gogoa sentitu nuen. Zama bat nuen kontzientzian Estepan Urkiaga misteriotsu hari bere asmoak osorik azaldu gabe joaten utzi niolako, berriro harekin kontaktatu ahal izateko biderik zabaldu gabe gainera. Bazkalorduan ez nien bisita haraz deus ere aipatu lankideei.

Mendietara

Lauaxeta zenik ez sinetsi arren, ezinegon bat piztu zuen nire baitan gizon arraro haren bisitak. Inori ezer esan gabe, dena neure barrurako gordeta, betaurrekodun misteriotsu hari buruzko mila burutazio izan nituen ondorengo egunetan. Nor ote zen? Zer nahi ote zuen benetan? Zer gertatuko ote zatekeen begien bistatik bidali beharrean haren proposamena astiro entzun eta baiezkoa eman banio? Telefonoz deitzen zidaten bakoitzean gizon hura izango zela pentsatzen nuen, eta ilusionatu eta urduritu egiten nintzen, nerabe maitemindu berri baten antzera. Ez zuen deitu, ordea, eta ez zen berriro joan erredakziora.

Neuk zergatik jakin gabe, barruak astindu eta asaldatu egin zizkidan bisita hark. Barne-iraultza bat izan zen nire erraietan. Haurtzaroko eta nerabezaroko oroitzapenak etorri zitzaizkidan trumilka gogora ondorengo egunetan, aspaldiko partez, indartu eta biziberriturik. Margarenak batez ere, Margak Zeanurin, Gorbeiapeko sagas-

ti hartan, «Ikusi nahi al dizkidazu?» galdetu zidan lehen egun urrun hartakoak bereziki.

Barne-iraultza haren eldarnioan, ezinbestean eta lehenbailehen hartu beharreko erabakia zen ordura artean funtsik gabeko asmo lanbrotsua baino izan ez zena: lana utzi eta etxetik alde egin behar nuen, nora eta zertara ez banekien ere.

Aspaldidanik nintzen ni, izan ere, federik eta ilusiorik gabeko kazetaria. Egunkarietako erredakzioetan, baita indar ekonomiko eskasenekoetan ere, etengabe jasotzen dituzte kazetariek mundu osoko berriak eta irudiak, milaka eta milaka egunero. Horietako asko eta asko artxibatuta geratzen dira, nahi denean eskuragai. Horretaz gain, telefonoek, faxek eta Internetek milioika ate gehiago zabal diezazkiokete, erredakziotik irten beharrik ere gabe, kazetariaren jakinminari. Baina, horrenbesteko erraztasunaren ondorioz, horixe izaten da azkenean kazetariari falta izaten zaiona: jakinmina. Azkenean, berdin zaio kazetariari zertaz idazten ari den ere, berdin zaio injustiziaren neurria, berdin torturatuen oinazea eta hildakoen kopurua. Azkenean, ez du ezerk

harritzen, ezerk hunkitzen, ezerk mintzen. Eta, jakina, kazetariaren soraiotasun lazgarri hori berehala kutsatzen zaio irakurleari ere.

Miguel Sánchez-Ostizen *La gran ilusión* nobelako pertsonaia bati iruditzen zaio heltzen zaigun oro «bigarren eskukoa» dela, ezagutzen dugun oro azaletik baino ez dugula ezagutzen, inoiz ezeren benetako muinera heldu gabe. Pertsonaia haren irudipena indartu egiten du, dudarik gabe, eguna egunkari baten erredakzio barruan emateak, etengabe mundu osoko berriak eta irudiak jasotzen. Nazka-nazka eginda nengoen teletipoen, telefotoen eta Interneten erraztasun beldurgarri eta tiraniko hartaz, eta nazka-nazka eginda iritzi-emaile eta intelektualen jardunaz ere, albisteen interpretazio eta iritzi-emailetza automatiko eta sistematikoaz. Nazka-nazka eginda nengoen hedabideek beren buruak munduaren laburpen orohartzaile gisa aurkezteko zuten handinahi ustelaz. Nazka-nazka eginda nengoen pertsona informatua izateaz. Nazka-nazka eginda nengoen errealitatea, baita gertukoena ere, geure ondo-ondokoa, geure-geurea, beti zeharka jasotzeaz, testu eta irudien bidez,

edo inoren ahozko lekukotasun zuzenaren bidez asko jota. Nazka-nazka eginda nengoen omenka bizitzeaz. Neure oinekin ibili, lurra zapaldu eta lur gainean oinatza utzi nahi nuen; neure begiekin ikusi, neure belarriekin entzun, neure eskuekin ukitu, neure sudurrarekin usaindu, neure mihiarekin dastatu; eta ondorioz, ahal izanez gero, horixe izango baitzen inondik ere zailena, ezinezkoa seguru askorik ordurako, neure burua-rekin pentsatu eta neure bihotzarekin sentitu.

Horregatik guztiagatik, lana eta etxea utzi eta mendira jotzeko ideia nuen aspaldidanik buruan bueltaka. Lau pareta artean egoteari utzi eta lurrari lotu, lurra lantzeko eta eguneroko lagun egiteko ez bazen ere –beranduegi bainuen nekazari egiteko–, lurra neure oinekin zapalduz ibiltzeko gutxienez. Norabide jakinik gabe, noraino helduko edo noiz itzuliko nintzen jakin gabe, bidez bide, joan eta joan, euskal txara, zelai, baso, mendi eta herrietan barrena, aspaldiko partez bizitzarekin aurrez aurre topo egiteko esperantzan. Albiste ahalik eta garrantzitsuenen inguruan bizitzeari utzi eta bestelako albiste ba-

tzuen bila jo nahi nuen, albiste askoz txikiago baina batez ere askoz neureagoen bila.

Lauaxetaren bisitaren ondorengo egunetan, argi ikusi nuen heldua zela tenorea. Erabakita zegoen. Urratsa ematea baino ez zen falta.

Lauaxetaren bisitatik artean astebeterik ez zela, gutun harrigarria jaso nuen erredakzioan, guztiz ustekabekoa eta ia-ia Lauaxetaren bisita bezain ezinezkoa: nire lehenengo maitalearen gutuna. Gutuna jasotze hutsa harrigarria zen, Margaren berririk ez nuela 23 urte zirelako eta ez nuelako uste gehiago sekula izango nuenik ere. Biziki harritu ninduen gutuna euskaraz idatzia zegoela ikusteak ere, ezagutu nuenean Margak ez baitzekien euskaraz. Marga Lanestosakoa zen baina, nik bezala, oporrak Zeanurin ematen zituen, gurasoekin. Gu izeko Ximonaren etxean bizi izaten ginen, eta Marga eta bere gurasoak aldameneko baserrian, Margaren aitonarenean. Etxe haietatik urrun antzean zegoen sagasti eder bat izan genuen ohiko topagune Margak eta biok. Han maiz galdetu zidan Margak titiak

ikusi nahi al nizkion, baita erakutsiko zizkidala agindu ere makina bat aldiz, baina sekula ez nuen Margaren titirik ikusterik izan.

Gutuna jasotzea eta gutuna euskaraz idatzia izatea oso kontu harrigarriak baziren ere, Margak gutunean esaten zidana zen harrigarriena, horixe izan zen barrua indarrik handienez inarrosi zidana:

> Kaixo, aspaldiko:
>
> Urteek argi erakusten dute, gero eta argiago, eta ez dago dudarik jada: lehen amodioa da bizitzaren gailurra.
>
> Oroitu nahi al duzu zurea, gurea, gu biona? Etorriko al zara ni ikustera?
>
> Zatoz gure sagastira. Hemen aurkituko nauzu. «Ikusi nahi al dizkidazu?», galdetu nahi dizut, orduan bezala. Ikusi nahi al dizkidazu, Julen?
>
> Ez zaitez, haatik, berehala eta zuzenean etorri.
>
> Jolas ezazu jolasa. Jar ezazu are arrisku larriagoan zure lanbidea. Ez zaitez protagonista izan. Bila ezazu liskarra. Baina ez ezazu inongo xederik izan. Bigarren asmoak saihets itzazu. Ez ezazu ezer ere isilean gorde. Izan zaitez bigun eta gogor aldi berean. Izan zaitez azeria, sar zaitez gauzetan eta arbuia ezazu garaipena. Ez ezazu behatu, ez aztertu; baina, espiritu-argita-

sunez, izan zaitez beti zeinuen arretarako prest. Utzi zeure buruari hunkitzen. Erakuts itzazu zure begiak, egin keinuak besteei sakoneneraino, ardura zaitez espazioaz eta begira ezazu bakoitza bere irudian. Ez ezazu sekula erabakirik hartu gogoa sutan izan ezean. Lasai egin ezazu porrot. Batez ere, hartu denbora eta itzulinguruak egin. Utzi eraman zaitzaten zuk hartu nahi ez zenituen bideei. Egin itzazu, nolabait esateko, oporrak. Entzun itzazu zuhaitz guztiak eta ur guztiak. Joan zaitez maite ez dituzun tokietara eta ez zaitez eguzkirik gabe geratu. Ahantz itzazu ahaideak, emaiezu indarra ezezagunei, makur zaitez bigarren mailako gauzen aurrean, ihes egin ezazu eta gorde zaitez gizakien hutsean, barre egiozu patuaren dramari, arbuia ezazu ezbeharra, suntsi ezazu zeure barrearekin gatazka. Mugi zaitez zeure kolorerantz, bidezkoan egon arte eta hostoen zurrumurrua gozoa egin arte. Pasa zaitez txaretatik, zelaietatik, soroetatik, basoetatik, mendietatik, herrietatik.

Tolosara jo ezazu aurren-aurrena, Mutitegi baserritik gora Urkizu auzora bidean Lizardiren omenez ezarria dagoen monumentuaren ondora, badakit-eta oso gustuko tokia duzula hura. Ez nauzu ni han aurkituko, baina beharbada aurkituko duzu nik utzitako arrastoren bat. Agian bai, akaso ez, neuk ere ez dakit.

Arraioa! Zer zen hura ordea! Neuk neure buruari azken egunetan emandako aginduak ematen ez zizkidan ba Margak!: oporrak hartu eta lanbidea arriskuan jartzeko, lasai porrot egiteko, denbora hartu eta itzulinguruak egiteko, zuhaitz eta ur guztiak entzuteko, bigarren mailako gauzen aurrean makurtzeko, neure kolorerantz mugitzeko, txaretatik, mendietatik, herrietatik pasatzeko... Neuk idatzia zirudien gutun hark. Banekien, ordea, ez nuela neuk idatzi. Izkiriaturik aurkitu nuela, Joseba Sarrionandiak bere liburu ezagun bateko poemak bezala.

Irailaren amaierako egun batean utzi nuen lana eta biharamun goizean aski goizik alde egin nuen etxetik, bakarrik eta oinez, Inazio Loiolakoak bezala, hari buruzko liburu baten izenburuak dioenez. Ez nekien zenbat denbora emango nuen etxetik kanpo, eta ez nion inori abisurik eman. Nori emanik ez nuen, izan ere. Aspaldi umezurtz geratutako haurride bakar bizi-alargu-

na nintzen, eta ez nuen adiskide minik. Etxe hartara sekula gehiago itzultzen ez banintzen, nire ausentziaz ohartzen lehena etxe-jabea izango zela pentsatu nuen, nire kontu korrontetik hilero zuzenean eta automatikoki sartzen zioten dirua akitutakoan. Kazetari sena guztiz galdu gabea nintzenez nonbait artean ere, argazki-makina bat sartu nuen lozakuaren eta gainerako trasteekin batera bizkar-zorroan. Inor ere ez da guztiz aratz eta garbia.

Lizardiren omenezko monumenturako bidea hartu nuen lehen egun hartan, Margaren gutun harrigarriari men eginez; baina ez, handik askoz gertuago egon arren, Tolosatik, Andoaindik abiatuta baizik, eta handik ere ez zuzenean, itzulinguru luze askoa eginda baizik. Gris zegoen zerua, eta tarteka euria ere egiten zuen, indar handirik gabe baina. Belkoain mendia igo nuen aurrena, eta Andazarrateko mendaterantz jo nuen gero handik. Ez ziren munduko parajerik ikusgarri eta miragarrienak, baina ezagunak eta maiteak nituen oso. «Eguraldia beti eta berez da ederra», nuen irakurria nonbait, ez nekien non, «eta gisa berean beti eta berez da ederra plane-

ta osoko paraje oro ere han inoiz ezer sentitu duen inor bizi deino.» Guztizko gogaide ninduen hori idatzi zuenak. Gustura sentitu nintzen, biziberrituta, zuhaitz guztiak eta ur guztiak entzuten, Margak bere gutunean agindurik zidan bezala. Hunkitu egin nintzen. Umetu. Negarra etorri zitzaidan begietara. Eta kantuak, ozen, ezpainetara. 462 urte lehenago, jaioterrira itzuli zenean, Inazio Loiolakoa pasatu omen zen inguru haiexetatik barrena, Iturriozko bentarako bidean. Nik une hartan nuena baino itxura serioagoa izango ahal zuen!

Zarateko Benta izandako etxe zahar abandonatutik Zaskarate landaturismo baserri dotore berriturako tartean zegoen hilarriaren parera heldu nintzelarik, haren aurrean geratu nintzen pixka batean. 1925ean hildako gizon baten izena zegoen idatzia harrian, iragandako urte luzeek ia-ia irakurtezin bihurtzeraino higatua. Bizkar-zorrotik argazki-makina atera eta, zergatik edo zertarako jakin gabe, argazkia egin nion.

Andazarratera heltzeko kilometro bat baino gutxiago falta zitzaidala, polizia-auto baten uluak entzun nituen. Nengoen tokitik ederki ikus-

ten zen errepidea. Auto zuri dotore bat pasatu zen ziztu bizian mendate gainetik, eta haren atzetik ertzain-auto ulukaria, goiko argi urdin birakariak piztuta. Hari buruz deus ez jakin arren, neure artean zorterik onena opatu nion Bernardo Atxagak *Obabakoak* liburu ospetsuan aipatzen dituen errebueltetan zehar ertzainengandik ihesi zihoan gidariari.

Mendateko tabernan haragi egosi pixka bat jan eta baxoerdi bat hartu nuen. Tabernan bertako ama-alabak eta bi baserritar baino ez zeuden. Autoen arteko jazarpenari buruz mintzatu ziren, baina inork ez zuen istilu hura zeren ondorio izan zitekeen aztarrenik ere.

– Biharko egunkaria begiratu beharko diagu, ea zeozer badakarren –esan zuen baserritarretako batek.

– Telebisioan ere esango ditek gaur, notiziarioan, kontu inportantea bada –ñabartu zuen besteak.

Andazarratetik Zelatunera igo eta handik, Ernio eta Mendikute mendiak gailurrak zapaldu gabe inguratu ondoren –luze egiten ari baitzitzaidan ibilaldia–, Urkizura jaitsi nintzen. Inazio Muji-

karen *Azukrea belazeetan* liburuko ipuinek paraje haietan zutela jatorria gogoratu nuen, belaze haiexek bide zirela Mujika gazteak zuriz jantzita begiekin ikusi eta bihotzean gorde zituenak. Urkizutik ez zen urrun Lizardiren omenezko monumentua, harriz osatutako bi metrotik gorako piramidea. Dama-Iturritik barrena egin nuen bidea, zurezko zutabeetan ezarritako Lizardiren poema puska ezagunak irakurriz bidean. Ergelkeria zentzugabea zen monumentuaren aurrean Margaren arrastorik aurki nezakeenik pentsatzea, berak gutunean hori esan arren, baina urduritzen ari nintzen gerturatu ahala.

Harrizko piramidea begien aurrean agertzearekin bat, gizon gazte bat ikusi nuen haren aurrean, eskuak gorputzaren aurrean lotuta, serio, tente eta itun, begirada beherantz, otoitz sakonean ariko balitz bezala... Arranopola! Orrazkera hura, betaurreko haiek... Argazki zahar aspaldi horitutako batetik aterea zirudien gizon hura... Lauaxeta zen barren! Edo, tira, zehatzago esateko, bere burua Lauaxeta zela esanez aurkeztu zidan iruzurti absurdu hura! Oraingoan gorbata

gabe zegoen, baina ez haatik zarpail, ezta hurrik eman ere.

Ahoa zabal-zabal eginda geratu nintzaion begira, ezer esateko gauza ez nintzela. Pixkanaka-pixkanaka harengana hurreratu nintzen hala ere.

– Hau poza, Lamarain jauna! –esan zidan ni ikusi eta ezagutzean–. Pozgarri jat zu ikustea, honen toki egoki eta esanguratsuan ganera, mendian, Lizardiren omenez iminitako harri sakratu honen ondoan...

Eskua eman zidan, tinko eta indartsu, eta, aurreko aldian bezala, irri egin zuen elkarrekin lotutako esku biei begira.

– Tira, garai batean Tolosan bizi nintzen eta toki hau oso maitea nuen... –esan nuen nik, artean ere neure onera guztiz etorri gabe–. Gainera, jakinekoa da –atera zitzaidan, solemnitate arrotz batez, eskuak askatu orduko– euskal bide guztiak Lizardirenganaino heltzen direla.

– Halan da, bai, ez dozu txarto esan hori, adiskidea. Neu be sarritan etorten naz hona, astean behin gitxienez, adiskide zahar maiteari bisita egiten. Luzaz berba egiten dogu alkarregaz.

– Ez da harritzekoa, ez –esan nuen, gizon hari Lauaxeta zela deblauki onartuz eta, horrenbesterekin, neure burua ere harrituta utziz–, zuek bion arteko solasa goizegi eten zuen heriotzak, artean ere elkarri esateko gauza asko zenituztela, artean ere etorkizunari itxaropen gazte miragarriz begiratzen zeniotela.

– Halantxe izan zan, bai, Lamarain jauna, zeuk ondo dinozun legez. Poesia, adiskidetasuna, aberria, itxaropena...

Sakon egin zuen hasperen.

Isil-isilik monumentuaren ondoan behera begira eman zuen Lauaxetak tarte bat, eta baita neuk ere haren ondoan.

– Tolosara jaisteko asmoa dozu? –galdetu zidan isilunearen ondoren.

– Ez dakit.... Tira, bai, horixe izango dut onena. Egia esan –arrazoitu nuen zeruetako hodei grisei begira–, eguraldi honek ez du kanpoan lo egiteko gogo handirik ematen. Zu ere Tolosara jaistekoa izango zara, noski.

– Bai, alkarregaz jaitsiko gara ardura ez bajatzu.

– Ondo da, ados, Lauaxeta jauna, ados.

– Goazen ba Ixaka Lopez Mendizabal, Aitzol eta Antonio Maria Labaienen jaioterrira.

– Goazen, bai, Joxemari Iturralde eta Karlos Linazasororen jaioterrira.

– Egokia da, bai, hori be gogoratzea. Eta, bide batez esanda, Arantxa Iturbe eta Luis Haranburu Altuna be ez doguz urrinekoak.

– Hara! Gaurko idazleak ere ezagutzen dituzu beraz! –komentatu nion harriduraz.

– Ezagutu beharra dago, jauna. Hori oso garrantzi handikoa da.

Abiatu aurretik, zahatoa eskaini nion eta hurrupa bana egin genuen. Ez nuen benetan sinesten gizon hura Lauaxeta zenik, baina atsegingarria zitzaidan Lauaxetaren antzeko gizon hark bereari eusten ziola ikustea. Nora eraman nintzakeen ez nekien bide batean sartua sentitzeak kilikatu egiten zidan barrena, ilusioa pizten zidan. Pozik nengoen. Aspaldidanik sentitu ez bezalako poz zabal bat nuen barrenean.

Abiatu aurretik, bazter batean utzirik zuen bizkar-zorroa soineratu eta galtza barrenak jaso zituen Lauaxetak. Nik neure galtzei erreparatu nien. Alfer-lana izango nuen nik galtza barrenak jasotzea, lokatzez beteak bainituen ordurako. Isilik jaitsi ginen hasieran, jada arrats-hautsek iluntzen hasia zuten bide estuan zehar, Lauaxeta aurretik eta ni haren ondoren. Mutitegi baserrira heldu ginenean, handik behera hormigoizko bidea zegoela-eta, Lauaxeta oinetakoak aldatzera geratu zen; zapata pare dotorea atera bizkar-zorrotik eta, haiek jantzita, bota lokaztuak sartu zituen zapatak ateratako lekuan. Ez zegoen dudarik: mende hasierako olerkari, kazetari eta komandante ospetsu eta eredugarriaren aldean guztiz narras eta zarpail helduko zen Tolosara mende amaierako kazetari ohi gris eta ezezaguna.

Bidea zabalagoa zela baliatuta, elkarren ondoan eta solasean ibiltzen hasi ginen. Jada ilunpean geunden arren, ez genuen galtzerik, aski baikenuen hormigoizko bidean behera jarraitzea Tolosako San Esteban auzoko espaloietara heltzeko.

– Kanpoan lo egiteko asmoa zenduan? –galdetu zidan Lauaxetak.

– Bai –erantzun nion–. Lozakua daukat bizkarzorroan, eta etxera itzultzeko batere asmorik ez puska batean.

– Eta egunkariko erredakziora?

– Utzi egin dut lana. Betiko seguru askorik. Itzuli nahi izanda ere, ez dut uste berriro hartuko nautenik. Zaharregia naiz ofizio horretarako. Informatika asko jakin behar da orain, albisteak ordenagailuen bidez jasotzen baitira gero eta gehiago. Nik galdua dut ilusioa, eta ilusiorik gabe ezinezkoa da ikastea eta lan egiteko molde berrietara egokitzea.

– Behar egin barik biziko zara?

– Oraingoz badut diru pixka bat. Gero ikusiko dugu. Uste dut ez dela kalterako izango neure burua estuturik ikustea. Horren premian nago beharbada. Ez dakit...

– Aurrekoan esan neutsun legez, nik gidari bat behar dot, gaurko Euskal Herria erakutsiko deustan lagun bat, eta uste dot zeu zarela egokiena. Badaukot dirua, eskatzen deustazuna ordainduko deutsut.

– Ez, eskerrik asko. Ez dut dirurik nahi. Neureari eutsi nahi diot. Ni Zeanuriraino noa, bidez bide eta mendiz mendi, baina ez biderik zuzenenetik, biderik ederrenetik baizik, horixe baita beti, Joxean Artzek ederki dioen moduan, biderik laburrena. Eta iparrorratzik gabe. Abantaila handia du iparrorratzik gabe... –eskuak burura eraman eta ibiltzeari utzi nion bat-batean–. Ostia! Ahaztu egin zait!

Lauaxetak harriturik begiratu zidan. Ustekabeko birao gordin hura aditzeak ez zion onik egin barrenean. Margaren gutunaz eta haren amaierako oharraz oroitu berria nintzen. Harrizko piramidearen aurrean izandako ezusteko topaketak eragindako asalduraren ondorioz, ahaztua nuen Margak inguru hartan akaso bere arrasto bat aurkituko nuela esan zidala gutunean, eta halakorik ba ote zen miatu gabe utzia nuen parajea.

Tarte batez isilik geratu nintzen, pentsaketan, Lauaxetarekin nuen solasaldia etenda. Bidearen puska eder bat egina genuen ordurako eta ez nuen atzera gora igotzeko gogorik. Margak lasai porrot egiteko esan zidala ekarri nuen gogora gainera. Ez nuen, beraz, larritu beharrik.

– Barkatu, Estepan. Seko ahaztua nuen zerbait etorri zait burura bat-batean eta...

– Ondo da, Julen. Zeozer garrantzitsua zan ahaztu dozun hori?

– Ez, egia esan, ez. Larritu egin naiz hasieran baina ez du garrantzirik. Agian hobe izango da ahaztu zaidana ahaztu izana ere. Ez dakit.

– Iparrorratz barik bidaiatzeari buruzko zeozer esaten ari zinan –ekarri zidan gogora Lauaxetak, lehengo solasaldia berreskuratu nahian.

– Iparrorratzik gabe? A, bai! Abantaila handia duela iparrorratzik gabe bidaiatzeak, ekialdearekin, mendebaldearekin, hegoaldearekin eta haien arteko konbinazio guztiekin topo egiteko aukerak zabaltzen dituelako. Ez dakit nork idatzia den. Akaso inork ere ez.

– Baina jomuga bat badozu nolanahi be, arestian esan deustazunez: Zeanuri, ez da halan?

– Bai, hala uste dut behintzat. Lehen nire izeko bat bizi zen han, baina etxea saldu eta Durangora aldatu zen. Badira urte batzuk hil zela.

– Zergaitik hortaz Zeanurira halan be?

– Sagasti eder bat oroitzen dut, aspaldiko partez berriro ikusi nahiko nukeena. Balio bere-

zia du niretzat. Badakizu, aspaldiko oroitzapenak... Aipatu zenuen ba zuk behin Gustiz Ederrako zelaia: oroituko duzu, ezta?

– Oroituko ez dot ba! –esan zuen Lauaxetak, irriz, berak aspaldi idatzitako ipuina ezagutzen nuelako sentitzen zuen poza agerian zuela–. Gorbeiapean egoan ha be, Zeanuri legez. –Konplizitate keinu bihurtu zuen irria–: Neska bat ezagutu zenduan zuk Zeanuriko dalako sagasti horretan, Landorrek Gustiz Ederrako zelaian Igone ezagutu zuan legez, ez da halan?

– Horixe bera, oso ondo, bete-betean asmatu duzu, Lauaxeta jauna –berretsi nion, xehetasun gehiegizkoetan sartu gabe, Margak ni tentatze hutsarekin gozatzen zuela azaldu gabe, neuk ere ez bainuen alderdi horretaz oroitzeko gogo handirik–. Aspaldi galdu nuen neska haren arrastoa baina orain hara itzuli nahi dut, Gorbeiapeko sagastira, Marga eta bion Gustiz Ederrara. Dena dela, ez dakit nondik zehar helduko naizen hara, eta ez dakit ziurtasun osoz nire helmuga Zeanuriko sagasti hori izango ote den ere benetan. Ez da erraza azaltzen... Kontua ibiltzea da, lurra zapaltzea, zauden tokian egotea, baina benetan

egotea, zuzen-zuzenean eta ez modu abstraktuan... Ez, ezin dut ondo azaldu.

– Oinez beti?

– Bai, hala uste dut, bai. Oinez beti. Zuzenago da, zintzoago, benetakoago, biziago...

– Eta mendian egingo dozu lo?

– Ez dakit. Batzuetan bai, beste batzuetan ez.

– Gustatuko litzakit zeugaz joatea. Uste dot asko ikasiko neukeela.

Horrexen zain nengoen. Horixe zen neuk nahi nuena, nahiz eta proposamena egiten ausartu ez.

– Ondo da. Ados, Estepan, ados. Nahi baduzu, biok egingo dugu bidea elkarrekin. Ez dago arazorik.

Tolosako jatetxe batean afaldu genuen Lauaxetak eta biok. Ez genuen ezer apartekorik jan, zopa pixka bat eta bina arrautza patata frijitu eta hirugiharrearekin, baina ederki hartu zuten guztia gure gorputz nekatuek. Nireak bai behintzat, egun hartako ibilaldia jatunik eskasenaren gosea ere pizteko modukoa izana baitzen.

Pertsonen artean gertutasun eroso bat sortzeko lagungarri onak izaten dira maiz askotan gustuko otorduak, eta Tolosako afari hura halakoxea izan zen gu biontzat. Bere piztueraren historia kontatu zidan Lauaxetak, patxada ederrean, xehetasunetan sartzeko ere nahikoa beta hartuta. Nik sinesten nuelakoa egiten nuen. Ez zitzaidan ardura Lauaxetak kontatutako abentura ezinezko hura benetan gertatutakoa edo zoro batek asmatutakoa izatea. Gustatu egiten zitzaidan, liluratu egiten ninduen, eta hori gauza handia zen, hori zen benetan ardura zuena. Zer gehiago eska niezaiokeen lagun bati, adiskide bati? Zer gehiago eska niezaiokeen artista bati, idazle bati, poeta bati? Aspaldian inork eman ez zidana ematen ari zitzaidan Lauaxeta.

Mahaitik altxatzekotan ginela, pentsio batean hartua zuen gelan lo egitera gonbidatu ninduen.

– Gela eskatu nebanean esan eustaen bakarkakorik ez ebela –azaldu zidan–, eta ohe biko gela baten nago.

– Ondo, ondo. Ni Tolosan bizi izana naiz eta lagun asko ditut hemen, baina ez nioke inori en-

barazurik egin nahi. Beraz, zuri ondo iruditzen bazaizu...

– Lasai, gizona. Ohore bat izango da niretzat.

Arropak eta betaurrekoak erantzi, pijama jantzi, ohean sartu eta isilean otoitz egin zuen Lauaxetak pentsioko gelan, argia itzali aurretik.

– Zuk ez dozu otoitzik egiten loak hartu aurretik? –galdetu zidan, errezoak amaitu eta argia itzali ondoren.

– Ni ez naiz fededuna.

– Baneban, bai, susmoa. Egia esan, zuen egunkaria irakurri besterik ez dago guztiok fedegabeak zariela jabetzeko. Euskarazko egunkaria egiten nortzuk eta ateoak, alajainkoa! Nola iritsi zarie euskaldunak horretaraino?

– Ez dakit, Estepan. Nazkatu egingo ginen denok hainbeste errezo eta sotanarekin, hainbeste arau eta debekurekin. Askatasuna behar genuen, askatasuna. Ez al da ba zerorrek idatzia «Dana emon biar yako / matte dan azkatasunari» famatu hura?

– Ez nintzan ari zuk dinozun askatasunaz. Ez nintzan lapurreta egiteko, hilteko eta nolanahiko maitakeria lohietan narrasteko askatasunaz ari.

Herri zintzo baten askatasun deunaz ari nintzan. Zuk badakizu hori, ez eizuz kontuak nahas.

– Azken 60 urteak hilda eman dituzu. Izan al duzu Jaungoikoaren berririk? Ikusi al duzu? Mintzatu al zara berarekin?

– Ez, baina ez dot horren preminarik Harengan fedea izaten jarraiteko. Jaungoikoak eroan ninduan hemetik eta Jaungoikoak ekarri nau ostera hona. Nork bestela? Zuen askatasun purtzil ganorabako horrek? Ez. Jaungoikoaren eginak baino ezin dira izan horreek.

– Litekeena da, Estepan, litekeena da, ez haserretu. Agian arrazoia duzu. Agian bada Jaungoiko Ahaltsu bat, dena egin eta desegiten duena, gure poz eta oinaze guztien sorburu dena. Nahiago nuke neu ere hori guztia sinesteko gai izango banintz, nahiago nuke kontsolamendu hori izango banu nire gaurik beltzenetan. Baina...

– Unamuno emoten dozu oraintxe –esan zidan burlaizez.

– Unamunorena askorena da. Kristok ere izan zituen zalantzak, kristoren zalantzak gainera.

– Alferrik da zugaz jardutea. Hara, nekatuta nago bai, eta bihar be izango dogu berba egiteko abagunea. Ondo lo egin, Julen. Bihar arte.

– Bai, Estepan. Gabon pasa.

Aurki hartu zuen loak olerkari eta kazetaria, zurrunga hots arin batek salatu zidanez. Ni, berriz, loak ez baina ezinegon urduri batek hartu ninduen. Pozik sentitzen nintzen, abentura kilikagarri baten aurrean ilusionatuta, baina banuen bakea eragozten zidan zalantza bat ere. Nora jo behar nuen hurrengo goizean? Lizardiren omenezko monumentuaren ondora itzuli behar nuen, Margaren balizko arrastoaren bila? Nondik barrena egin behar nuen bidaiaren jomuga izendaturik nuen sagastirainoko bidea? Denbora hartu eta itzulinguruak egiteko esaten zidan Margak gutunean, inongo xederik ez izateko. Baina ba ote zegoen nork bere burua horrela abandonatzerik, inongo xederik gabeko itzulinguruak eginez bidaiatzerik, erabateko noraezean ibiltzerik? Ba ote zegoen, azken batean, inongo xederik gabe deus ere egiterik? Ezta nahita ere. Edo, hobeto esanda, nahita ez behintzat.

On Kixoteren erara abiatzea gustatuko litzaidakeela pentsatu nuen, jomuga zehatzik gabe, ongintza xede bakar, bidez bide, neure indar eta borondatez okerrak zuzentzeko eta behartsuei laguntzeko prest. «Sancho Panza bikain askoa etorri zaidak ondora, arranopola!», esan nion neure buruari burlaizez, ondoan zurrungaka nuen laguna gogoan. «Bilatu beharko diagu honentzako asto egokia!»

Gorbeiapeko sagastian altxor bat nuela zain otu zitzaidan geroxeago, eta altxor hura eskuratzeko Margak bidean utzitako mapak bilatu eta interpretatu beharko nituela. Pausoz pauso, urratsez urrats egin beharko nuen bidaia hura, etapaz etapa, geltokiz geltoki, eta izen ederrak izango zituzten geltokiek, Urolako trenbide zaharrekoek zituztenak bezalakoak esaterako: Zumarraga, Villarreal de Urrechua, Aguinaga, Aizpurucho, Olozaga, Azcoitia, Loyola, Azpeitia, Lasao, Cestona Balneario, Cestona Villa, Iraeta, Arrona, Zumaya Empalme.

Aktore nagusi Burt Lancaster zuen film batez ere oroitu nintzen gau hartako insomnioan. Luzaz kanpoan izan ondoren, Burt Lancaster

etxera itzuli zen film hartan, baina zuzenean etxeratu barik oinez eta igerian egin zuen bidea, adiskide baten etxetik beste batenera pasatuz eta adiskide guztien piszinak igerian zeharkatuz, harik eta piszinarik piszina etxera heldu arte.

Bernardo Atxagaren *Etiopia* inguratzen zuten hareazko bederatzi zirkuluez ere oroitu nintzen.

Ondo aztertuta, ordea, nik ez nuen funtsezko heldulekurik, ez nuen zeri eutsirik nire bidaiari ekiteko. Ez nintzen On Kixote bezain ausart, bipil eta indartsu sentitzen, ez nintzen inori ezertan ganorazko laguntzarik emateko gauza; altxorraren maparik ez nuen, eta ez nekien zein geltoki izango nituen bidean zain; ez nuen piszinadun adiskiderik, ezta piszinarik gabe nituen urriak bisitatzeko gogo handirik ere; nire ibilaldiak ez zuen ez Etiopia lurralderik eta ez *Etiopia* poema libururik hartuko bere baitan, inongo etiopiarik ez... Margaren gutun harrigarri hura eta mendian bidez bide ibiltzeko neure gogo ganoragabea baino ez nituen. Eta bidelagun bat, gerra aurreko olerkari eta kazetari berpiztua, aldameneko ohean lo.

Ez nekien biharamunean nora jo behar nuen ere.

Artegatasun itzarri horren ezinegonean kulunkan nengoela, Lauaxeta aldameneko ohetik jaikitzen sentitu nuen bat-batean. Ohe gainera igota, zutik, hizketan hasi zen handik, ozen eta eskuineko besoa indarrez astinduz, mitin bat ematen ariko balitz bezala:

– Ez da alkarrengandik bananduta ibilteko garaia. Batasuna behar dogu, arrebok, anaiok! Batasuna! Egia da, bai: ez gara alor guztietan gogaide abertzale guztiok. Egia da, bai: gaurko abertzaleen artean asko dira Josuren fedea alde bat itxirik daukienak. Egia da, bai: Euskal Herriaren alde borroka egiteko moduen inguruan be ez gatoz bat abertzale guztiok, batzuei biderik eraginkorrena iruditen jakena beste batzuen iritziz kalterako baino ez da-ta. Baina denon arteko batasuna bilatu beharra dogu nahitaez, desberdintasun eta ezinikusi guztien ganetik, horrek geure barrenetan sor dagikegun amorrazioa aberriaren aldeko gure maitasunean urturik eta ezerezturik,

hori egitea aberriaren aldeko urrats garrantzitsua izango dala jakinaren ganean. Zatituta ez dogu inoz ezer aurreratuko. Zatituta ez dogu inoz ezer irabaziko. Zatiketak antzu bihurtzen dauz aberriaren aldeko borroka mota guztiak, baita maitasunik handienez eta sakrifiziorik gogorrenez egiten diranak be. Batasunak egin eban, hain zuzen be, eraginkor gudarion suhartasuna guk bizi izan genduan gudan. Telesforo Monzon euskaldun handiak, 1936ko Euzko Jaurlaritzako Gobernazio sailburu izan zanak, ederto esan eban legez, Maltzagaraino alkartuta joan behar dogu guztiok, bidean eroritakoak otoitzaren laguntzaz lurperatuz, ezinduei lagunduz, alkarri animoak emanez, alkar maitez eta alkarri euskaraz berba eginez. Horixe da nik zuek ataka gaizto honetan ikusirik esaten deutsuedana, horixe dozue nire mezua, apala eta borondate onekoa, baina tinko eta sendoa, geure ikurrin doneari eusten deutson eskuak behar dauen lakoa...

Gelako argia piztu eta, ohetik irten gabe, Lauaxetari begira geratu nintzen hasieran. Txundituta nengoen. Entzuna nuen Lauaxeta mitinla-

ri suhar eta bikaina zela, baina ez nuen askorik uste hori hain gertutik baieztatzeko aukera izan behar nuenik.

Aldameneko geletako batetik pareta jotzen hasi ziren eta Lauaxeta esnatu egin behar izan nuen, iskanbilarik izan ez genezan.

– Ixo, Estepan, ixo! –esan nion–. Tolosa osoa esnatu behar duzu...

Orduantxe zegoen hura, ordea, inoizko sutsuen.

–... Kristoren legea haustea bakarrik ez, etsaiari indarra emotea be bada bestela jokatzea. Horixe baino ez dau gura etsaiak, geure etxeko neba-arrebak haserre, muturtuta eta alkarri mokoka ikusi...

Ohe gainera igo eta, Lauaxeta inguratuz, bildu egin nizkion besoak soinaren inguruan.

– Lasai, Estepan, amaitu da, amaitu da...

–... Gure ezinikusiak dira etsaiaren pozik... pozik... pozik handiena... Puf! Zer da hau? Non nago? –Larriturik, gero eta larriago, gero eta izutuago–. Non nago? Ez! Ez! Barriro ez! Barriro ez!...

– Lasai, Estepan, lasai... Ez da ezer gertatzen. Pasatu da... Tolosan zaude, nirekin, Julen Lamarainekin, *Egunkaria*-ko kazetari izandakoa... 1997an gaude, badakizu... Berpiztuta zaude...

– Bai, bai, badakit, eskerrik asko, Julen, eskerrik asko...

Poliki-poliki, bere onera etorri zen. Lauaxetaren ohe gainetik jaitsi eta nor bere ohean sartu ginen.

– Sonanbulua naz –azaldu zidan–. Ez zenkian?

– Irakurria nuen, bai, baina baita ahaztua ere. Ez nuen horrelakorik espero, egia esan.

– Irakurria dozu beraz. Jakina, Jokin Zaitegik eta Plazido Mujikak esana eta idatzia itxi eben. Premina handi barik, egia esan. Ez dakit horrek zer interes izan daikeen inorentzat, hara!

– Tira, Estepan, ez da inor lotsatzekoa...

– Esaidazu gauza bat, Julen... Erdaraz ala euskaraz egin dot berba ametsetan?

– Euskaraz.

– Benetan?

– Bai, bai, euskaraz mintzatu zara.

– Pozgarria jat hori entzutea –irri egin zuen, poz hori agerian utziz–. Lehen, gaztetan, tira, ba-

dakizu, mende hasieran, gaztelaniaz berba egiten neban sarritan ametsetan. Jakina, mitinak be halan izaten ziran gehientsuenak. Baina orain askoz gehiago entzuten dira horrelangoak euskaraz, eta pozgarria da neuk be orain euskarazko berbaldiak egin ahal izatea... Tira, ametsetan baino ez bada be.

Aurki entzun ziren berriro gela hartan Lauaxetaren zurrunga leunak, argia itzali bezain laster ia-ia. Nik loak ezin harturik jarraitu nuen artean ere luzaz, biharamunetik aurrera eman beharreko pausoez gogoetan. Nora jo? Margaren gutuneko beste hitz batzuk ekarri nituen gogora. «Utzi eraman zaitzaten zuk hartu nahi ez zenituen bideei», zioen Margaren gutunak. Neure baitako oinaze zahar batekin lotutako bihotz-borroka bat iradoki zidaten hitz haiek. Hitz haiei kasu egitera, Tolosatik gertu zegoen herri batera joan behar nuen. Neure buruari kontzienteki aitortu gabe, Lizartzara joateko ideia buruan bueltaka aspaldidanik nuela jabetu nintzen batbatean. Ausartuko al nintzen, ordea, hartu nahi ez nuen bide hari eraman nintzan uzten?

Goizean, leihotik begiratu eta ateri zegoela ikusi ondoren, mendirako prest irten ginen pentsiotik, bizkar-zorro bana soinean. Lauaxetak azaldu zidanez, zorro hartan ekarriak zituen Tolosaldean egun batzuk pasatzeko behar zituen guztiak, eta eguartean lozaku bat erosiz gero haiexek aski izango zituen nirekin batera mendira abiatzeko. Gainerako arropak eta trasteak Bilboko pentsio batean zeuzkan gordeak, eta ez omen ziren asko guztiak ere. Azken batean, bi hilabete pasatxo baino ez ziren berpiztu zenetik, eta ez zuen traste asko inguratzeko betarik izan.

Bezperan bezala, alde handia zegoen gu bion janzkeren artean. Nahiz eta mendirako jantzita egon, Lauaxetak txukun-txukun zituen arropa guztiak, lokatz arrastorik txikiena ere gabe, bizarra ondo egina eta ileak zuzentasun miragarriz orraztuak. Nik, aldiz, ile luze samarra nuen, aspaldian orraztu gabe eta nahasia, egun batzuetako bizar latza agerian eta bezperako lokatzak arropetan lehor itsatsiak. Ez nuen asmorik nire bidaian zehar horretaz kezkatzeko. Horretaz ere ez.

Gure ibilkeran ere bazen alderik. Tente-tente ibiltzen zen beti Lauaxeta, urrats luzeak eginez; soina aurrerantz makurtuta, aldiz, ni.

– Tira, adiskide, esango deustazu norantz joko dogun gaur? –galdetu zidan Lauaxetak–. Zein gailur dago gure oin zolien zain?

– Egia esanda, oraindik ere ez dut erabaki. Ideia bat badut, baina ez naiz oso ziur...

– Badakit bidea aukeratzea zuri jagotzula. Baina nik proposamen bat egin gura deutsut, ardura ez bajatzu...

– Tira, entzuteko prest nago. Esan dizut, ez dut oraindik erabakia hartu.

– Zugaz alkartu baino lehen, gaur Orexara joatekotan nintzan. Ez dago hemetik oso urrin.

– Orexara? –harritu nintzen, Orexa, hain zuzen ere, Lizartzatik gertu zegoela oharturik.

– Bai. Han Orixeren omenezko monolitoa dago eta berpiztu nintzanetik ez naz oraindino ha ikusten joan.

– Hara, ez dago gaizki pentsatua. Atzo Lizardi, gaur Orixe...

– Eta Lauaxeta beti...

– Gerra aurreko hiru olerkari handiak! Pizkundea maite zenuten gerra aurrean, eta oraindik ere bai agi danez. Zuri begira hala esan liteke behintzat.

– Ezin zara kexatu. Horri esker, *Egunkaria*-n behar egiten zenduanean baino jende interesgarriagoagaz harremanetan zabilz egunotan.

– Ezin dizut hori ukatu.

– Utzidazu esaten, nolanahi be, ez deutsodala bidezkoa irizten hiru izan ginala esateari. Loramendi be aitatzen dau Gabriel Arestik, gugaz batera, *Euskal harria*-n, eta olerkari gehiago be baziran gure garaian: Jautarkol, Utarsus, Tapia-Perurena, Jakakortajarena, Satarka, Mañariko...

– Ondo dago apala izatea, Estepan, baina historiak ez du urrikirik. Zuen hiruron izenak gainerakoen gainetik daude.

Hiruzpalau egunkari erosi zituen Lauaxetak kiosko batean. Hasieran ez nion utzi nahi izan, nik bidaia egunkaririk batere gabe egitea bainuen erabakia. Baina, eztabaida txiki baten ondoren, amore eman behar izan nuen, gizon harentzat egunkariak ezinbestekoak zirela jabetuta. Eta, egia esanda, neuri ere tentagarria egiten

zitzaidan egunkariak, mundu zabalari buruzko txosten txiki eta eroso haiek, eskura izatea.

Egunkaria-ko tolosarrek gomendatu ohi duten kafetxe batean sartu ginen gero, gosaltzera. Esana nion Lauaxetari *Egunkaria*-ko zuzendaria, Martxelo Otamendi, ez zela handik urruti bizi, eta akaso hantxe aurkituko genuela. Kezkagarria ere izan zitekeen topaketa hori, jakina: Martxelok bazekien nor zen Lauaxeta, eta litekeena zen harentzat ere ikusezina, entzunezina eta ukiezina izatea, Jean Haritxelhar, Jon Kortazar, Edorta Jimenez, Koldo Izagirre eta abarrentzat bezalaxe. Baina aproba egiteko tentazioa ere kilikagarria egiten zitzaigun bioi, Lauaxetari bereziki, eta erakusleihoaren ondoan geratu ginen badaezpada ere, beiratik zehar kanpora begiratu ahal izateko. Inondik ere ahal balitz, *Egunkaria*-ko zuzendariarekin mintzatu ahal izatea gauza handia izango zen, dudarik gabe, Lauaxeta berpiztuarentzat.

Gosaria amaitu, ordaindu eta kalera irtetear ginela ikusi nuen Martxelo kafetxe aurreko kalean. Erakusleihoko beiratik zehar ikusten genuen gizon hura nor zen adierazi nionean, niri

aurrea harturik, kafetxetik irten eta harengana zuzendu zen berehala Lauaxeta, bostekoa eman eta bere burua aurkezteko prest, baina Martxelok ez zion jaramonik egin. Lauaxetak Martxeloren gorputza nola zeharkatzen zuen ikusi ahal izan nuen neure begiekin. Orduan neuk egin nion diosal Martxelori, kafetxeko atetik.

– Ikusten diat ez duala denbora alferrik galtzen *Egunkaria* utzi duanetik –komentatu zidan, nire diosalari erantzun eta nire parera heldurik, egun batzuk lehenago arte nire zuzendari izandakoak–. Ez haiz leku txarrera etorri gosaltzera, alajaina!

– Tira, zeozer ikasi diagu *Egunkaria*-n hainbeste urtez tolosar artean lan eginda –asmatu nuen esaten, urduri artean ere ikusi berri nuenak sortutako harriduraren ondorioz.

– Ez dik kalterik egingo beste kafe bat hartzeak, *Egunkaria*-ko azken berriak entzunez. Zer deritzok? Neuk gonbidatuko haut.

Lauaxeta Martxeloren ondoan zegoen. Ezkerraldetik eskuinaldera zeharkatu zuen haren gorputza, eskuinaldetik ezkerraldera ondoren, eta

niri begira geratu zen, etsipenezko keinua eginez.

– Ez, ez, eskerrik asko... Estimatua zagok. Mendira joateko asmoa diat eta badiat abiatzeko ordua.

– Ondo, ondo, nahi duan bezala. Goraintziak behiei, ardiei eta ahuntzei, neuk ez ditiat aspaldi ikusi-eta.

– Bai, hire partetik. Neure kontu.

Espaloian aurrera abiatu eta tarte batean ez genion badaezpada ere ezer esan elkarri Lauaxetak eta biok, Martxelok gure aldera begiratuz gero bakarrik hizketan ari nintzenik pentsa ez zezan.

– Hika berba egiten deutsozu *Egunkaria*-ko zuzendariari? –galdetu zidan, aldameneko kalexka batean sartu ginenean, Lauaxetak.

– Zergatik ez ba? Hala da ohitura gure artean. Bai Aizarnazabalen eta bai Tolosan oso normala da hori. Beste toki askotako euskaldunen artean askoz bakanagoak dira hikako jardunak, baina inguru hauetan ez da harritzekoa.

– Baina *Egunkaria*-ko zuzendari jauna da. Errespetua zor jako.

– Eta zer nahi duzu? Berorika egitea? Amaitu ziren kontu horiek, gizona! Apezei ere hika mintzatzen gatzaizkie gaur egun!

– Alajainkoa!... Aizu, eta gorbata barik joaten da beharrera be?

– Gehienetan bai. Konpromiso berezi bat ez badu behintzat. Egun berezietarako baditu gorbatak.

– Nik uste dot kontu horreek ardura handiagoz zaindu beharko zeunkiezala. Euskaldunak besteen mailan behar dau, gitxienez. Duin eta dotore.

– Tira, hori berari esaiozu. Ni jada ez naiz *Egunkaria*-koa. Ni jada ez naiz inor.

Balaztada lehor baten soinuak moztu zigun, bat-batean, solasaldia. Polizia-auto baten uluak entzun ziren ondoren. Auto gorri bat ikusi genuen, ziztu bizian, guregana etortzen. Aurrera tinko begira zihoan txoferra, neska gazte bat. Aldameneko bebarru batean sartu ginen, izututa. Bebarrutik irten gabe, auto gorriari segika zihoakion ertzain-auto ulukaria ikusi genuen gero, ziztu bizian hura ere. Bebarrutik irtetear ginela,

tiro hots batzuk entzun ziren eta izuak barrura bultzatu gintuen berriro.

Pixka bat geroxeago ausartu ginen bebarrutik irteten, autoen zarata entzuteari utzi genionean. Urrutira alde eginak ziren autoak orduraako. Ez zen haien arrastorik ageri.

Bide Berriak

Kirol denda batean Lauaxetarentzako lozaku eder bat erosi ondoren, Tolosa utzi eta Lizartzarantz abiatu ginen oinez. Margaren gutunak, neure gogoarekin guztizko harmonian, «txaretatik, zelaietatik, soroetatik, basoetatik, mendietatik, herrietatik» pasatzeko agindurik zidanez, zuzenean joan beharrean Altzo herritik eta Otsabio menditik barrena joan ginen Lauaxeta eta biok Lizartzarantz, bidea luzatzeko beldurrik gabe. Bide hartatik jota ere, bagenuen gauerako Orexara heltzerik, aise gainera, baina ni bidea patxadaz egitearen alde nengoen, eta gaua Lizartzan pasatuko genuela esan nion Lauaxetari.

Amaroz auzotik Ollaun muinora igo ginen lehenik. Heldu ginenean, solaserako aitzakia izan genituen gailurreko bi antenak.

– Zure aurreko bizian ez zen gaur adina antena izango Euskal Herriko mendietan –komentatu nion Lauaxetari–. Ezta gaur adina pinurik ere, noski, lehen pagoa, haritza, lizarra eta abarra zen toki askotan pinua baita nagusi gaur. Zuen

olerkietako izadi liluragarria etengabe hondatzen ari dira.

– Ez dinozu guzurrik, baina badau oraindino nora jorik bazter ederrez gozatu gura dauenak. Eta antenak, pinuak eta enparauak guztion mesederako izango dira azken baten. Aurrerakada handia egin dau baserriak. Lehen idiek egiten ebena traktoreen beharra dozu orain. Eta ez dago autoa iristen ez dan baserririk. Hori gauza handia da.

– Dena dela, ez ezazula pentsa erraza denik egungo baserritarraren bizimodua. Nahikoa lan badute globalizazioak sortutako arazoei aurre egiten. Munduko edozein bazterretatik heltzen dira era guztietako produktuak merke-merke, eta zaila da konkurrentzia horri aurre egitea. Esate baterako, esnearen prezioarena arazo larria da. Esneki-enpresek gero eta gutxiago ordaintzen dute litroko eta baserritar askok esnea ekoizteari utzi beste erremediorik ez du.

– Gerra aurrekoak baino askoz hobeto bizi dira halan be.

– Bai, itxura batean bai. Hori ezin dizut ukatu. Baina gutxiago dira, gero eta gutxiago, oso zaila

baitute baserriari eustea. Kalera bultzatzen dituzte. Zuzen-zuzenean baserria botatzen ez badiete behintzat, errepideren bat edo beste edozer gauza egiteko.

Baserrietako zakurrei buruz ere aritu ginen, baserri baten parean pasatzean txiki petral bat zaunka hasi zitzaigunean. José Saramagori irakurria nion esaldia maiz nuen neuk neure ibilaldietan berretsia: «Zakurrek ez diete jada autoei zaunka egiten. Orain oinez doazenei egiten diete zaunka.»

– Halan da, bai –berretsi zuen Lauaxetak ere–. Oraingoak autoak ikusten guztiz ohituta dagoz, lehengoak ez legez.

Berez ez genuen Altzoko herrigune nagusiraino joan beharrik baina, denbora nahikoa genuenez, hango taberna batean lukainka mutur bana jan eta baxoerdi bana hartzea erabaki genuen. Irratia zuten jarria tabernan, eta halako batean PiLT taldearen «Hil da Jainkoa» kantua hasi ziren ematen. Oso modan zegoen garai hartan kantu hura, nonahi entzuten zen, baina banuen susmoa Lauaxetak egindako euskal kulturako ikastaro trinkoetan rock musikak oso leku apala izan-

go zuela eta, horrenbestez, kantu hura ez zuela ezagutuko.

– Entzuten al duzu zer dioen kantuak? –galdetu nion Lauaxetari.

Kantuari arreta jarri eta hasperen sakon bat egin zuen.

– Mungiarrak dituzu gazte hauek, Estepan. Zu hazi zinen herrikoak. Zuk ezagututako herritarren bilobak.

– Mungiarrak? –burua esku artean ezkutaturik, etsipenez mintzo zen–. Zoratuta dagoz! Zoratuta zagoze danok! Euskal Herria hondoratzen ari zarie! Zuri ondo irudituko jatzu ganera, ez da halan?

– Tira, aitortu beharko duzu kantu indartsua dela. Ez naiz rockzale amorratua baina gustatzen zait, bai.

– Hori ez da indarra! Hori harrokeria hutsala da!

Denbora soberan genuenez, Lauaxetarekin pilota partida bat jokatzea bururatu zitzaidan. Altzon hamar koadroko frontoi estali bikaina zegoen, Santa Barbarako ermitaren ondoan, eta hara joan ginen, beraz, tabernan utzi ziguten pilota

eskuan hartuta. Ez nuen dudarik egiten irabazi egingo niola, baina harritu egin ninduen Lauaxetaren sasoiak eta trebetasunak. 14 tanto baino ezin egin izan nizkion nik berak niri 22 egiteko behar izan zuen tartean.

Ni baino aurkari gaiztoagorik izan zuen, ordea, Lauaxetak Altzoko frontoian: bertako mutiko kankailu bat, ia-ia bi metro luze zena. Frontoitik gertuko baratze batean andre zahar bati laguntzen ari zen mutikoa gu frontoira joan ginenean, baina, pilotazale amorratua izaki nonbait, berehala inguratu zen guregana. Ikusle eta epaile izan genuen gure arteko partidan, baita bataren nahiz bestearen botilero ere, oso herabe eta hitz gutxikoa izanagatik ere aholkuak eman baitzizkigun, eta amaitu genuenean Lauaxetarekin jokatu nahi izan zuen. Berehala ikusi zen ez zegoela kolorerik, askoz gehiago zela mutikoa Lauaxeta baino, pilotari ematen zizkion zartada ikusgarriekin Lauaxeta batetik bestera ezinean lasterka egitera behartzen baitzuen. Horregatik, Lauaxetaren atzelari lanetara sartu nintzen frontoira, baina alferrik izan zen, 22 eta 8 irabazi baitzigun hala ere mutiko isilak.

– A zer morroskoa! –esan nion Lauaxetari, mutilari adio esan eta pilota itzultzera tabernara gindoazela–. Nik uste dut Altzoko Aundiyaren ondorengoa dela gazte hori. Ez al zaizu iruditzen?

– Ez dakit, baina pilotari ona da behintzat –erantzun zidan Lauaxetak–. Mutil jatorra. Poza emoten dau oraindino be horrelango gazte euskaldunak badirala jakiteak.

– Galdetu behar genion ea zure herriko talde horren musika gustatzen al zaion.

– Bai zera! Ezta pentsatu be.

– Ni ez nago hain ziur, Estepan –esan nion burlaizez–. Gauzak nahasiak daude euskal gazterian, oso nahasiak, eta ez dago jakiterik...

Altzotik gora, borda erori baten ondoan egin genuen arnasa berritzeko geldialdi bat, Aralarko mendiak bistan genituela. Bezperan baino eguraldi hobea genuen. Mardul, heze eta bete zegoen basoa, udazkenaren kolore guztiak oparo eskaintzen, begien aurrean genuen ikusmira ondoondoan genuen harrobi handiak kraskatzen bazuen ere.

Lauaxetak gure bidaiaren nondik-norakoez galdetu zidan, eta nik esan nion Orexatik aurrera ez nekiela nora joko genuen, ez nekiela nondik zehar eta zenbat denboraren buruan helduko ginen Zeanurira.

– Ez daukagu zertan kezkaturik –desenkusatu nintzen–. Ederki esanda utzi zuen Lizardik: «Bide berriak. Bide guztiak.»

– Ondo da, ondo da –esan zidan, etsipen pitin batez–, baina... beti oinez ibiliko gara?

– Beti. Bidez bide, mendiz mendi eta presarik gabe. Hau da benetan Euskal Herria. Hau maite behar dugu, ez kaleko zurrunbilo faltsu hori. Zu ez al zinen, gainera, «mendigoxalia»? Ez al zenuen zuk «Mendijetara» poeman «giz-otsetatik» urruntzearen lilura kantatu?

– Tira, ederto dago hori dana, baina Euskal Herriaren etorkizuna kalean jokatzen da, hirietan batez be, ez hemen. Hemen alferrik gagoz.

– Zu kalean ere alferrik zaude. Ez al zara jabetu? Ezin duzu ezer egin. Inor izateko aukera duzun bakoitzean fantasma bihurtzen zara, arima bakartua, espiritisten espirituak bezala

ibildaun eta eragingabe. Aintzat har zaitzakeen inork ez zaitu ez ikusten, ez entzuten, ez ukitzen.

– Baina akaso zure ondoan, zure laguntzagaz...

– Hara, nik ez dakit zergatik zauden nirekin. Ez dakit zergatik ikusten eta entzuten zaitudan, ez dakit zergatik nire aurrean ez zaren espiritu hutsal bihurtzen. Baina etsitako pertsona batekin egin duzu topo.

– Kazetaria zara, *Egunkaria*-koa eta Kultura sailekoa... Nire laguntzailerik onena izan behar zeunke zuk.

– Beharbada niregana bidali zintuen aingerua beranduegi jabetu zen nire aldarteaz. Beharbada nire artikuluetatik baino ez ninduen ezagutzen. Zorte txarra izan duzu, Lauaxeta jauna, zorte txarra.

Nolanahi ere, Lauaxetak nire ondoan jarraitu beste erremediorik ez zuen, eta niri pozgarria zitzaidan hura aldamenean sentitzea. «Biziek ezin eman dezaketen laguntza eta babesa ematen ditek hildakoek», pentsatu nuen, «edo berpiztuek, hobeto esanda. Etorkizunik gabeko adiski-

detasuna, askatasun osoko intimitatea, biziekin inola ere ezin iritsia.»

Erpin geodesikoaren gainean eserita, Otsabioko hiru gurutzeen eta bi buzoien ondoan egin genuen mokadu bat, zahatoa ere astinduz. Jan eta gero ere luzaz geratu ginen han, ikusmira ederraz gozatzen. Auzo eta mendi asko ikusten zen handik, Orexa horien artean, baina Leitzako parke eolikoko aerosorgailuek ernetu zuten Lauaxetaren arreta. Urrun eta txiki ikusten ziren eta neuk azaldu arte ez zuen jakin zer ziren.

– Lizartzan jaioa da Lizardiren aztertzaile sakonenetako bat –azaldu nion Lauaxetari, jaiki eta beherantz abiatu aurretik, Lizartza aldera begira, artean ere herria, mendi magalean ezkutatua izaki, ikusterik ez bagenuen ere–. Berak ere erruz idatzi du: poemak, ipuinak, nobelak...

– Badakit Luis Mari Mujikaren barri, ez deustazu ezer azaldu behar. Idazle fina da. Nitaz be idatzi izan dau.

– Aitortu beharra dago gogotik ikasi duzula berpiztu zinenetik.

– Diziplina kontua da. Josulagunakaz ikasia naz...

Otsabiotik Lizartzara, mendi gailur batetik herri batera jaistean ohi denez, gero eta bide hobea aurkitu genuen. Herrigune nagusira heldu baino lehen, bide ertz batean eseri ginen, Lizartzako etxeei begira. Iluntzen hasia zegoen. Arrats beheran geunden, beraz, Lauaxeta eta biok.

– Ikusten al duzu etxe hori? –galdetu nion Lauaxetari, eri erakuslearekin molde berriko txalet txuri handi bat seinalatuz–. Aurrean lorategia eta piszina txiki bat dituena.

– Bai, ikusten dot. Dotorea da.

Orduantxe puntuan emakume gazte bat irten zen etxe barrutik atarira, besoetan haurtxo txiki bat zuela.

– Ikusten al duzu andre hori?

– Bai.

– Hori Sorkunde duzu, nire emazte ohia.

– Emazte ohia? –galdetu zuen aho-zabalik Lauaxetak–. Dibortziatua zara ala?

– Bai, jauna! Dibortziatua naiz, elkarrengandik dibortziatuak gara hor beheko emakume hori eta biok.

– Alajainkoa! Eta umea?

– Ez da nirea. Guk ez genuen izan haurrik. Oraingo senarrarekin egin da Sorkunde ama. Esana zidaten jaioa zela, baina hauxe da umea ikusten dudan lehen aldia.

Auto bat heldu zen etxera. Autoa garajean sartu ostean, gizon bat irten zen autotik. Itxura oneko gizon gazte mardul bat, geunden tokitik ikusi ahal zenez: Sorkunderen senarra izan behar zuen, dudarik gabe, lanetik itzulia. Sorkunderengana inguratu eta musua eman zion. Umetxoari kontuak egin zizkion. Gero etxe barruan sartu ziren hirurak.

– Maite dozu oraindino, ez da halan? –esan zidan Lauaxetak, begirada niregana zuzenduz, erruki arrasto batez.

– Ez. Nostalgia hutsa da. Ez da maitasuna. Zu ez zinen ezkondu, ezta?

– Ez, ez neban izan horretarako betarik.

– Egia da, bai, gazteegi hil zinen.

– Gazteegi hil ninduen, bai.

– Olerki bat bezain seme ederrik ez dagoela idatzi zenuen behin –esan nion, zuzenketari jaramonik egin gabe–. Eta, ideia horrekin bat eginez, hemen poema batzuk utzita joan zinen, baina ez alabarik edo semerik.

– Gaztea nintzan hori idatzi nebanean. Esan deutsut lehen be, gazteegi hil ninduen. Ez neban neure okerraz jabetzeko aukerarik izan.

– Horretan behintzat Lizardik puska handia atera dizu. Ugariak dira haren bilobak. Bat sarri samar joaten da *Egunkaria*-ko erredakziora, neska-lagunak han egiten baitu lana. Liburuek ez dute ezer balio, liburuak hilda jaiotzen dira, seme-alabak dira benetan balio dutenak, benetako bizitza bizia; ondorengoak eta ondorengoen ondorengoak. Hori da benetan lorratza uztea, arrasto bizia, eta Lizardi hemen arrastoa utzita joan zen. Zuk utzitako arrastoa, aldiz, barkaidazu horren gordin esatea baina hala da, zuk utzitako arrastoa hutsaren hurrengoa izan zen, Estepan, hutsaren hurrengoa. Poemak, artikuluak, antzerki-lanak... Hutsala guztia! Itxurakeria! Funtsezko ezer ez seme-alaba biziak uztearen aldean.

Ez zidan ezer erantzun, baina tristaturik sumatu nuen Lauaxeta.

– Eta zuk? –galdetu zidan, uzkur, erreminez–. Itxiko dozu arrastorik zuk? Garaiz zagoz oraindino...

– Ez, ez zait iruditzen. Nik ez dudan barneindar bat behar da horretarako. Bizimina, ilusioa, barruko poza... Niretzat beranduegi da. Beharbada beti izan da beranduegi. Zu bezala galduko naiz ni ezerezean, arrastorik utzi gabe. Edo, tira, agian zu oraindik ere –irri eginarazi zidan bat-bateko burutazioak–, zu oraindik ere... Ulertzen didazu, ezta?

– Ez dakit berpiztuok ezkontzerik ba ete dogun –komentatu zuen seriotasunez–. Gaitza irizten deutsot, egia esan.

– Bai, bai, baina ezkontzea, umeak ekartzea eta kontu horiek guztiak alde batera utzita, zu oraindik ere... Sasoiko zaude. Ez al duzu aprobarik egin? Egin behar zenuke, lehenbailehen, geroko utzi gabe. «Gaur ezer ez dozak biarko liliak.»

– Kristaua naz, aizu! Ezkondu barik...

– Hortaz, hil aurretik ere ez zenuen...

– Mesedez, errespetu pixka bat! –ozpindu zitzaidan–. Samurregi berba egiten dozu edozertaz! Benetan higuingarria zara batzuetan!

«Hildako bat pertsona serioa da, neurritsua, dagoen egoeraz jabetua», esan zion Fernando Pessoak Ricardo Reisi José Saramagoren *O ano da morte de Ricardo Reis* nobelan. Eskarmentua zuen jakituria-iturri orduan Pessoak, hil eta gero esan baitzituen hitzok, Prazeresko hilerritik irtenik adiskide erraietakoari egindako bisitaldi batean. Nik ezagutu nuen Lauaxeta ere, Lauaxeta berpiztua –1905etik 1937ra bitarteko Lauaxeta ez bezala akaso, hori ez dakit–, pertsona serioa zen, neurritsua, zegoen egoeraz jabetua. Horregatik irauten zuten seguru askorik hain gutxi haren haserraldiek. Horrelako txikikeria mundukoi eta prosaikoen gainetik zegoen hura.

Orduko hartan ere aurki adiskidetu zitzaidan. Lizartzara heldu ginenean, behin haraino helduak ginenez gero, Sorkunderi eta bere familiari bisitatxo bat egiterik ez al nuen nahi galdetu zidan. Ezetz erantzun nion, narrasegi nengoela

inoren etxean bisitari agertzeko. Bere arropak uzteko prest agertu zitzaidan orduan Lauaxeta, eta bizarra egiteko *kit* txiki bat ere bazuela jakinarazi zidan. Nik ezezkoari eutsi nion hala ere. Esan nion nahiago nuela menditik ikusi nuena gordetzea gogoan. Zorion baten irudiak ilunabarrean.

Beste kezka bat agertu zidan ondoren:

– Non egingo dogu lo?

– Edozein txokotan. Erreka ondoko zelaia oso leku egokia izan daiteke. Euria hasten badu, berriz, aterpe zabala dugu eliz atariko teilatupe irekian. Ateak itxita izan arren, teilatupe irekiak eta arkupeak behintzat abegikorrak izaten dituzte Euskal Herriko elizek horrelako kasuetarako.

– Nik nahiago neuke pentsio bat bilatu. Badaukot dirua...

– Ez dut uste orain lo egiteko tokirik aurkituko genukeenik. Tira, landaturismoko baserri bat akaso. Zertarako baina? Zu olerkaria zara, ezta? Ba al da olerkari batentzat izarrei begira lo egitea baino ezer ederragorik?

– A zer gidaria hartu dodan, alajainkoa! Aker bat baneu gidari, alde handirik ez.

– Zer da hori? Nire gorputz-usainari buruzko zeharkako iraina?

– Nik ez dot asmo horregaz esan. Zeuk jakingo dozu zergaitik pentsatu dozun hori.

Errepidearen ondoko taberna batean afaldu eta herriko beste pare bat tabernatan baxoerdi batzuk hartu genituen. Pentsatu nuen gaztetxera joatea ere, batez ere Lauaxeta harritu eta asaldatua ikusteko beste aukera eder bat izan zitekeela pentsatuta, baina itxita zegoen. Izan ginen taberna guztietan telebistako kate bera zegoen piztuta, ETB-1, euskarazkoa, futbol partida bat ematen ari. Atsedenaldiko tartean, ordura artean sekula ikusi gabea nuen iragarki bat eman zuten. Dotore jantzitako dozena bat lagun ageri ziren zein bere sakelako telefonoaren bidez hizketan, gizonezko gorbatadunak batzuk, gona motzeko emakumeak besteak, seriotasun osoz lanean gogor ari ziren exekutiboak guztiak itxuraz; inpentsan, baina, gizon gorbatadun haietako batek, telefonoa barik maskor bat zuen belarri ondoan eta, bere zorion aurpegiari kasu egitera, liluratua zegoen entzuten ari zenarekin. Futbol partidako jokaldirik interesgarrienen erre-

pikapena babesten zuen haririk gabeko telefonia konpainiarena zen iragarkia.

Gerra aurreko euskal txiribogen antz handirik ez zien hartzen Lauaxetak 1997ko euskal tabernei.

– Telebista ez bada musika –azaldu zidan–, beti dozue zeozer trabarako. Eta alkarregaz berba egin barik, beti alkarrengandik urrin egoten saiatzen zarie, tabernetan legetxe trenean edo autobusean, baita kalean be. Alkarren beldurrez bizi zariela emoten dau.

Hotz samar zegoen gaua, baina onak ziren gure lozakuak, Lauaxetarena batez ere, lumadun erosi berria. Horrelakoetan ohikoak diren zailtasunak gorabehera, ederki lo egin genuen Araxes ibaiaren ondoan, nik aurretik begiz jotako zelaian, eta Lauaxetak ez zuen bezperakoaren gisako sonanbulismo krisirik izan. Esan zidanez, berpiztu ondoren ez zituen hil aurretik bezain sarri izaten.

Eguna argitu orduko irten ginen lozakutik. Lauaxetak erreka ertzean egin zuen bizarra, Ara-

xesen ura baliatuz. Niri ere eskaini zizkidan bere trepetak, baina nik ezetz esan nion, bizarra uzteko asmoa nuela. Bizarra egin ondoren, inguruan artean ere jenderik ez zela baliatuta, gerritik gora biluztu eta errekako urarekin soina freskatu eta garbitu zuen Lauaxetak. Bularraldean agerian zituen fusilamenduko zaurien orbainak, ekain bateko goiz hotzak soin eder hartara isurtzeko urratutako bidearen aztarrenak. Begira geratu nintzaion. Guztiz gogortu ez bazitzaidan ere, zakileko zainak odol berriz betetzen sentitu nituen. Ezustean harrapatu ninduen, aspaldian inork sentiarazi gabeko kilika baitzen hura.

Trasteak bildu, egunkariak erosi, bezperan egondako tabernetako batean gosaldu, kantinplora urez eta zahatoa ardoz bete eta bidean jateko zerbait erosi ondoren, Orexarantz abiatu ginen, goiza sorbaldan, zeru garbi baten azpian. Lizartzatik oso gertu zegoen bidegurutzea, eta handik lau kilometro eta erdi baino gutxiago geratzen zen Orexako plazaraino, denak aldapan gora, hori bai («Aldapa goien Orexa han dugu, / ‘munduaren ipurdia’», idatzi zuen Orixek «Lizardi gurean» poeman). Orexara heltzeko kilometro

erdi bat falta zela, argazki bat egin nion bide ertzean ikusi genuen 1964ko hilarri bati. Orexara helduta, berriz, Orixeren jaiotetxeko plaka ikusi genuen lehenik eta Orixeren omenezko monolitoa gero: idazlea eserita eta eskuan liburua zuela irudikatzen zuen harrizko estatua mardul bat. Lizardiren omenezko piramidearen ondoan bezala, isilkako egonaldia egin zuen Orixeren irudiaren aurrean Lauaxetak. Hasieran haren ondoan geratu nintzen neu ere, baina egonaldia luzetsita inguruan bueltatxo bat egitera joan nintzen, plaza eta frontoia ikustera.

Landan lanean ariko ziren nekazariak. Mortu zeuden behintzat Orexako plaza nagusia, frontoia eta inguruak. Udaletxe aurrean, plaza nagusian, haize leunaren menpe zebilen paper batek bereganatu zuen nire arreta. Margaren gutunaz oroitu eta ideia zoro bat etorri zitzaidan burura: Lauaxetaren agerpena izango ote zen Margak Lizardiren omenezko monumentuaren ondoan akaso aurkituko nuela iragartzen zidan «arrastoa»? Eta hala izatekotan, eta kontuan hartuta Orexara etortzeko ideia Lauaxetarena izan zela, ez ote nuen han, Orexan, beste «arrasto» bat

aurkituko? Haizearen menpe zebilen papera jaso nuen eskuetan. Haur baten marrazkia zen: baserri bat, bide bat eta zuhaitz bat baserriaren aurrean, mendiak atzealdean... «Txorakeriak!», esan nuen neure artean. «Nola egongo da ba hemen Margaren inolako arrastorik?»

Orexaraino heldua nintzen, baina nora jo ez nekiela nengoen berriro ere, altxorraren bila jarraitzeko bidea markatuko zidan maparik gabe. Horretaz pentsatzen ari nintzela, Lauaxeta ikusi nuen niregana etortzen. Elkarri ezer esan baino lehen, ordea, auto gorri bat heldu zen plazara. Paretaren kontra baztertzera behartu gintuen. Neska gazte bat zen txoferra. Bezperan, Tolosan, ertzainak atzetik zituela ikusi genuen huraxe! Zorionez, ez zen orduko abiaduran heldu. Bestela ez genuen baztertzeko astirik izango.

Autoa plazan biraka jarri zuen neska gazteak, eta autoak beti bira bera egiten zuela ziurtatu zuenean, atea zabaldu eta, autoa gelditu gabe, irten egin zen, bizkar-zorro handi samarra soinean. Autoak bere kasa jarraitzen zuen, zirkulu berean biraka beti, plazatik irten gabe. Zineman nuen ikusia antzeko zerbait, Werner Herzogen

film batzuetan, baina ez nuen uste inoiz horrelakorik benetan begien aurrean ikusiko nuenik, are gutxiago astegun buruzuri batez Orexako plazan eta Lauaxetaren aldamenean.

Guregana inguratu zen neska.

– Barkatu. Nafarroara joan nahi dut oinez eta ez dakit nondik den bidea.

– Nafarroara? –galdetu nion, harridura eta urduritasuna gainetik ezin astindurik.

– Geu be Nafarroara goaz –esan zuen Lauaxetak–. Oinez, bidez bide, oraintxe bertan. Geugaz erdu gura badozu...

– Kasualitate handitxoa! –esan zuen mesfidati neskak, ezkerreko eskua atzera eraman, galtzen atzealdetik pistola bat atera eta pistolaren kanoia guri begira jartzearekin bat–. Zipaioak zarete, ezta?

– Ez, ez, benetan –esan nion, sustoaren poderioz eskuak altxatuta–. Ez gara, ez gara.

– Begiraiozu ondo gizon honi, andereño –esan zion Lauaxetak, eskuarekin ni seinalatuz–. Ertzain itxura ikusten deutsozu? Tira, tira...

– Honek ez zakiat, baina hik behintzat sekulakoa! Altxa esku zuri horiek, kabroia!

Barreari eusten ahalegindu nintzen, Lauaxetak eskuak altxatzen zituen bitartean.

– Ni Lauaxeta naz, andereño, euskal olerkari, kazetari eta gudaria!

Barrea lehertu zitzaidan.

– Ixo! Paretaren kontra! Agudo!

Gu arakatu eta bizkar-zorroak miatu zizkigun neskak. Ez zegoen berriketarako. Miaketak pixka bat lasaitu zuen hala ere.

– Tira, ez zakiat zein arraio zareten –esan zigun zakar–. Bidean ikusiko diagu. Izango diagu gauzak argitzeko betarik. Aurrera! Goazen!

Aspaldisko izan gabea nintzen paraje haietan, baina asmatu nuen Uliko atsedenlekurantz eramaten zuen bidea hartzen. Lauaxeta zetorren nire atzetik, eta neskatoa ondoren, pistola ezkerreko eskuan zuela, jertse batekin ezkutatua badaezpada ere, bidean inorekin topo egiten bagenuen pistola zuenik ohar ez zedin.

Auto gorria plazan biraka gelditu zen.

Bizitzen ari nintzen egoera beldurtzeko modukoa zen, baina ez nuen izurik sentitzen. Neuk

zergatik jakin gabe, sakonean pozgarritzat hartzen nuen pistolarekin mehatxu egiten zigun neska gozakaitz harekin topo egin izana. «Hara zer neurritaraino heldua den nire etsipena», esan nuen neure artean. «Hiltzeari ere ez zioat, nonbait, jada beldurrik!»

Orexatik aurrera kilometro bateko tartea-edo egina genuela, Ertzaintzaren helikoptero bat ikusi genuen zeruan. Bakoitza pinu banaren ondoan geldirik egoteko agindu zigun neskak. Helikopteroa pixka bat urrundu zenean aurrera egin genuen lasterka, harik eta baserri abandonatu bateko pareta sasiak jandakoen artean sartu ginen arte. Aurki zen berriro ere helikopteroa gure gainean, baina pareta zahar haien artean, teilatuko zuloak gorabehera, ederki ezkutatuta geunden.

Ordura artean isilik ibiliak ginen, eta hasieran isilik egon ginen baserri haren barruan ere. Poz handi bat sentitu nuen, barne-harmonia esanezin zoro bat. «Ez zakiat zergatik, baina hementxe egon beharra nian eta hementxe nagok», esan nion neure buruari, «Leku eta tenore egokian. Hainbeste ibilaldi zoro hara eta hona, hainbeste

ikasketa eta lan, hainbeste min eta neke, hainbeste izu eta negar, hainbeste amore emate eta umiliazio bizitza osoan zehar, honetarako? Honetarakoxe ba, honetarakoxe, zertarako bestela?»

Hirurok hantxe geratuko ginela iruditu zitzaidan, isiltasun eta gelditasun mugagabe hartan bat eginda betiko, baina hainbat minuturen buruan Lauaxetak isiltasuna urratu zuen:

– Aizu... Parkatu itauntzea, andereño, baina zu... ETAkoa izango zara, ez da halan?

– Ez. Ni ez nauk ETAkoa. Lapurra nauk, besterik gabe.

– Hara!

– Gaizkile arrunta nauk.

– Ertzaintzaren ihesi!

– Zipaioengandik ihesi, bai. Aspalditik. Baina ondo, gustatzen zaidak kabroi zikin horiei adarra jotzea.

Lauaxetari hika, hori bai, baina aparteko zakartasunik gabe erantzuten ziola ikusirik, neu ere animatu nintzen txanda hartzen:

– Nora egin nahi duzu ihes? Nafarroan ezin zaituzte ertzainek jazarri baina Guardia Zibila jakinaren gainean jarria izango dute.

– Paisaia aldatuko duk sikiera. Eta atzetik datozkidan autoen kolorea. Baduk zerbait.

– Eta gu? Zer egingo duzu gurekin?

– Ez zakiat. Ez diat zuei ezer txarrik egiteko asmorik, txorakeriaren bat egiten ez baduzue behintzat. Lasai.

– Entzun al duzu hori, Estepan? Agian arrazoia izango zenuen.

– Arrazoia izango nebala? Zertan? Zer esan gura dozu?

– Polixene Trabuduak dioenez, behin bakarrik hiltzen dela esan omen zenion behin.

– Hara, egia da, bai –esan zuen, gogoratuz–. Halantxe da. Horixe esan neutson. Guda hasita zegoan. Ez dau ahaztu beraz. Ai, Polixene, Polixene...! Emakume maitagarria!

– Badirudi ez dela bigarren heriotzarik izango. Oraingoz behintzat. Nolanahi ere, Koldo Izagirrek esaten du faxistek fusilatu baino lehenago Aitzolek hil zintuela zu.

– Hori esaten dau, bai, irakurri neban zuk apailatutako erreportajean. Hasieran ez neban ulertu be egin zer esan gura eban. Geroragoan konturatu naz zergaitik esan eban hori. Egia da

Aitzolek moztu eutsozala hegoak nire poesiari, baina larregi da Koldo Izagirrek esaten dauena esatea. Aitzol gutarikoa zan, onenetakoa ganera, eta lagun handia... Badira poesia baino garrantzi handiagoko kontuak. Aberria eta uzkurtza, adibidez. Aberria eta uzkurtza batez be. Euskal Herria eta Jaungoikoa.

– Zertaz ari zarete? –esan zuen, haserre, neskak.

– Ez da ezer, ez da ezer –erantzun nion–, geure arteko kontutxo txoroak.

– Amaitu dituk berriketak. Goazen aurrera. Helikopteroak alde egin dik hor gainetik.

Isilik jarraitu genuen berriro bidean aurrera, baina pixka bat aurreraxeago neskari galdetu nion ea nora jo nahi zuen zehazki, Nafarroako zein herritara.

– Handi samar batera ahal baldin bada –erantzun zidan.

– Leitzara edo Lekunberrira, hortaz, Uitziko mendatetik barrena?

– Primeran.

Isilitasunean murgildu ginen berriro.

Hamalau Orduko Martxa pare bat aldiz egina nintzenez, paraje haiek ezagunak nituen. Banekien, horrenbestez, Ulizar mendiaren tontorretik nahitaez pasatu beharrik ez genuela, baina, desbideratze handirik ere egin behar ez zenez, iruditu zitzaidan merezi zuela, eta ez zitzaiola gaizki irudituko pistola mediante bidaia-buru eztabaidaezin genuenari. Neu txartelak uzten ibilia naizenez, mendi tontorretako buzoi barruak miatzeko ohitura dut. Ulizarkoan, Santurtziko bost mendizalek egun batzuk lehenago utzitako txartelarekin batera, bestelako orri bat zegoen, goma mehe baten bitartez hiru lilirekin uztartuta zegoen orri txiki bat. Taupada bizian larritu zitzaidan bihotza: Margaren sinadura zuen barren!

Alkandorako sakelan sartu nituen berehala buzoitik ateratako paperak, irakurtzeko betarik hartu gabe, lore moreekin batera. Ez nuen neskak orri hura irakur zezan nahi. Lauaxetarekin bakarrik egon banintz, akaso ez nukeen arazorik izango hari gutuna erakusteko, Lauaxetarekin hartua bainuen konfiantza pixka bat. Gainera, azken batean, Lauaxeta hildako berpiztu bat

baino ez zen. Baina neskari gutun hura erakustea ez zitzaidan kontu erosoa iruditzen.

– Axola ez bazaizu, hauek gorde egingo ditut –esan nion neskari, baimena eskatuz bezala–, elkartean entregatzeko. Mendizale elkarte bateko kidea naiz eta...

– Egin ezazu nahi duzuna –moztu zidan, lehor, azalpena.

Tontor gainetik inguruetara begira geratu ginen hirurok. Mendi ugari zegoen agerian: Ipuliño, Baztarla, Eguzkiko Muinoa eta abar iparrean, Malloak hegoan... Irurtzun eta Andoain arteko autobidearen puska bat eta Leitzako parke eolikoa ere oso ondo ikusten ziren. Parke eolikoko aerosorgailuak bezperan Otsabiotik baino askoz handiago ikusi genituen. Begirada ikusmira hartan galdu eta lasaitzeko ahaleginak egiten ari zen neska, une batez gutxienez ere tentsioa deskargatu nahian edo. Lauaxeta, berriz, neskari begira harrapatu nuen. Gustuko zuen nonbait. Igartzen zitzaion. Harritzekoa ere ez zen, ederra baitzen neska basati hura, niri gustatzeko gazteegia aukeran baina. Momentuko patxada hura baliatu nuen Margaren gutuna alkandoraren sa-

kelatik atera eta erdi-ezkutuan irakurtzeko, ez zen luzea-eta.

> Kaixo, Julen:
> Gogoratu: ez zaitez protagonista izan.
> Begira iezaiozu inguruari.
> Jakintsua munduaren ikuskariarekin gogobetetzen dena.
> Gozoak dira galtzen ditugun orenak oro, Julen. Baldin eta galtze horretan, pitxer batean bezala, loreak baditugu jartzen.
>
> MARGA

Isilik jarraitu genuen Ulizartik Gorriti aldera oinez. Nik Margaren gutunaren misterioa ezin argiturik jira-bueltaka nuen burua. Saiatu nintzen Margari kasu egiten, hots, lasaitzen, kezkak uxatzen, inguruari begiratzen, oren-galtzean loreak jartzen, baina ez zitzaidan erraza.

Ibilian-ibilian eta isil-isilik, Irurtzun eta Andoain arteko autobideak Gorritin duen restoparen ondora heldu ginen. Neu nindoan aurretik eta, besteen zain geratzen nintzen bitartean, autobi-

deari begiratu nion, harriduraz, liluraz. Autobidea bi urte lehenago inauguratu zuten, 1995ean, baina autobidea egin zutenetik Gorritira mendiz heltzen nintzen lehendabiziko aldia nuen nik orduko hura. Basoaren bihotzean galdurik bat-batean autobide batekin topo egiteak halako perplexidade moduko bat sentiarazten zidan niri beti, eta egun hartan egiaztatu ahal izan nuen Gorriti leku ezin aproposagoa zela sentimendu harentzat.

«Autobide ondotik, une batez neuregandik oso gertu igarotzen ikusten ditiat autoen txoferrak eta gainerako bidaiariak», esan nuen neure artean, «baina oso urrun ditiat, erabatekoa duk haien eta nire arteko inkomunikazioa, haiek beste dimentsio batean daudelako, autobidearen dimentsioan. Egungo hedabideak 'informazioaren autobideak' direla esaten ditek. Albisteen parekoak dituk autobideko autoak, eta albisteen protagonisten parekoak autoetako txoferrak eta gainerako bidaiariak. Oso gertu ditiat, bertatik bertara ikusten eta entzuten ditiat erosotasun osoz; baina neuregandik gero eta urrunago sentitzen ditiat, neurekin gero eta lotura

gutxiago dutela iruditzen zaidak. Wim Wendersen film bateko izenburuak dioena: *Hain gertu, hain urrun*. Edo alderantziz, ez zakiat, berdin zaiok.»

Pentsamendu horiek ere, Margaren gutunaren ingurukoak bezalaxe, neuretzat gorde nituen alabaina. Neska pistoladunak berriketarako gogorik gabe jarraitzen zuen eta ez zegoen gure artean gisa hartako komentarioak egiteko girorik.

– Nafarroan gaudek, ezta? –galdetu zidan neskak, nire parera heldu baino lehen geldituta.

– Bai, hala uste dut –erantzun nion–. Autobidearen bestaldean dagoen herria Gorriti da.

Gure bideari jarraitzeko autobidearen bestaldera pasatu behar genuela azaldu nion. Errepideak lur azpitik egiten zuen tarte bat, 25 bat metrokoa, eta gure bidea tunel labur haren goialdetik pasatzen zen.

Mesfidantzaz begiratzen zuen, ordea, neskak autobide aldera.

– Joango al zarete zuek aurretik? –galdetu zigun–. Litekeena duk hor behean guardia zibilak egotea nire zain.

– Ondo da –esan nuen nik, Lauaxetari begira.

– Fio zara? –galdetu zion Lauaxetak.

– Bai.

– Eskerrik asko, andereño... Parkatu. Nola dozu izena?

– Goizeder.

– Goizeder? –harritu zen Lauaxeta–. Oso izen polita da! Goizeder!

Goizederrek agindu bezala, aurretik zeharkatu genuen autobidearen gaineko bide-tartea Lauaxetak eta biok, inguruetara begira, autobidetik ezin ikusi zen leku batera iritsi arte.

Ez zen poliziarik edo gisakorik ageri. Keinu bat egin genion autobidearen bestaldetik eta Goizeder guregana heldu zen, pistola eskutik askatu gabe baina jertsearekin ondo ezkutatua zuela, lasai itxuraz, barrutik ez hainbeste akaso.

– Portatu zarete –esan zigun, irri egitetik gertu–. Esaten nuen nik, bai, zoroegiak zinetela zuek poliziazaleak izateko.

– Zu ez al zinen ertzainen komandantea izan, Estepan? –galdetu nion Lauaxetari, zirikatzeko asmotan.

– Ez adarrik jo, Julen. Komandantea bai, izan nintzan komandantea, baina Euzko Gudaroste-

koa, gudan, aberria etsai faxistengandik babesteko gudan.

– Baina ertzainekin bat eginda zeundeten.

– Jakina! Geureak ziran! Izena be geuk imini geuntseen!

– Hik Poliziaren esku utziko al nindukek ahal izanez gero? –galdetu zion zorrotz neskak.

– Ez, andereño, zu...

– Ni... zer?

– Neska jatorra zara. Ez dot uste zuk...

– Tolosako banketxe batean lapurreta egin nian atzo, eta herenegun Zizurkilgo beste batean. Zer irizten diok?

Bizkar-zorrotik boltsa bat atera eta dirupaper mordo handi bat erakutsi zigun. Harrituta geratu ginen dirutza hari begira.

– Nik ez hinduket salatuko, Goizeder –animatu nintzen esatera ikusmen hark eragindako harridura gainditu bezain laster–. Nik ez ditinat zipaioak maite, ezta banketxeak ere. Eta –Lauaxeta seinalatuz– honengatik ez kezkatu, hau nirekin zagon. Gainera, edozer gauza esanda ere ez ziokenan inork kasurik egingo.

– Bai, horretan behintzat arrazoia daukak.

Uste dut Lauaxetari barrua mikaztu egin ziola Goizederri ikusi genion estreinako irriak.

Zahatoa lagun genuela gazta puska bana jan genuen hirurok, une hartako distentsioa baliatuta, eta gero pistola galtzen atzealdean gordea zuela abiatu zen bidean aurrera Goizeder, ordura arteko beilaritza zorrotza baztertu eta gutaz arduratzeari utzita. Gorritiko herrigune nagusitik pasatu gabe, Uitziko mendaterantz jo genuen, Guratz mendiaren magaleko baso sarri abegikorraren babesean.

Arestiko gure adar-jotzeek eragin ziezaioketen sumindura erabat ahazturik, neska gaztearekin mintzatzen ahalegindu zen Lauaxeta, egoera bare hura lagun.

– Parkatu, Goizeder, beste itaun bat egin gura deunat...

Ibiltzeari utzi gabe, sorbaldak altxatuz adierazi zion Goizederrek nahi zuena egiteko, ez zitzaiola axola.

– Hika egiten ausartu naun heuk be halantxe egiten deuskunalako guri, ardura izango ez janalakoan...

– Ez, gizona, ez... Egin ezak galdera behingoz.

– Entzun don inoz Emakume Abertzale Batzaren konturik?

– Emakume Abertzale Batza? Ez zakiat. Antzeko zerbait bai akaso ikastolan. Baina ez nagok seguru.

– Abertzalea haz?

– Ez zakiat. Ez.

– Euskalduna bai ordea. Oso euskara samur eta aberatsa egiten don.

– Eta zer?

– Ez jakinat ba... Gure hizkuntza, gure herria, gure... gure arbasoek galdutako guda gogor eta ankerra... Hori guztia bardin jan?

– Kaka bat duk dena, behetik hasita goraino eta goitik beheraino buelta berriz ere, begiratzen zaion tokitik begiratzen zaiola, kaka bat dena. Beti izan duk hala.

Zerbait esan nahirik baina zer esan ezin asmaturik geratu zen Lauaxeta, eta ezintasun

haren indarrak une batez ibiltzeari ere uztera behartu zuen.

Uitziko mendatetik gertu geundela gaztigatu nionean, artean ilundu gabe zegoen arren, gaua pasatzera baso hartantxe geldituko ginela erabaki zuen Goizederrek, errepidetik kilometro erdi ingurura. Isilik egon ginen ilundu bitartean, atseden hartzen eta egunkariak irakurtzen. Goizederrek abar batzuk bildu zituen.

Xalbadorrek *Odolaren mintzoa* liburuan egindako ohar batez oroitu nintzen ilundu zuenean: «Ez dut egundaino hauteman gaixtaginik ibili dela gauaz mendian. Gu iduri, behartsu batzu dira beti hor dabiltzanak.» Hark bazekien horretaz, artzaina izaki maiz egin baitzuen lo mendian. «Beraz, Xalbadorri jarraituz, argi zaudek bi gauza», egin nuen neure kautan: «bata, Goizeder ez dela gaiztagina; bestea, ez dugula zertan Poliziaren beldurrik izan gauez inguru honetan.»

Ilbete zen. Hotz zegoen baina garbi ikusten ziren izarrak zeruan, edo inguratzen gintuzten pagoek agerian uzten zizkiguten zeru tarteetan bederen. Lozakuetan sartu aurretik, su txiki bat piztu eta haren ondoan eserita zerbait jan, zaha-

totik edan eta Goizederrek prestatutako porro batzuk erre genituen. Oso haxix ona zen.

– Egia al da hi Lauaxeta olerkaria haizela? –galdetu zion ezustean Goizederrek Lauaxetari.

– Bai... –erantzun zion, harrituta, Lauaxetak–. Nola dakin?

– Orexan esan duk, pistola hiri begira jarrita eskuak altxatzeko agindu diadanean. Ez al haiz oroitzen?

– Eta sinetsi egin al dion? –sartu nintzen ni solasaldian, Lauaxeta bezain harrituta–. Ba al dakin zer garaitakoa den Lauaxeta?

– Bai. Gerra garaikoa-edo, Lizardi eta horien laguna. Ikastolan irakasle bat izan genian Lauaxetazalea oso. Hark esaten zian Lizardi baino poeta hobea zela Lauaxeta, baina bizkaitarra izateagatik zegoela Lizardi baino ahaztuago eta gutxietsiago. Niri, dena dela, berdin zitzaidaan bata zein bestea. Ez zaidak sekula gustatu poesia. Lizardi, Lauaxeta, Atxaga, Sarrionandia, Lertxundi... Denak berdin niretzat. Bost axola!

– Anjel Lertxundik ez jon poesiarik argitara emoten –zuzendu zion Lauaxetak.

– Berdin zaiok, koadrilakoa duk behintzat, ezta?

– Hortaz, Goizeder –itzuli nintzen lehengora, Goizederrek Lauaxeta Lauaxeta zela gisa hartan onartzeari sinestezin iritzita–, hik sinesten dun gizon hau Lauaxeta dela.

– Bai. Berak hala badio, zergatik ez ba?

– Ez al zain iruditzen gazte samar dagoela gure lagun hau gerra aurreko olerkaria izateko?

– Bai, baina berak Lauaxeta dela esaten badik Lauaxeta izango duk, ezta? Baita gainerako guztiak Lauaxeta izan ez dadin ahalegintzen bagara ere. Niretzat bai behintzat. Gutxieneko errespetu bat izan behar zioagu elkarri. Hor zagok akatsa. Horretan egiten diagu huts, eta gero emaitza katastrofe bat duk, dena kaka zahar bat...

Beste egoera batean bagina, erantzungo ziokeen zerbait Lauaxetak neskatoaren suminaldi absurdu hari, modu arrazoizko batez erantzun ere. Baina, ardoaren eta haxixaren ondorioz, Lauaxetaren arrazoimena guztiz moteldua zegoen ilbetearen eraginpeko sutondo hartan, eta Goizederren hitzek emandako zartadak K.O. utzi

zuen arrazoimen ahuldu hura, puska baterako elbarritua. Neuk ere izango nukeen akaso zer esanik beste egoera batean, baina orduko hartan Goizederren hitzak poeta handi batenak iruditu zitzaizkidan. Horregatik, isilik geratu ginen hirurok tarte luze batez, geure bizitzak laburtuko lituzkeen kanta labur eta xume bat entzun bagenu bezala. Alkandorako sakelatik Ulizarko buzoian jasotako liliak atera eta usaindu egin nituen, Marga gogoan.

Artean eguna argitzen hasi gabe zela esnatu nintzen biharamunean. Lauaxeta lo zegoen, haren zurrunga leunek salatzen zutenez. Goizeder, aldiz, isil-isilik altxatua zen. Bere traste guztiak bikar-zorroan sartuak zituen ordurako. Begiak erdi-irekita, lo egoteko plantak eginez, Goizederrek Lauaxetarengana hurreratu eta musu arin bat ematen ziola ikusi nuen. Odola zakileratzen zitzaidala sentiturik, *ménage à trois* zoragarri bat irudikatzen hasi nintzen. Lauaxeta lo utzirik, Goizeder niregana etortzen sentitu nuen gero, begiak erabat itxita nituela, esna nengoela

igar ez zezan. Musu leun eta gozo bat eman zidan masailan. Orduan begiak ireki eta neure ezpainekin Goizederrenak bilatu nituen. Baita aurkitu ere. Musu gozoa eman genion elkarri. Baina gero Goizederrek, ezer esan gabe, esku batekin ahoa estali zidan eta, bizkar-zorroa hartuta, alde egin zuen.

Lilura betean geratu nintzen zakuaren barruan, aspaldian ibili gabeko plazer bideak urratzen, eskuarekin zakila astinduz eta begiekin zeru argitzen hasi berriari so. Hazia isurtzen hastearekin batera, tiro hots bat entzun nuen, eta pixka bat geroxeago, zakilaren azken astinaldiekin bat eginda, beste bat.

Kezkatuta, zaku barruan konpondu beharrekoak nola edo hala –ez oso txukun– konpondu, zakutik irten eta Lauaxeta iratzarri nuen.

– Esnatu, Estepan. Altxa hortik. Tiro hotsak entzun ditiat hemendik gertu. Goazen zer gertatu den ikustera.

– Tiro hotsak? Zer tiro hots baina?

– Bi tiro hots entzun ditiat –zehaztu nion, artean zakutik guztiz irten gabe agontzen zen bi-

tartean–, hortxe behean, errepidea dagoen inguruan.

– Ehiztariren bat izango zuan.

– Ez. Ez zituan eskopeta baten tiroak.

– Hara gure belarri-zorrotza! –Inguruetara begira hasi zen, zerbaiten bila bezala–. Eta Goizeder? Non dago Goizeder?

– Ez zakiat, Estepan, ez zakiat... Esnatu naizenean ez zegoan haren arrastorik. Irten agudo zakutik eta goazen ikustera.

Arrapalada batean traste guztiak bizkar-zorroetan sartu eta errepiderantz abiatu ginen lasterka. Lauaxetak geroko utzi zituen bere eguneroko txukuntze-lanak.

Janzki eta gorbata dotorez jantzitako gizon bat zetzan errepide bazterreko areketako batean, gu gentozen aldeko arekan, mendatearen izenaren eta alturaren berri ematen zuen karteletik hurbil. Gainerakoan, mortu zegoen errepidea, ez zen auto bakar bat ere ageri. Gizon etzanarengana inguraturik, bekokian zulo bat zuela ikusi genuen, eta odola zeriola hala zulo hartatik nola ezkerreko ezpain-ertzetik. Eskumuturretik

heldu eta pultsua hartzen saiatu nintzen, baina ez nuen ezer sentitu.

– Uste diat hilda dagoela.

– Ziur hago?

– Ez, ez zakiat ziur, baina hala iruditzen zaidak. Errepara iezaiok heuk. Hi hilda egona haiz eta nik baino hobeto igarri beharko hioke hilda dagoen edo ez.

– Horretarako ez jaukaat ezelango abantailarik, Julen –desenkusatu zen Lauaxeta, hilarengana gehiago hurreratzeko gogorik gabe–. Hik hila dagoela badinok, hila egongo dok. Hik uste dok...?

– Zer? Goizederrek hil duela? Ez zakiat... Batzuetan gauza hauek ez dituk ematen duten bezalakoak izaten.

– Hasieratik pentsatu neuan Goizeder ETAkoa izango zala.

– Berak ezetz esan ziguan, ez dela ETAkoa.

– Jakina! Nola esango eban ba ETAkoa dala?

– Arrazoia duk, bai. Normala duk ezetz erantzutea. Dena dela, esan zuena egia izatea ere litekeena duk. Nik ez diat uste Goizeder ETAkoa denik.

– Zer egingo dogu?

– Ez zakiat, motel. Morroi honen alde ezer gutxi honezkero, nire ustez. Hemendik lehenbailehen ospa egitea izango duk onena, auto bat etorri baino lehen. Oraindik garaiz gaudek.

– Baina gizon hau hil egin juek.

– Ez zakiagu zer gertatu den. Dakigun gauza bakarra duk ezin diogula bizion artera itzultzen lagundu, eta hemen geratzen bagara ez dugula gauza onik. Hik nahi duana egin, nik behintzat aurrera jarraituko diat.

Auto baten zarata entzun zen, Lekunberri aldetik gora igotzen. Lasterka hasi eta, errepidea zeharkatuta, bestaldeko basoan sartu nintzen ziztu bizian. Zalantzazko une labur baten ondoren, Lauaxetak ere lasterka jarraitu ninduen atzetik. Artean ere arnasestuka, pago banaren atzean ezkutaturik, autoa gelditzen ikusi genuen. Bi gizon jaitsi ziren. Inguru hartako nekazariak ziren, itxuraz. Poliki-poliki jo zuten gorpua zegoen tokira, eta bietako bat, nik arestian egin bezalaxe, gorpuari pultsua hartzen saiatu zen. Autorantz itzuli eta sakelako telefono batetik dei

bat egin zuten geroxeago. Guk isil-isilik aurrera egin genuen basoan barrena.

Pixka bat ibili ostean, geldialdi bat egin genuen, gertatutakoa komentatu eta zer egin erabakitzeko.

– Zein da gertuen dagoan herria? –galdetu zidan Lauaxetak. Urduri zegoen, ni baino askoz urduriago.

– Leitza nahiko gertu zagok. Lekunberri ere bai, baina hobeto ezagutzen diat Leitzarako bidea.

– Maparik ez dok izango, noski.

– Ez ba, ez diat maparik erabiltzen. Gaizki iruditzen al zaik?

– Leitzara jaistea izango dok onena –erabaki zuen deblauki, txikikeriak utzita, nire galderari erantzun gabe–. Herrira jaitsita, zer jazo dan jakiteko aukera izango juagu. Nik ezin juat mendian jarrai, ezer jazo ez balitz legez.

– Harritu egiten naik hire ardura horrek. Ez nian uste hildako batentzat horren durduzagarria izan zitekeenik heriotza aurrez aurre ikustea.

– Ikusten ari nazenez, biziak bai zariela benetan durduzagarriak! Benetan ikaragarriak! Ustelduta zagoze, ez dozue benetako sentimendu bakar bat be. Zuen ikuspuntutik, pertsona batek beste bat hiltea euria egitearen parekoa dok. Hildakoak baino hilago zagoze zuek, askoz be hilago, alajainkoa!

– Ez zakiagu ziur hilketa bat izan den ere. Akaso bere burua hil dik gizon horrek. Edo akaso beste norbaitek hil dik, eta ez Goizederrek. Eta Goizederrek hil badu ere, litekeena duk bere burua defenditzeko hil izana, gizona Goizeder bortxatzen hasi delako. Guk ez zakiagu ezer. Eta nik ez zaukaat batere gogorik orain pikoletoei esplikazioak ematen hasteko. Nola azalduko diet ba zertan nabilen, paraje hauetan eta itxura honekin, hire ondoan, lana eta etxea utzita, bidez bide baina ibilbide jakinik gabe, oinez beti, Gorbeiapeko sagasti baterantz? Eta ni baino askoz ere okerrago hago hi inori ezer azaltzeko. Zer uste duk egingo dutela guardia zibilek hik gerra aurreko euskal olerkaria haizela esaten badiek, gerra garaian euskarazko lehen egunkariaren bultzatzaile suharra eta Euzko Gudarosteko in-

tendentzia komandantea, 1937ko ekainean faxistek fusilatua eta 60 urte geroago bat-batean Jaungoikoaren graziaz berpiztua? Barre egingo dutela uste duk? Ez al dituk gogoan fusilatu hindutenak? Haien oinordekoak dituk hauek azken batean!

– Tira, hori egia dok, bai –aitortu zidan burumakur Lauaxetak–. Nolanahi be, gitxienez herrira jaitsi beharko geunkek, han zer dinoen jakiteko.

Leitzara jaitsi ginen. «Ez ezazu sekula erabakirik hartu gogoa sutan izan ezean», zioen Margak aurreneko gutunean, eta ez zen hain beroa nik une hartan Lauaxetari kontra egiteko nuen gogoa. «Azken batean», esan nuen neure artean, «berriro ere nora jo ez dakidala nagok, eta bien bitartean ondo etorriko zaiguk pixka baterako zibilizazio deitzen den horretara jaistea, espaloiak zapaltzera.»

Basoan zehar jaitsi eta bidearen azken zatia *Plazaola, Frankiko Trena* edo *Tren Txiki* esaten zioten trenaren bide zaharrean egin genuen, tunel txiki batzuk ere pasatuz Erasote auzoan. Herritik gertu geundela, gu genbiltzan estratatik

Guardia Zibilaren lanroberrak ikusi genituen errepide nagusian gora Uitziko mendaterantz, eta pixka bat geroxeago helikoptero ilun bat zeruan.

– Hara hor «guda-gotzon baltzak», Estepan! –esan nion Lauaxetari, helikopteroei begira–. Edo, tira, berde ilunak bai gutxienez. Guda-gotzon txapelokerrak azken beltzean.

Lauaxetak irri egin zuen. Berak aspaldi idatzitako poema zaharretako metaforek oraindik ere bizirik dirautela egiaztatzen duen idazlearena zen irri hura.

Tolosara eta Lizartzara baino narrasago heldu zen Lauaxeta Leitzara. Neu ere aurreko egunetan baino pitin bat narrasago nengoen, baina alde handirik gabe. Ostatu batera sartzeko puntuan ginela, Patziku Perurena idazlea ikusi genuen autoan pasatzen. Adiskidea nuen, hainbat elkarrizketa, liburu aurkezpen eta gisakoetan elkarrekin egonak ginen-eta. Besoa altxatu nuen diosal egiteko, baina Patzikuk, begiak errepidean iltzatuak nonbait, ez ninduen ikusi ere egin.

– Ezagutu al duk hori? –galdetu nion Lauaxetari.

– Patziku Perurena idazlea, ez da halan? Orixezale amorratua, Goizuetan jaioa baina Leitzan bizi dana.

– Bikain, Estepan, bikain! Hi haiz hi izatekoa!

Ontzi-puntan soinutsik

Artean eguerdia ere ez zen arren, ostatuan telebista piztuta zegoen. Hego Amerikan grabatutako foiletoi merke eta makal horietako bat ari ziren ematen. Telebistari jaramonik egin gabe, patxadaz gosaldu genuen Lauaxetak eta biok, kafesne bana eta hiru kruasan bion artean. Gosaltzen ari ginela, bi gizonek ekarri zuten Uitziko hilketaren berria ostatura. Zerbitzariak telebista itzali eta irratia piztu zuen. Minutu gutxiren buruan Uitziko mendatean ikusi genuen gorpua Iruñeko exekutibo batena zela jakin genuen. Zalantzak bazituen ere, Guardia Zibilak ez omen zuen uste Uitziko hilketa ETAren atentatua zenik.

– Kontuak kontu, aitzakia ona ditek orain berdedun horiek muturra toki guztietan sartzeko –komentatu zuen zerbitzariak irratiko esatariak beste albiste bati heldu zionean.

– Bestela ere, aitzakia behar handirik ez ditek izaten –erantzun zion berria ekarri zuten bezeroetako batek.

Bagenekien, beraz, jakin beharreko guztia, edo jakin genezakeen guztia behintzat. Alferrik geunden jada Leitzan. Eta betiko arazoaren aurrean nengoen berriro: ez nekien nora jo.

– Tira, eta orain zer? –galdetu nion Lauaxetari.

– Hik mendira itzuli gurako dok, noski.

– Jakina.

– Hortaz, ardura ez bajak, parke eolikora joango gozak. Haize-errota horietako bat gertutik ikusteko gogoa jaukaat, eta orain hain hurrean daukoguzanez...

– Ez dituk errotak, Estepan, ez ditek ezer ehotzen. Aerosorgailuak dituk.

– Haizea ehotzen juek, haizea eho, gizakiaren probetxurako.

– Bai, haizea eho, haizea eho... Oso poetikoa! Haizea eho eta mendiak izorratu zerri gizen nazkagarri batzuen patrikak betetzeko.

– Energia beharra jagok eta eolikoa energiarik garbienetako bat dok. Prest hago argindar barik biziteko? Zer gura dok ba hik, leize-zuloetara bihurtu ala?

«Betiko eztabaida», esan nuen neure artean, eta, jakina, bete-betean asmatu nuen. Lauaxetak aurrerapen teknologikoaren eta garapen ekonomikoaren abantailak defenditu zituen eta nik Gamesa Eólica, Eólicas de Euskadi, Iberdrola, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta enparauen ustelkeria salatu, neoliberalismo basatiaren hazkundea lehenbailehen moztu beharra arrazoitu eta gertutasunean eta berdintasunean oinarritutako ekonomia apal eta gizatiarrago bat aldarrikatu.

Berriketa antzu haiek argi utzi zuten gauza bakarra egun hartan Leitzako parke eolikora igoko ginela izan zen, Aritz eta Zuparrobi mendietara, aerosorgailuak bertatik bertara ikusita nolakoak diren jakitera. Nik ere urrutitik baino ez nituen ikusiak ordura artean.

Gorantz abiatu aurretik, ordu laurden inguru eman zuen Lauaxetak ostatuko komunean, garbiketa eta bizar-mozketa lanetan. Nik bitartean, baxoerdi pare bat hartu eta ostatuko *Diario de Navarra*-ko gurutzegrama egin nuen. Guztia osatzeko hiru hitzen faltan geratu nintzen.

Manuel Lasarteren «bixki-lagunari» –herritarrek haren omenez jarritako bustoari– ikustalditxo bat egin ondoren, ibilaldi ederra egin genuen Leitzatik Aritz eta Zuparrobira Santa Krutz baselizatik barrena. Aritzera heldu ginelarik, haietako bati ondo-ondotik behetik gora begira jarri eta gertutik ikusita ere aerosorgailuak ederrak zirela esan zuen Lauaxetak.

– Ez duk arazo estetiko bat –azaldu nion–. Kontua duk mendia pista narrasez, makinaz eta tramankuluz bete eta industrializatzen ari direla etengabe. Eta ez duk mendi bakar baten edo gutxi batzuen kontua. Leku askotan egin nahi ditiztek honelako parkeak, ez energia beharrari erantzuteko, negozioa egiteko baizik. Ez ditek planteatzen zenbat energia beharko genukeen ondo eta lasai bizi ahal izateko. Ez ditek planteatzen energia hori kontsumitzailearengandik gertuago egon daitezkeen instalakuntza txikiagoekin lortzeko aukera, hori ez litzatekeelako negozioa izango. Dena aurrera egitea duk, eta zenbat eta handiago hobe beti, dirua etengabe mugitzeko sorgin-gurpil zoro zentzugabe batean. Ener-

gia gehiago, kontsumo handiagoa, zarrastelkeria handiagoa, eta segi horrelaxe bazterra jo arte... Ez duk arazo estetiko bat, Estepan.

– Baina Europa bide horretatik baldin badabil Euskal Herriak be bide horretatik ibili beharra jaukak derrigor, ezin jok Europatik kanpora geratu, aurrean ibilten saiatu behar jok, atzean geratzea dana galtzea izango litzatekek.

Gauzak benetan konpontzeko, dena errotik irauli eta aldatu beharra zegoela pentsatu nuen, Euskal Herria, Europa eta mundu osoa; gizarteeredu berri baten premia zegoela, gizadi berri batena. Baina ez nuen hori guztia Lauaxetari taxuz eta konbentzimenduz azaltzeko gogorik eta kemenik. Nire nagitasuna indartu egin zuen Fernando Pessoak José Saramagoren *O ano da morte de Ricardo Reis* nobelan esaten dituen hitz batzuk oroitzeak: «Hildako bat, definizioz, ultra-atzerakoia da, ezin ditu ordenaren aldaketak eraman.» Neuk ere ordenaren funtsezko aldaketa sakon bat bene-benetan nahiko ote nukeen galdetu nion neure buruari eta ez nuen garbi eta zintzo erantzuten asmatu.

– Ondo zagok, Sancho Panza jauna –etsi nuen beraz–, arrazoia duk. Ez dituk erraldoi zantarrak aurrean ditugun hauek, gizakiaren ongizateari eta Euskal Herriaren aberastasunari mesede egiten dioten haize-errota politak baizik, bolutxo zuri maitagarriak. Ez ditzagun, beraz, hauei ausikika hortzak debaldetan kraska!

Aerosorgailuz aerosorgailu egin genuen aurrera. Aerosorgailuen kanpoaldeko pareta kurbatu zurietan jendeak utzitako idatzizko arrastoak zeuden: ETAren aldeko zein aurkako aldarrikapenak, maitasun aitormenak, lizunkeria gordinak... Niri, ordea, azpian Marga izenez sinaturiko idazki batek geldiarazi zizkidan urratsak eta baita iaia bihotzaren taupadak ere. Letra larriz idatzia zegoen:

> Kaixo, Julen:
>
> Nahi duzunean etorri. Itsasoari begira egongo naiz, begiak ortzimugan galduta, eta kontatzeko zerbait izango dudala agintzen dizut.
>
> MARGA

– Zer ikusi dok hor hain harrigarria? –galdetu zidan Lauaxetak, ni aerosorgailuaren aurrean paralizatuta ikusirik.

Idazkia seinalatu nion.

– Hi haiz hor aitatzen dan Julen hori?

– Ez zakiat, Estepan, ez zakiat... Baina kasu egingo zioat badaezpada ere. Ideia bikaina duk! Itsasertzera joango gaituk!

– Oinez?

– Jakina. Ez zagok presarik.

Alkandorako sakelatik atera eta aerosorgailuaren ondoan utzi nituen bezperan Ulizarko buzoian jasotako liliak. Lehortzen eta zimeltzen hasita zeuden.

Ezkurrako mendaterantz jaisten ari ginela, bost neska-mutilekin egin genuen topo bidean. Itxurari erreparatuta, ezagun zuten ez zirela ez baserritarrak eta ez mendizaleak, ez behintzat ohiko mendizale tipikoak; perretxiko biltzaileak edo ehiztariak ez zirela ere agerian zegoen. Txurroetan bildutako txima luzeak zituen mutiletako batek, leotardo tankerako galtza elastiko beltzak

zituzten jantziak, neska zein mutil, bizpahiruk... Okupa itxura zuten, nolabait esateko.

Normalena elkarri diosal egin eta nork bere bidean aurrera jarraitzea izango zen, baina Lauaxeta, bide zuzenaren inguruko zalantzak aitzakiatzat hartuta, haiekin solasean lotu zen. Parke eoliko handien aurkako mendi martxa eratzeko asmoa zutela azaldu ziguten, eta martxa hartarako ibilbidea prestatzen ari zirela. Lauaxeta saiatu zen solasaldia luzatzen, baina gazte haiek, Lauaxetaren itxurari eta jakinminari susmagarri iritzita seguru askorik, ez zuten gurekin berriketan geratzeko gogo handirik erakutsi.

– Ez al zaik pozgarria iruditzen horrelako gazte jendea ezagutzea? –galdetu nion Lauaxetari, gazteak agurtu eta berriro ere Ezkurrako mendaterantz jaisten ari ginela. Burlaizez egin nion galdera, ziur bainintzen gazte haien jokabidea ez zuela oso gustukoa.

– Pozgarria? –galdetu zidan, serio–. Zergaitik?

– Gazte arduratsuak ikusi ditugulako, lurraz kezkatzen direnak, lurraren alde borrokatzen direnak. –Antton Valverderen doinua lagun harturik, Lauaxetaren poema bateko bi lerro errezita-

tu nituen–: «Gazte argi orreik, eutsi lur amari! / bera bazin onik eztauko ludiak.»

– Tira, tira, Julen, ez eizak gauzak euren onetik atara –arranguratu zen–. Ondotxo dakik hik aberriaz ari nintzala poema hartan. Pozik batere ez, niri pena emoten eustak gazte horreen burubideak. Indarrak sakabanatu eta alferrik galdu egiten dozak horrela jokatuta. Gudan bat egin geneuan abertzale guztiok, eta sozialista, komunista eta anarkistakaz be batu gintzuazan, Erkala edo Errepublika defenditzeko. Gaur, aldiz, nor berean tematuta zabilze guztiok, haserretuta eta zatituta, elkarren etsai bihurtuta. Aberriaren askatasun deunak izan behar jok gaztearen aurreneko kezka, eusko gazteria batuaren xedea. Gainerakoan, gureak egin jok. Bestelako eztabaiden garaia be iritsiko dok aberri askea dogunean. Baina aberria dok lehena.

– Hodei ilunak zatozak –esan nuen nik, zeruari begira–. Uste diat iluntzea baino lehen euria izango dugula.

Baso sarri eta itxian zehar Ezkurrako mendatetik Goizuetarantz gindoazelarik, gero eta ilunago ikusten eta gero eta itogarriago sentitzen genuen zeru-sabaia, geuregandik gero eta gertuago, gain-gainean, ia-ia buruarekin ukitzeko moduan. Ez zegoen meteorologian aditu handia izan beharrik aurki euriaren eskuek igurtziko gintuztela igartzeko. Euria hasi baino lehentxeago, Loitzate mendiaren hego-mendebaldeko mazela batean, Zumarresta errekaren ondoan, borda zaharkitu batean babestu ginen Lauaxeta eta biok, eta luzaz egon ginen hantxe, paraje guztiz bakarti hartan, geldirik eta isilik, atetik zehar euriaren zirri-zarra etengabeak baso lehendik ere guztiz hezea nola mela-mela eginda uzten zuen begira. Mundutik urrun, oso urrun, guztiz aparte.

Pena eman zidan Goizeder gu biokin ez izateak. Bezperan ezagutu genuen arren, aspaldiko lagun estimatua genuela iruditzen zitzaidan, gurekin behar genuena. Familiakoa. Gure Goizeder.

– Ez al dik pena ematen Goizeder berriro ez dugula ikusiko pentsatzeak? –galdetu nion halako batean Lauaxetari.

Pentsakor geratu zen olerkaria. Sakon hartu zuen arnasa eta serio mintzatu zen.

– Emakume polita zuan, bai, izen ederrekoa eta euskalduna, baina narrasa eta lotsagabea, gaizkilea eta, hori ziur esaterik ez dagoen arren, hiltzailea be bai akaso... Pena handia dok emakume batek jokabide donge horreek izatea.

– Ez zuan Emakume Abertzale Batzako kide izateko duin, ezta?

– Errespetu falta handia izango litzatekek Goizeder emakume hareekaz parekatzea.

Bere antzezlan irri-eragingarri bateko pertsonaia baten hitzak gogorarazi niezazkiokeen Lauaxetari une hartan, maltzur eta bidegabeki –testuingurutik kanpo, modu teknikoan esateko–, eta galdetu ea zer neurritaraino zegoen egilea pertsonaia harekin ados: «Artatxori batek buru geiago dauko gonadun pilosopa batek baño.» Eta, behin hari horretatik tiraka hasiz gero, ez zatekeen nekeza izango beste kontu batzuetara ere jotzea. Langileei buruzko bere ikuspegira, adibidez: «Langilliak bere ugazabagan ikusi biar dau Jaungoikuak bere ordez ipiñi dabena.» Bere abertzaletasun sabindarregiaren etni-

zismo itsuegira bestela: «Kanpoko zorrizto, lotsabako, gosekil orreik ona etorten dira.» Edota Mussoliniren indarrak sentiarazten zion lilurara: «Gasteri sendua, euki gura badozu, begi-aurrian guda bat jarri egijozu. Gari ta burni-itzak Mussoliniren itzak. ¡Entzun gura neukez entzun geure aberri onetan!» Baina, Lauaxetaren atzerakoitasun jeltzaleari 60 urteko tirakada emateko indarrik ez nuela iritzita, kontu horiek beste baterako utzi eta isilean euriari begira geratzea hobetsi nuen.

Oso bestelako kontuetara lerratu zitzaidan pentsamendua. Hilerrietako hilkutxen barruan lurperatutako hilotzak ekarri nituen gogora, edozein biziren hezurren ikara eragingo lukeen lur buztintsuaren azpiko hezetasuna gozoro berenganatzen. Lauaxetaren poema bateko hitzak etorri zitzaizkidan burura –testuingurutik kanpo horiek ere, beste bat baitzen poemaren gai nagusia–, Antton Valverdek jarri zien musikaz lagunduta: «Antxe makur zaite, oi buru neurea, / geure lur amaren besarte gozoan!». Horretarakoxe gogoa nuen, hain zuzen ere, bordako atetik euriari begira. «Angiozarko hilerrian ere euria

ariko dik orain», pentsatu nuen ustekabean. Aste batzuk aurrerago han izandako ondoezaz oroitu nintzen, eta sarrerako bi ate beltzetako hitzez: «Il nintzan eta bizi naiz.»

Ate ondoan egonaldi luzea egin ondoren, atertzen ez zuela ikusita, gaua borda hartantxe ematea erabaki genuen Lauaxetak eta biok. Sua egiterik ez genuenez, oso goiz zakuratu ginen, ilundu orduko, bizkar-zorroan genuenetik zerbait jan eta zahatoan geratzen zen ardo hondarra edan ondoren.

– Argi zagok ez naizela hik bilatzen huen gidaria –komentatu nion Lauaxetari, ilunpean nor bere zakuan sartuta lo egiteko prestatuta geundela–. Amorragarria irudituko zaik honetarako berpiztu haizela pentsatzea, ezta?

– Egia esanda, horixe pentsetan ari nintzuan oraintxe puntuan. Honetarako berpiztu ete naz?

– Non egon nahiko huke ba?

– Ez jakiat neuk be oso zehatz. Hiriren baten egon gura neukek, baina ez jakiat oso ondo zertan. Gasteizen akaso, Jaurlaritzako politikariakaz

bilduta, aberriaren aldeko zereginak eztabaidetan eta erabakiak hartzen; Euskaltzaindiko edo Euskal Idazleen Elkarteko bilera baten bestela; edo antzoki baten be egon neitekeala uste juat, ospe handiko euskarazko ekitaldi kultural batera gonbidatuta... Hire ordez *Egunkaria*-ko erredakzioan behar egitea be ez litzatekek txarrena izango, ez horixe! Baina batetik ezinezkoak dozak aukera guztiok, eta bestetik neuk be ez jakiat zehazki non egon gura neukeen benetan.

– Drama latza izan behar dik, bai: bat-batean berpiztu baina zer arraiotarako berpiztu haizen aztarrenik gabe...

– Barruak esaten eustak higaz egon behar dodala, hi hazela aldi berri honetako nire gidaria, nire laguna. Baina ez jakiat zehazki zergaitik. Ezin juat ulertu. Eta horrek artegatu eta ernegatu egiten najok.

– Lasai hartzea duk onena.

– Bai. Horixe esaten eutsaat neure buruari, baina ez dok samurra.

– Neuk ere lasai hartzen diat.

– Hik be lasai hartu? Zer hartzen dok hik lasai? Zer esan gura dok? Hala gurago badok, bihar bertan itxiko haut bakarrik.

– Ez, ez duk hori kontua, oso estimu handian diat hire konpainia. Benetan.

– Hortaz?

– Askotan pentsatzen diat hirekin egon beharrean Lizardirekin egon beharko nukeela nik, ez dakidala zer arraiogatik nagoen hirekin eta ez Lizardirekin.

– Hara bestea! Lizardigaz gurago beraz.

– Hasieratik esan nian, elkar ezagutu genuen lehendabiziko egunean. Ez diat zertan ezkutaturik. Nik aspaldidanik izan ditiat lagun Lizardiren poemak, gazte-gaztetandik, batez ere mendian nenbilela. Baditek zerbait, ez zakiat zer, barrubarruraino sartu izan zaizkidak beti, neure anaia batek idatziak balira bezala. Hire poema batzuk ere izan ditiat batzuetan buruan, Antton Valverdek hire lanekin osatu zuen diskokoak batik bat, baina Lizardi hunkidura-iturri oparoagoa izan diat beti. Eta ez duk nire kasua soilik. Esate baterako, *Egunkaria*-rentzat ere hi baino garrantzi handiagokoa duk Lizardi. Hire heriotzarenaren

60. urteurrenekoa baino hamalau hilabete lehenago, 1996ko apirilean, Lizardiren jaiotzaren lehen mendeurrenari buruzko erreportajea argitaratu genian. Gogoan zaukaat: *Lizardimin* zian izenburua eta zortzi orrialdekoa zuan, hiri buruzko erreportajea baino hiru orrialde gehiagokoa.

– Pilota partida bat izango balitz, proportzioan, Lizardik 22 eta 13 edo 22 eta 14 irabaziko eustaan, beraz, gutxi gorabehera.

– Horixe bera. Horrelaxe dituk kontuak.

– Eta ondo jagok horrelantxe izatea, eta baita hik niri horrelantxe adierazotea be. Nolanahi be, kontuak kontu eta Lizardiminak Lizardimin, Lizardirik ezean nigaz konformatu beharko dok, beste erremedio barik.

– Bai, halaxe duk. Elkarrekin konformatu beharra zaukaagu biok ere. Ondo lo egin, Estepan.

– Baita hik be, Julen, ondo lo egin.

Eguna argitu orduko irten ginen zakutik biharamunean. Esne kondentsatua eta gaileta batzuk jan genituen, bordatik irten gabe, kanpoan euria ari baitzuen artean ere. Eguraldi harekin onena

Goizuetara jaistea genuela zioen Lauaxetak, baina nik aurrera jarraitzea erabaki nuen. Elamatik barrena Artikutza ez genuela oso urruti esan nion, eta atertzen ez bazuen han gelditu ahal izango ginela.

Bidean hogei bat minutu baino ez generamala, borda baten atarian artzain zahar batekin egin genuen topo. Ez zegoen neu baino askoz txukunago gizona: arropa zahar zarpailduak, bizkarra euritik babesteko zaku zahar ireki bat burutik behera botea, hortz batzuen falta agerian, egun batzuetako bizar zuri latza...

– Sartu borda barrura nahi baduzue –eskaini zigun abegikor–. Ez dago mendirako eguraldirik.

Estimatu genion eskaintza. Borda barruan Lauaxetak betaurrekoak erantzi zituen, zapi txiki batekin igurtzi eta lehortzeko.

– Ardoa nahi al duzue? –eskaini zigun artzain zaharrak, bi litroko Kas Limón botila plastikozkoa hartuz apal batetik; litro erdirik ez zen falta botila amaitzeko–. Tira, ez dago asko. Barrua pixka bat berotzeko lain.

Trago bana egin eta gazta puska bana jan genuen. Eratsungo baserri batekoa zela esan zigun

artzainak; Julian Retegi pilotari handiaren jaioterrikoa beraz.

– Lau bat orduko bidea daukat hemendik etxeraino oinez eta ez naiz egunero joaten. Gehienetan bordan geratzen naiz lotan.

Atertzen ez zuela ikusita, Goizuetara jaistea proposatu nion Lauaxetari, eta hark, aurretik ere pentsatzekoa zenez, ez zidan ezetzik esan. Artzainak azaldu zigun nondik genuen biderik laburrena.

– Zergaitik ez haz artzain horregaz geratu? –galdetu zidan, bidean abiatuak ginela, Lauaxetak–. Horrek gustura onartuko hinduke bere ondoan. Mendian batetik bestera noraezean ibili barik, apal-apal bizi ahal izango hintzateke borda horretan, mundutik aparte. Koherenteago izango litzatekek, nire iritziz.

– Ez zakiat. Beharbada arrazoia duk, baina ezin izango nikek bizimodu horretara ohitu.

– Ezin dok ordea esan, Lizardik legez, «beeko bear goriak» haroanik, behekoaz be etsita hago eta. Euren beharretan etsipenetik baino ezin abiatu ei diran egungo poeta eta artista ustez moderno horreen antzekoa haz hi azken baten.

– Mesedez, ez nazak *Egunkaria*-rako elkarrizketatzen nuen jendaila horren maila berean jar –arranguratu nintzaion.

– Hareen askoz be antz handiagoa dok ikusi barri dogun artzainarena baino.

– Ez duk egia! Nik, gutxienez, ez diat poemarik idazten, mihiserik margotzen edo eskulturarik egiten. Munduarekin bakean bizi nauk. Baina, jakina, artzain ere ezin nauk egin orain, 40 urtetan. Zaharregia nauk horretarako.

– Hi sasoiko hago oraindino, bestela mendian batetik bestera ibilterik ez heuke izango. Hire aldean, askoz be zaharrago dok artzaina.

– Baina hori ikasia eta zaildua zagok, horretara txikitatik egina.

– Hilabete batzuk nahikoa izango heukez ikasi beharrekoak ikasteko.

Isilik eta pentsakor egin nuen bidearen tarte bat. Azkenean animatu nintzen buruan bueltaka ibilitako ideiei forma ematen.

– Inon gustura ez gaudenok bidea maite diagu –azaldu nion orduan Lauaxetari–. Edozein tokitan egonik, okerreko lekuan nagoela irudituko litzaidakek, beste nonbait egon behar nukee-

lako irudipena izango nikek, eta horregatik nahiago diat bidean egon, bidean egotea inon ez egoteko modu bat delako azken batean. Ibili dabilenari barkagarri zaiok ez dagokion lekuan egotea, dabilenari iritsi artekoa geratzen zaiok itxaropen, aitzakia eta babes. Ibiltzea bilatzea duk, eta bila dabilenari ezin zaiok aurkitu ez duena ez edukitzeagatik errietarik egin. Horregatik nabilek, Estepan, bai, horrexegatik duk.

– Horreek guztiok benetako motiboa ezkutatzearren asmatutako kontuak eta aitzakiak baino ez dozak, Julen.

– Zein da ba benetako motiboa hire ustez?

– Alferregia hazela nekazaria edo artzaina izateko. Ogibide gogorregiak dozak horreek gu biok lako eskutxurientzat.

Goizuetara helduta, plaza nagusiko ostatuan bere burua txukuntzeko aukera izan zuen Lauaxetak. Ni, aldiz, zira bustia eranztearekin konformatu nintzen. Lauaxeta ez zuen lotsatzen taberna bateko komunean soina garbitu, arropak aldatu eta bizarra kentzeak. Ni ere ez nintzen ho-

rretan lotsatuko, baina nengoen bezala egonda ere ez, horixe zen aldea. Horregatik, bezperan Leitzan egin nuen bezala, baxoerdi pare bat lagun, ostatuko *Diario de Navarra*-ko gurutze-gramari lotu nintzaion Lauaxeta komunetik itzuli bitartean. Hiru hitzen faltan geratu nintzen orduko hartan ere.

Txukundu ostean, baxoerdi bat eskatu eta egunkariak irakurtzeari ekin zion Lauaxetak, gogo handiz eta interes biziz.

– Begira zer dinoen hemen, Julen –esan zidan pixka bat geroxeago–. Lekunberriko aurrezki kutxa batean lapurreta egindako neska baten atzetik jabilzak txapelokerrak. Uitziko mendateko hilketaren egilea dala susmatzen ei juek eta, horretaz gain, aurreko egunetan Tolosan eta Zizurkilen egindako lapurretak be neska horrexek egin ebazalakoan jagozak.

– Arraioa! Erakutsi, erakutsi hori.

Neure begiekin irakurri nuen albistea.

– Ez zagok makala gure neska panpoxa, ezta? –komentatu nion irriz Lauaxetari–. A zer elementua! Txapela kentzeko modukoa!

– Miresgarria iruditen jak beraz –zapuztu zitzaidan–. Lapurreta eta hilketa gauza onak balitzaz legez. Penagarria iruditen jatak...

Polizia-auto batzuen uluek moztu zuten batbatean Lauaxetak hasitako sermoia. Aulkietatik altxa, errezelak baztertu eta leihotik begira jarrita, auto berde bat ikusi genuen plaza nagusian etengabeko jira-biran, Goizederrek bezperan Orexara eramandako auto gorria hango plazan utzi zuen bezalaxe, eta Guardia Zibilaren bost lanrober plazara orduantxe puntuan Leitzako aldetik heltzen, uluka eta argi urdin birakariak piztuta. Guardia zibil batzuk autoetatik jaitsi eta mendi aldera abiatu ziren. Beste batzuk, aldiz, plazan geratu ziren elkarren artean hizketan, etengabe biraka jarraitzen zuen autoari begira. Jauzi bizkor batean barrura sartu ondoren, autoa geldiarazi egin zuen guardia zibiletako batek.

Ostatuan sartu ziren geroxeago lau guardia zibil, metrailetak eskuan zituztela. Uste baino lasaiago nengoen hala ere, neure buruarekin harritzeraino. Galdetu zigutenean, esan genien ez genuela ikusi neskak zein aldetara egin zuen ihes, ez genekiela txoferra neska bat zenik ere, ez ge-

nuelako ikusi ere egin. Haien lanroberren uluak entzun artean ez ginela leihotik begira jarri azaldu genien, ez ginelako plazan ezer berezirik gertatzen ari zenik ohartu ere egin.

– Zergatik ez diek esan atzo Goizederrekin ibili ginela? –galdetu nion guardia zibilek alde egin eta gero Lauaxetari–. Akaso lagungarri izango zitzaiean neska harrapatzeko.

– Ez jakiat, Julen, ez jakiat. Gernikan atxilotu nindunenekoa etorri jatak burura metraileta horreek ikusi dodazanean. Berpiztu nintzanetik ez nok ezer egiteko edo inori laguntzeko gauza izan. Tristea izango litzatekek nire ekintza bakarra txapeloker erdaldun batzuei neska euskaldun bat harrapatzen laguntzea izatea.

– Eta Goizeder mutil erdalduna balitz eta bere atzetik dabiltzanak txapelgorri euskaldun jatorrak?

– Orduan seguru asko beste era batera jokatuko neukean.

– Nik ez ba, Estepan, nik ez. Ni iheslariaren alde izango nindukean berdin-berdin.

– Sikiera ETAkoa balitz! –sumindu zen–. Baina, antza denez, ezta hori be! Zoratuta zago-

ze danok! Ez juat gaurko Euskal Herri zoro hau ulertzen!

Ez zuen atertzen, goitik behera euria gogotik eta indarrez jaurtitzen jarraitzen zuen zeru ilunak. Herriko beste ostatu batzuetan baxoerdi batzuk edan ondoren, berriro ere plaza nagusikora itzuli ginen, han bazkaltzeko asmotan.

Irratiko albistegietan, Guardia Zibilak azken egunetan denak aztoraturik zituen neska gaizkilearen bila jarraitzen zuela esan zuten. Goizueta inguruko basoetan barrena omen zebiltzan haren atzetik, aurki atxilotu ahal izango zutelako itxaropenez. Eguraldi txakur harekin, Goizueta inguruko baso itxi eta hezeetan, bakarrik eta atzetik Guardia Zibila zuela, erruki izateko modukoa zen benetan Goizederren egoera. Haren aldean, ederki geunden gu, aterpe goxoan lasai bazkaltzen.

Ostatu hartatik irten gabe, karta jokoan aritu ginen bazkalondoan. Berehala ohartu nintzen pilotan zuen trebetasunaren laurdenik ez zuela Lauaxetak musean eta, neu ere batere iaioa ez

izan arren, aise hartu nuen mendean. Kartak utzi genituenean Lauaxetak egunkarien irakurketan sakondu zuen eta ni, nahiz eta ostatukoek soinurik gabe jarria zuten –diskogailuan jarritako musika entzuten baitzen aretoan–, telebistari begira geratu nintzen. Ordura artean ikusi gabea nuen beste iragarki bat ikusi nuen, telebista marka batena. Negu giroa, elurra eta haizea zegoen hiri bateko kaleetan. Gizon bat ageri zen, ibiltari, sonbreirua jantzita, aterki sendoa haizearen aurka babesteko ahaleginetan, berokia sudur puntaraino lotuta... Etxetresna denda baten parera helduta, barruko telebista batean sekulako eguzki ederra ageri zen, paisaia eder bat berotzen. Gizona begira geratu zen. Aterkia itxi, sonbreirua eta berokia erantzi eta paisaia beroari begira geratu zen, irriz, suspertu eta indarberrituta.

Egun gutxi batzuk baino ez neraman etxetik kanpora, egun gutxi batzuk baino ez, beraz, telebista lehen adinako egunerokotasunez ikusi gabe, baina hori aski zen iragarki guztiak ez ezagutzeko. Iragarki berri hark telebistatik urrundua sentiarazi ninduen, telebista egunero ikusteak

sortzen duen aberri eroso eta abegikorrean arrotz, traidore ia-ia, eta horrek, absurdua bazen ere, oroimin samur bat sentiarazi zidan, ez arrazoizgaineko erru-beldurrik gabea, emaztea eta seme-alabak abandonatuta etxetik alde egindako gizon bihozgabea banintz bezala.

Egunkarien irakurketa amaitu zuenean, begiak telebistari atxikiak nituela ohartu zen Lauaxeta. Uhartedi batzuetako irudiak ematen ari ziren, baina, telebistaren soinurik entzuten ez zenez, ez nekien zehazki nongoak ziren uharte haiek. Nolanahi ere, Goizuetatik urrun behar zuten.

– Traste horri begira geratu behar dok arratsalde osoan? –galdetu zidan–. Zozotu egingo haz, lehenaz gain.

– Zer egin daiteke Goizuetan eguraldi honekin?

– Alde egin! Ospa! Itzuliko gozak eguraldia hobetzen denean, hire bidaia ganorabakoan aurrera jarraiteko.

Ez zitzaidan ordura artean burutik pasa ere egin aukera hori.

– Goizueta munduaren azken zuloa duk. Basoa besterik ez dik inguruan, herririk batere ez. Gertuenak Leitza eta Hernani dituk, bata 20 kilometrora eta bestea 25era. Leitzara ez zagok autobusik, Hernanirako azkena, berriz, aspaldi joana duk honezkero, arratsaldeko hiruretan oso oker ez banago.

– Auto-stop egin daikeagu. Nik ez juat sekula egin, baina iruditen jatak gaurkoa egun apropo-sa dala. Ni prest nagok. Ez bagaitu inork hartzen, itxiko juagu, baina aproba eginda behintzat.

Tentagarria egin zitzaidan proposamena. «Ezin izango dik jende askok esan Lauaxetarekin batera auto-stop egiten ibili denik», esan nion neure buruari. Banuen, gainera, azken egunak mendian eman eta gero, jende artean galtzeko gogorik, eta oroitzapen onekin lotzen nituen nik Hernaniko tabernak, haietara jotzen baikenuen ia beti lankideen arteko afariak egiten genitue-nean.

Bizkar-zorroak nituen kezka nagusi. Traba bat ziren.

– Gura badok, hemen itxiko jitubaguz bizkar-zorroak –azaldu zidan Lauaxetak–, mendi ibilal-

dia jarraitera itzultzen garenerako. Arinago ibiliko gozak bitartean.

Margaren lehen gutunaz oroitu nintzen ordea: «Baina ez ezazu inongo xederik izan», zioen, besteak beste. Eta aurrerago: «Izan zaitez azeria, sar zaitez gauzetan eta arbuia ezazu garaipena.» Arrazoia zuen Margak. Ez nuen zertan kirol markarik ezarri. Ez zuen ezertarako balio bide guztia, pausoz pauso, oinez egina zela esateak. Hartutako bidea hautsi behar zenean, hautsi egin behar zen. Hausteko gogoa izanez gero behintzat, horixe zen bete beharreko baldintza bakarra.

– Ez –esan nion, erabakiaren irmotasuna agerian uzten zuen doinu seguruz, Lauaxetari–. Ez diagu loturarik behar. Ez zaukaagu Goizuetara itzuli beharrik. Geurekin eramango ditiagu bizkar-zorroak.

Lauaxetak bizkar-zorrotik ateratako aterki handi baten babesean jarri ginen bide bazterrean auto-stop egiten. Harrigarria zen Lauaxe-

tak bizkar-zorro hari ateratzen zion etekina. Denetik zeukan han barruan.

Auto gutxi zebilen, eta zebiltzan autorik gehienetako txoferrek gertuko baserri edo bordaren batera zihoazela adierazten ziguten, eskuekin egindako keinuen bidez. Ez zen erosoa egoera baina oso pozik sentitu nintzen. Erredakzioko lagunez oroitu nintzen. Han izango ziren, ez oso urruti gu geunden lekutik, 32 bat kilometrora, aterpean, mundu osoko albisteak eta argazkiak jasotzen, gai interesgarriei buruzko informazioa eta iritziak biltzen, jakitun eta adituen ahotik eta eskutik. Ez zekiten, ordea, Lauaxeta auto-stop egiten ari zela, euripean, Goizuetatik Hernanira joateko. Horretaz jakitun, guregana etorri eta argazkiak egiten zizkigutela irudikatu nuen, eta biharamuneko azalean Lauaxeta eta biok euripean auto-stop egiten agertzen ginela. «Orduan ez zian ezertarako balio izango Lauaxetaren lagun izateak», esan nuen neure artean. «Orduan Lauaxetak ez zian batere interesik izango. Honela duk interesgarria Lauaxeta, nire ondoan auto-stop egiten euripean, niretzat bakar-

bakarrik mintzatzen, niretzat bakar-bakarrik arnasa hartzen.»

Ordubete inguruen buruan, herri barrutik zetorren mutil gazte bat hurreratu zitzaigun, 20 urte pasatxokoa, zira jantzita.

– Aizue, etorriko al zarete, mesedez, nire autoari bultza egitera? –galdetu zigun–. Bateria gastatu zaiola uste dut. Abian jartzen badugu, Hernanira eramango zaituztet, neu ere haraxe noa eta.

Baietz esan genion, jakina, eta herri barrura itzuli ginen oinez, mutilarekin batera. Plazako ostatuaren parean zegoen autoa, 4L gorri zahar bat. Hernanikoa zela azaldu zigun mutilak, eta izebari josteko makina bat ekartzera etorria zela handik Goizuetara. Izebaren etxetik irtetean autoa abian jartzerik ez zuela jabetuta, Goizuetara heltzean Hernani aldera auto-stop egiten ikusi gintuela gogoratu eta guregana jotzea erabaki omen zuen, herrian ordu hartan ez baitzegoen lagun ziezaiokeen inor.

Bultza egin genion autoari eta mutilak, kostata, hainbat ahaleginen ondoren, autoaren motorra abian jartzea lortu zuen. Bizkar-zorroak auto-

aren atzealdean utzi eta barrura sartu ginen Lauaxeta eta biok ere. Hura atzealdean eta ni aurrean, mutilaren ondoan. Eseri baino lehen, *Egunkaria*-ren egun hartako alea ikusi nuen niri zegokidan aulkian. «Hara! Irarkurle bat!», pentsatu nuen, sekulako aurkikuntza bitxi eta harrigarria egin banu bezala. Esertokia libre uztearren egunkari-alea eskuetan hartu nuenean, harekin batera hiru liburu ere bazirela ohartu nintzen: Edorta Jimenezen *Baleen berbaroa,* Harkaitz Canoren *Telefono kaiolatua* eta Jokin Muñozen *Joan zaretenean*. «Hau markaz kanpokoa duk!», esan nuen neure artean. «Ez duk sinestekoa! Euskal literatura irakurtzen duen gazte bat!»

– Berriak dira liburu hauek, ezta? –galdetu nion mutilari, autoa jada errepidean aurrera Hernanirantz zihoala.

– Bai, oraintxe argitaratu berriak dira hirurak. Neuk gaur erosi ditut, eta herenegun behintzat artean liburu-dendara iritsi gabeak ziren.

– Nik ez nekien liburu hauen berri.

– Asko irakurtzen duzu?

– Tira, irakurri askorik ez, egia esan, baina nahiko gertutik jarraitzen dut euskal literatura.

– Nik Edorta Jimenez oso gustukoa dut. *Azken fusila* oso ondo dago, azken aldian irakurri dudan onenetakoa iruditu zait. Hau ere uste dut ona izango dela.

– Nik be irakurria dot *Azken fusila* –sartu zen solasaldian Lauaxeta–. Eta niri be asko gustatu jatan. Horrelako nobela gehiago behar dauz euskal literaturak!

– Nik ez dut *Azken fusila* irakurri –aitortu behar izan nuen nik–, baina Jokin Muñozen aurreneko liburua bai, *Hausturak*. Gustatu zitzaidan.

– Aurrekoak bezala, liburu berri honetan ere Erriberako gorabeherak kontatzen omen ditu Muñozek –esan zuen mutilak–. Euskal literaturan gutxiegi agertu diren parajeak dira horiek, eta horregatik erosi dut, beste ikuspegi bat izateko. Euskal Herria ez da soilik basoa eta itsasoa, euria eta elurra, baserritarra eta arrantzalea.

Harkaitz Canori buruzko goraipamenetan ere bat etorri ginen hirurok.

– Oso idazle trebea da, bai –esan zuen, sutsu, Lauaxetak–. Horrelako gazte gehiagoren premina dugu!

Ustekabean, literatur tertulia atsegin bat izan genuen, beraz, Goizuetatik Hernanira bidean.

Eguzkia sartua zen Hernanira heldu ginenerako, baina zeruak berdin-berdin jarraitzen zuen euri-jario etengabean.

– Oso entretenitua egin zait bidaia zuekin berriketan –esan zigun mutikoak–. Ez da erraza euskal literaturaz mintzatzeko solaskideak aurkitzea. Gaur gure pisuan afaria dugu fakultateko lagunok eta afalostean literaturaz mintzatuko gara. Nahi baduzue... Gonbidatuta zaudete.

Atzera jiratu nuen burua:

– Zer iruditzen zaik, Este...?

– Ondo, ondo, oso ondo –esan zuen arrapaladan Lauaxetak, niri bere izena osorik ahoskatzea eragotziz. Orduan neu ere jabetu nintzen arriskuaz. Gazte hark ondo ezagutuko zuen Lauaxeta, eta auskalo zer gerta zitekeen atzeko betau-

rrekodun xelebre hura Lauaxeta zela jabetuz gero!

– Nola duzue izena? –galdetu zigun mutilak adeitasunez.

– Ni... ni Koldo naz –esan zuen Lauaxetak.

– Ni Julen.

– Ni Mikel, Goizuetan jaioa eta Iruñean hazia... Orain Hernanin bizi banaiz ere, astean zehar behintzat.

– Euskal filologiako ikaslea al zara? –menturatu nintzen.

– Bai. Igarri egiten zait, ezta? Eta zuek?

– Tira, gu... ni... ni basozaina naiz –atera zitzaidan bat-batean, neure itxura zarpaila zuritu beharrez–. Denbora libre asko izaten dut irakurtzeko eta horregatik naiz literaturzalea.

– Ni irakaslea naz –esan zuen, serio, Lauaxetak–. Euskara irakaslea.

Afarira joan aurretik, Mikelengandik gordean, Lauaxetak afarirako bizkar-zorroan zuen gorbata janztearen egokitasunaz galdetu zidan, eta nik esan nion hobe zuela gorbata bizkar-zorroaren zokondorik ezkutuenean gordeta uztea, barrega-

rri agertuko zela bestela Mikel eta bere lagunen aurrean.

Zortzi lagun bildu ginen guztira afari hartan. Beste bost, beraz, Mikel, Lauaxeta eta hiruroz gain: Jakobe amurriarra, Arrate eta Oihane etxebarriarrak, Arantxa urruñarra eta Jean Louis heletarra. Arraioa! Zuberotar bat baizik ez genuen ments!

Koldo eta Julen izenez aurkeztu gintuen Mikelek, baina larrialdi bat izan genuen hala ere.

– Zuk Lauaxetaren antza duzu –esan zuen, Mikelek aurkezpenak egin ondoren, Arratek–. Kristorena baina! –Inguruko lagunei begiratu zien gero–: Ez al zaizue iruditzen?

Arrazoia eman zioten denek Arrateri.

– Harrigarria! –esan zuen Mikelek–. Ez dakit nola ez naizen orain artean konturatu!

– Ni, hain zuzen be, Lauaxeta naz, aberriaren eta Jaungoikoaren zerbitzurako berpiztua –esan zuen solemnitatez Lauaxetak–. Baina, jaun-andreok, ulertuko dozuen legez, hori sekretu handia da, ezin deutsozue inori esan. Barriro espetxeratu naikee, eta fusilatu be bai gero! Aberriak

eta Jaungoikoak eskertuko deutsuee diskrezinoa, ez horretaz zalantza txikerrenik be izan.

Irri eta txalo egin zuten filologogai literaturzale gazteek, eta guk lasaitu ederra hartu genuen. Une hartan damutu egin zitzaidan Lauaxetari gorbata ez janzteko esan izana, horixe baino ez zitzaion falta izan-eta.

Aukeran lehor samarra zegoen lasagna, baina oso ardo ona zuten ikasleek pisu hartan. Kafearekin batera, berriz, whiskya edan genuen, hori ere kalitatekoa. Errazegi sartzen zitzaidan niri dena zintzurretik behera.

Oso ondo pasatu genuen afari hartan. Hasieran serio antzean mintzatu ginen euskal literaturaz, azken urteotako joera arinzaleaz, poesiako liburuen urritasunaz, irakurle berrien premiaz, kritika arloko gabeziez, baina gero idazleei eta liburuei buruzko txisteak egiten hasi ginen eta azkenerako sekulako astakeriak bururatu zitzaizkigun.

Egoeraz baliatuta eta alkoholaren indarrak harrotuta, Lauaxetari buruz azken egunotan buruan bueltaka ibilitako ideia edo teoria batzuk mahairatu nituen.

– Jon Kortazarrek esana da, eta begi-bistakoa bestalde inork esan gabe ere, Lauaxetaren «Langille eraildu bati» poemaren oinarrian Federico García Lorcaren «Prendimiento de Antoñito el Camborio en el camino de Sevilla» poema dagoela. Jakinekoa da Lauaxetak miresmen handia ziola García Lorcari. Haren poemak euskaratu zituen, gutunak idatzi zizkion... Nik uste dut Lorcak ez ziola sekula kasu handirik egin Lauaxetari, ez zuela aintzat hartu ere egin bere poemen euskarazko itzulpena, ez zuela Lauaxetarekin mintzatzeko interesik txikiena ere izan Bilbora etorri zenean. Baina Lauaxetak ez zuen horregatik etsi. Lorca 1936an fusilatu zuten faxistek. Lauaxeta, berriz, 1937an atxilotu. Esaten dutenez, atxilotua zutelarik, aukera izan zuen fusilatzetik libratzeko, baina ez omen zion aukera hari heldu nahi izan. Hiltzeko ez zela sekula orduan bezain ondo prestatua izango argudiatu omen zuen. Nire teoriak dio Lauaxeta García Lorcaz maiteminduta zegoela eta, haren heriotza gogoan, gogo onez onartu zuela hark izandakoaren pareko patua, hark bezala jasotzea bekokian aintzaren muna. Maitasunez hil zen Lauaxeta, eta

ez aberriaren eta Jaungoikoaren maitasun hutsez.

– Lauaxeta homosexuala zen, beraz, zure ustez –esan zidan Arratek.

– Ez, hori ez da nire ustea. Hipotesi bat baino ez da. Edo kondaira aizun mitomaniakoa, hala esatea nahiago baduzue. Ez zen homosexuala zela esateko giro egokian bizi izan, hori argi dago. Bi andregai izan zituela ere esaten dute biografoek, Nile eta Espe, baina Polixene Trabuduak esaten du oso erakargarria izan arren ez zuela sekula andregairik izan. Kontuak kontu, ez dugu inoiz egia jakiterik izango, eta axola handirik ere ez du horrek azken batean. Baina ez al zaizue hipotesi polita iruditzen?

– Bai, bai, nobela ederra egin liteke teoria horretatik abiatuta –esan zuen Jakobek–. Edo baita film bat ere. Lorcari buruz mila nobela, film, saiakera, antzezlan eta perfomance egin da, baita kantak eta diskoak ere, haren alderdi ugari aztertuz, eta horien artean homosexualitatea nahikoa sarri. Euskaldunok, aldiz, alferrik galtzen uzten ditugu geure pertsonaia interesgarri guztiak.

– Zinemagile bati Lauaxeta homosexuala izan zitekeela iradokitzea bururatuko balitzaio, akabo! –gaineratu zuen Mikelek–. A zer iskanbila! Tira, tira, Euzko Gudarosteko komandante bat!

– Dena dela, egin zuten film bat Lauaxetari buruz, ezta? –galdetu zuen Jean Louisek.

– Bai –erantzun zion irriz Arratek–. Baina orduan Xabier Elorriagak egin zuen Lauaxetarena, eta ez zen aktorerik egokiena. Aktorerik egokiena, dudarik gabe, Koldo da. Zer iruditzen zaizu, Koldo?

– Tira, aproba egingo neuke –esan zuen Lauaxetak–. Zuek dinozuen adinako antza baldin badaukot eta ederto ordaintzen badabe...

Ez zirudien nik esandakoen erruz oso mindua.

Pentsatzekoa zenez, kantuan ere aritu ginen, Arantxa eta Jean Louis bikain, gainerako filologogaiak ahal zen moduan eta Lauaxeta eta biok oso-oso gaizki, Lauaxeta kantuak ezagutzen ez zituelako, ni mozkor-mozkor eginda nengoelako.

Bertsotan ere ausartu ginen batzuk. Etxebarriako bi neskatoak ziren nagusi horretan, dudarik gabe.

Goizaldeko hirurak inguruan, despedidako tragoa kalean hartzera jaitsi eta Bodega tabernan sartu ginen. Total eginda nengoen ordurako, ez nintzen lagunekin berriketan jarraitzeko gauza, eta bazter batean eserita geratu nintzen, «Ardoa eta gizona» kantatzen; «Ardoa eta gizona» kantatzen ahalegintzen, hobeto esanda, ezin bainituen hitzak gogoratu. Bazter hartatik *Egunkaria*-ko bi kazetari ikusi nituen barra ondoan. Haiengana inguratzeko kemenik ez nuenez, besoekin keinuak egin nizkien, baina haiek ez ninduten ikusi. Etsita, «Ardoa eta gizona» kantatzen ahalegindu nintzen berriro ere, harik eta loak hartu ninduen arte.

Hildako bati ez dagokion jokabidea izan zuen orduan Lauaxetak. Pentsatzekoa baita hildakoek lasaiak izan behar dutela, serioak eta neurritsuak, José Saramagok Fernando Pessoari *O ano da morte de Ricardo Reis* nobelan esanarazi zion bezala. Pentsatzekoa baita hildakoek eroapen eta egonarri handikoak izan behar dutela, eta ez

dituela inoiz mendeku grinak menpean hartu behar. Baina gau hartan Lauaxetak traizionatu egin ninduen.

Jakinik nik itsasertzera jo nahi nuela berak «bidaia ganorabako» deitzen zuen hartan, eta jakinik Arantxa eta Jean Louis gau hartan autoan Urruñaraino joatekoak zirela, gure mendi ibilaldia bat-batean laburtzeko aukeraz jabetu eta, ni lozorro sakonean murgilduta nengoela baliatuta, Arantxari eta Jean Louisi gu Donostiaraino eramateko eskatu zien, han lagun bat bisitatzeko aukera izango genuela-eta. Arantxak eta Jean Louisek ez zuten ezetzik esan, nahiz eta gu autoan sartzeak ekarriko zuen ondorioetako bat aurretik susmatzeko modukoa izan: atzeko eserlekua txerri eginda utzi nuen botaka egin eta gero.

Horregatik ez kezkatzeko esan zioten, hala ere, Arantxak eta Jean Louisek Lauaxetari, garbituko zutela patxadaz biharamunean. Lauaxetak hala eskatuta, Donostiako kairaino eraman gintuzten, eta han jaitsi ginen autotik, goizaldeko laurak irian. Ateri zegoen. Lauaxetak kontatuta dakit hori guztia, jakina, ni ez bainintzen orduan

ezertaz ohartu, edo ezertaz ohartu banintzen ez bainintzen behintzat geroragoan ezertaz oroitu.

Itsasoari begira geratu zen lipar batez Lauaxeta. Bizitza honek itsasoa dirudiela pentsatu zuen, behiala idatzitakoa berretsiz. Itsasoari buruz poema bat baino gehiago idatzi zuela ekarri zuen gogora, baina itsasoaren narru nabarra pantera batenarekin alderatuz idatzitako lerroen ausardia zela, XX. mendearen amaierako idazle eta kritikarien begietan behintzat, poema haien alderdirik goraipagarriena. Pantera batena zirudien, bai, begien aurrean zuen itsasoaren narru nabarrak. Pena sentitu zuen aurreko bizitzan idatzi gabe utzitako poesia guztiagatik. Bazekien horrek ez zuela erremediorik, berpiztu ondoko bizitza berrian guztiz ezindua sentitzen baitzen poesiarako. Poesiak, itxura zenez, bere unea zuen; gero kito.

Kontxako badia inguratzen zuen errepidetik polizia-auto batzuen uluak heldu ziren gu geunden lekuraino. Haien argi urdin birakariak ere ikusi ahal izan zituen Lauaxetak, Kontxako badia ondoko errepidean San Martin kalerantz ziztu bizian. Gerrako zauritu bat banintz bezala eraman

ninduen gero, kontu handiz eta neke handiagoz, Lauaxeta komandanteak pentsio batera. Gela bat hartu zuen han biontzat, eta, neu ezertaz ohartu gabe, biluztu eta ohean sartu ninduen.

Leihotik zehar sartutako eguzki printzek esnatu ninduten eguartean. Bakarrik nengoen gelan, buruko minez eta non nengoen aztarrenik gabe. Bezperako gorabeherak ekarri nituen gogora. Mikelen etxeko afalorduko eta afalosteko kontuak oroitzen nituen, banekien gero Bodega tabernan izan ginela ere, baina ametsetakoekin nahasten zitzaizkidan Bodegako irudi lauso eta nahasiak. Geroagoko konturik ezin nuen batere oroitu. Manuel Lasartek «Basarri bateko mutilzar edarizale bati bere auzotar baten erreguz» jarritako bertsoetako bat etorri zitzaidan gogora, auskalo nondik heldutako errieta edo zigor bat balitz bezala: «Zorioneko edariak / ditu indar ugariak, / ez dira beti ondo konpontzen / gizona ta biak. / Nasten ditu memoriak, / gero nunai aberiak, / len ere orrek bultzata asko / dira eroriak.»

Ohean agondurik, bizkar-zorroak ikusi nituen. Zein bere ohearen ondoan, han ziren biak, Lauaxetarena eta nirea, eta horrek lasaitu egin ninduen.

Ohetik jaiki eta leihora inguratu nintzen, larrugorritan. Bezperan ez bezala, zerua oskarbi zegoen. Kaia, itsasoa eta Santa Klara uhartea nituen begien aurrean, arrantzontzi gorri handi eta zahar bat orduantxe kaian sartzen, kaio batzuk hegaka. «Hau Donostia duk», esan nion neure buruari. «Nola heldu naiz, ordea, hona? Non dago Lauaxeta?»

Gela barrura begiratu nuen. Ordura artean ikusi gabeak nituen paper batzuk zeuden neure oheko gaumahaian. Hartu nituen esku artean. Bi paper ziren. Paperetako bat Lauaxetak utzitako ohartxoa zen. Mezetara joana zela eta eguerdirako itzuliko zela zioen, eta bere oharraren ondoan zegoen beste papera ate ondoan aurkitu zuela, norbaitek ate azpitik sartu balu bezala. Ondoko paper hura irakurri nuen:

Kaixo, Julen:

Portu zaharra eta, uhainen artean, portua baino zaharragoa dirudien bafora portura arribatzen. Aidean hiruzpalau kaio biraka.

Zeu zara, bidaia luzearen ondoren portura sartzen ari den bafora, zeu zara uhainak, zeu zara portua, zeu zara hirulau kaio horietarik bakoitza.

Eta nasan zu zarena leku desberdinetatik soegiten duena zara. Eta zutaz erreparatzen ez duena ere bazara.

Eta agian, Julen, ez zara zeure baitakoa.

MARGA

P.D.: Ikusi nahi al dizkidazu, Julen?

Artean papera eskuetan nuela sartu zen gelan Lauaxeta. Aztoratu egin zuen ni larrugorritan ikusteak.

– Parkatu –desenkusatu eta lurrera begira geratu zen, eskuak begien aurrean jarrita.

– Ez kezkatu, motel! –esan nion, baina Lauaxetak begiak altxatu gabe jarraitzen zuen–. Lasai egon hadi. Dutxan sartuko nauk. Oraintxe bertan ezkutatuko nauk hire begien bistatik.

Zakila handitzen hasia nuen dutxan sartu nintzenerako eta dutxan idiarena jo nuen, nik

Margari titiak miazten nizkiola eta Lauaxetak niri zakila miazten zidala irudikatuz.

Pentsioko jantokian bazkaldu genuen. Lauaxetaren atzealdean telebista bat zegoen, piztua baina soinurik gabe. Frantziako kate bat zuten jarria, bezeria ere frantsesa baitzen nagusiki. Normala zen, beraz, ezagutzen ez nituen iragarkiak ikustea. Iragarki batean etxe baten eraikuntzan lanean ari ziren neska gazte batzuk ikusten ziren, aldameneko kaletik pasatzen zen mutil lerden bati sexu-irrikaz begira. Beste batean, kale batean exekutibo pila bat ikusten zen, gizonezkoak nahiz emakumezkoak, guztiak dotore jantzita eta karteratxo bana aldean, alde batetik bestera lasterka eta elkar trebetasun handiz zangotrabatzen, horretan futbolarien neurriko teknika bikaina zutela erakutsiz. Ez nintzen iragarki haiek zer iragartzen zuten jabetu.

– Hobe juagu lekuak trukatzea –proposatu zidan Lauaxetak–. Bestela ezingo gozak mintzatu, telebistarentzat baino ez dok izango begirik eta belarririk.

Halaxe egin genuen. Bezperako ibili aldrebesen berri eman zidan Lauaxetak. Hernanitik Donostiara nola heldu ginen azaldu zidan.

– Ederki baliatu haiz nire mozkorraldiaz, ezta? –esan nion, errieta eginez bezala, baina arin, haserre handirik erakutsi gabe–. Nork esan zian hiri nik Donostiara etorri nahi nuela?

– Itsasertzera iritsi gura heuan, ez da halan? Tira, aukeran Donostia baino gurago izango neuan nik Bilbo, baina neukazan aukeren artean hauxe iruditu jataan egokiena. Arribatu gozak portura. Hemen lehorra amaitu eta itsasoa hasten dok. –Bere poema baten zatia errezitatu zuen, solemnitatez–: «Ontzi-puntan soñutzik. / Axe oron mosubai bijotzak zabaldurik. / Ibilladi au ezta bixitzan amaituko; / Bein ontziratu danik barriz ezta itzuliko.»

– Autoz heldu gaituk ordea. Nik itsasertzeraino oinez heltzeko asmoa nian, Goizuetatik abiatuta ezin bazen Hernanitik bertatik, Mikelen etxean lasai lo egin eta gero. Eta ez nian buruan Donostiara etortzea, Hendaiara joatea baizik, Santa Anako muturrera, Abbadia gazteluaren ondoko lurren talaiatik ikusteko itsasoa. Leku apar-

ta duk. Sorkunde eta biok maiz izaten gintuan han elkarrekin.

– Baina nik ez nakian hik zer gura huen eta, erabakiak hartzeko moduan ez hengoenez, neuk hartu neuan agintea. Arantxa eta Jean Louis Urruñara joatekoak zirela jakin nebanean pentsatu neuan aukera hartaz baliatu beharra zegoela. Azken baten, ederki esanda itxi ebaan Lizardik: «Bide berriak. Bide guztiak.»

– Ez al zen mendekua izan?

– Mendekua? Zergaitik mendekua?

– Hiri buruz esan nituenengatik. Badakik, García Lorca, homosexualitatea, kontu horiek...

– Mozkor baten lerdokeriak baino ez zuazan izan. Ez neuazan aintzat hartu be egin.

– Ondo zagok –esan nion, burumakur, baina esan zidana sinetsi gabe–. Lasaitu egiten naik hori entzuteak.

– Itsasertzean gagozak –esan zidan, leihotik ikusten zen itsaso zatia seinalatuz–. Zer jagoku orain?

– Ez zakiat, Estepan, ez zakiat. Ezta aztarrenik ere. Agian hik izan beharko huke burua aurrerantzean.

– Ez heuan Hendaiara joan gura? –esan zidan irriz–. Goazen ba!

Horixe egin genuen, bizkar-zorroak hartu eta Hendaiara joan, *Topo* esaten zioten tren txiki eta apalean. Hendaiara heldu ginenerako hobeto sentitu nintzen. Suspertuta nengoen, ibiltzeko gogoz. Komeni ere bai ibiltzeko gogoa izatea, oso tarte luzea baikenuen tren geltokien gunetik Abbadia gazteluaren inguruko mendi-bideen hasieraraino. Oroitzapen historikoen aldetik ere, ez zegoen gertutasun handirik: Franco eta Hitler elkartu ziren lekutik gertu geunden eta Antoine Abbadiaren bizitoki eta behatoki astronomiko izandako etxearen inguruetaraino joan behar genuen.

Oinetakoak erantzi eta hondartzan egin genuen bidearen zati bat. Eguzkia nagusitzen hasia zenez, bazen jende pixka bat. Lauaxetak esan zidan ohitua zegoela jendea «ia soinutsik» ikusten hondartzetan, baina nire iritziz ez zen oso lasai sentitu. Zorionez, hondartzaren alderdi nudistan sartu baino lehen mendi aldeko bidea hartu genuen.

– Paraje ederrak dituk hauek –komentatu nion Lauaxetari, mendiko bidean pixka bat gora egin eta tarte batez ezkutuan geratua zitzaigun itsasoa berriro ere begien bistan izan genuenean–. Autoen eta motorren zaratarik gabe, bestondoa arintzeko eta hartu beharreko erabakiei buruz gogoeta egiteko primerakoak!

– Nik ez jaukaat ajerik –esan zidan–, hain gitxi erabakiak hartu beharrik, baina hori bada hik gura doana...

– Zer egin nahiko huke hortaz?

– Ez jakiat. Etsi juat, Julen. Bart saiatu nok neure kasa jokatzen, higaz dudan lotura arraro honetatik libre, baina jabetu nok ezin dodala, hiri lotuta nagoela, eta gustura ganera. Horretaz pentsetan aritu nok gaur goizean, hi lotan hengoala, meza entzun ostean egin dodan osteratxoan. Ez jakiat zer arraiotarako berpiztu nintzan, eta seguru askorik ez juat sekula jakiterik izango. Baina ez jatak ardura.

Itsasertzera jo genuen, tonbarrien aurreko talaiara; kondairak dioenez, jentilek Aiako Harritik Baionako katedralaren aurka jaurtitako bi harkaitz handi dira tonbarriak, jomugara heldu gabe

Hendaiako itsasertzean uharte txiki eta ikusgarri gisa geratuak. Abbadia gaztelua genuen atzean, «Zazpiak bat» aldarrikapenaren sortzailearena izandakoa; ondoan, ostera, Alemaniak Frantzia okupatu zuen garaian eraikitako bunker ugariren hondakinak.

Jende pixka bat bazebilen inguruan, bazterrak ikusten edota belar gainean eserita. Bikoteak eta familiak ziren gehienak, baina belar gainean eseritakoen artean bakarrik zegoen neska gazte bat ere aurkitu genuen guk ezustean: Goizeder!

Ez zuen harridurarik erakutsi gu ikustean. Ezta pozik, saminik edo beldurrik ere. Gure zain egon balitz bezala jokatu zuen. Bere ondoan eseri eta azken egunotan bizi izandakoak kontatu genizkion. Goizederren kontaketa laburra izan zen oso:

– Ihesi jarraitu diat han eta hemen, batetik bestera. Muga pasatu diat eta orain alde honetan ere ihesi jarraitzen diat.

Isilune baten ondoren, joan beharra zuela adierazi zigun. Besarkatu eta musu eman zidan ezpainetan. Trabatu egin ziren gure mihiak; lo-

tsagorritu, urduritu eta larritu egin zen Lauaxeta. Ni askaturik, Lauaxeta besarkatu eta musukatu zuen, ni bezain luze eta heze, edo ni baino ere pixka bat luze eta hezeago beharbada.

Ez zigun adiorik esan eta guk ere ez genuen ezer esateko kemenik bildu. Eserita geratu ginen, isil-isilik, hari begira. Sokoa eta Ziburu alderako bidea hartu zuen.

Andre-gizon bikote bat zegoen guregandik 50 bat metrora. Goizeder haien ondotik pasatzean erreparatu nuen haiengan. 50etik 60 urtera bitartekoak ziren biak, itxura batean behintzat. Belardian eserita zeuden, andrea jertse bat josten, gizona egunkari edo aldizkari bat irakurtzen. Irratiarekin, janarien otartxoarekin, termoarekin eta beste traste batzuekin batera, kanario bat zuten ondoan, kaiola barruan sartuta. Irudipen txoro bat izan nuen: andre-gizon haiek Goizederren gurasoak zirela.

– Ez diok galdetu Uitziko mendatean aurkitu genuen gizona berak hil al zuen –ohartarazi nion Lauaxetari.

Hil ginenon hatsa

Belardi hartan lo egin genuen Lauaxetak eta biok, itsasoko uhinen zaratei gure ametsen barruan abegi eginez. Biharamun goizean, berriz, Hendaiara jaitsi ginen. Hondartzaren pareko bidetik bi jendarme-auto ikusi genituen, argi urdin birakariak piztuta eta uluka, ziztu bizian, Sokoa eta Zibururako bidean.

Gosaldu, jatekoz, edatekoz eta egunkariz hornitu eta Euskal Herriko mapa handi bat erosi genuen Hendaian. Ezin izan ginen inorekin ere euskaraz mintzatu, eta Lauaxetaren frantses dotore baina aukeran zaharkituxea izan genuen komunikaziorako tresna.

Ondoren, Zeanurirako bideari lotu gintzaizkion berriro, mendiz, oinez, bizkar-zorroa soinean eta noiznahi gogoaren aginduei men eginez biderik zuzenenetik irteteari uko egin gabe, lehen bezala. Baina ordura artean baino zuzenago joateko asmotan.

Aurreko aldietan baino adiskideago irten ginen Hendaiatik. Ez nekien oso ondo zergatik.

«Elkarrekin ibiltzeak elkarrengana bildu gaitik, haurridetu», egin nuen neure kautan. Hitz gozoen tenorea bide zen:

– Ni askotan gogoratzen nauk zuekin –azaldu nion Lauaxetari Irun eta Oiartzun artean, Aiako Harriaren magalean, Irustako ur-jauziari begira geundela–. Batez ere Lizardirekin eta hirekin. Anaia nagusiak zaituztet, anaia zaharrak, oso anaia zahar eta urrunak baina anaiak beti. Oso bestelako mundu batekoak, oso bestelako ikusmolde batekoak, baina garaiko gogaide asko baino askoz ere gertuagokoak hala ere. Hain gertu, hain urrun. Edo alderantziz, ez zakiat, berdin zaiok. Baduk haurride bila gertuago jotzen duenik, ETAko gudariengana esate baterako, baina baita askoz urrunago begira jartzen denik ere: Sabino Arana, Arturo Kanpion, Agustin Xaho, Matalas...; Amaiurren Mirandako kondeari eta Leringo etoiaren semeari, Orreagan Errolani eta Zelatunen erromatarrei aurre egin zietenak...; harrespil eta trikuharrien egileenganaino heldu arte. Nik nahiago zaituztet zuek. Ni zuek nauk, neurri batean behintzat.

– Ez ginan zuhurregiak, atzerakoiegiak, fededunegiak?

– Bai, baina zuen zuhurtzia fededun eta puritanoaren atzean erotasun miresgarri bat zegoan, erotasun sortzaile eta iraultzailea, zintzoa eta ausarta, ilusio grinatsu bati estu lotua. Eta horrekin bat egiten diat, bat egiten diagu askok. Alderdi edo arlo askotan behintzat, zuenaren gisakoa izan zuan, 40, 50 edo 60 urte geroago, gure haurtzaroa. Zuenen antzekoak, alderdi edo arlo askotan behintzat, gure kezkak, nahiak, ametsak, ezinak eta borrokak. Zuenaren antzekoa, azken batean, gure galtzailetza. *Borroka galduetatik gatoz* dik izenburu Urtzi Urrutikoetxea poeta gaztearen lehen liburuak. 60 urte, beraz, gutxi gorabehera lehen zeundeten, lehen geunden lekura heltzeko.

Esaldi solemne bat behar nuen erreматerako, baina solemne behar zuena barregarri samarra atera zitzaidan:

– Putzu beltz sakona izan duk gerra gure historiaren partxisean.

Hiru egun geroago, Bianditz, Aldura, Urdaburu eta Adarra mendietatik barrena, Andoaingo hilerrira heldu ginen. Rikardo Arregiren hilobiaren aurrean egon ginen biok, Lauaxetak eskatu zidan bezala. Hilerritik tren geltokira jaitsi ginen gero. Hainbeste ibili ondoren, abiaburuan nintzen berriro, etxetik gertu eta *Egunkaria*-ko erredakziotik pauso gutxi batzuetara, hasieran bezain urrun nire oroitzapenik kutunenetako sagastitik. Ez zen harritzekoa. Horixe gertatzen zaio biderik laburrena hartzen duenari, ederrenari hots.

Hasieratik baztertu nuen etxetik pasatzeko ideia, baina *Egunkaria*-ko erredakzioan sartzeko gogoa piztu zitzaidan. Bagenekien Lauaxetarentzat arriskutsua zela han sartzea, han bat baino gehiago egon baitzitekeen hura ezagutuko zuenik. Baina nik baneukan hara joan eta lankideei ustekabe bikaina ematerik. Ez nengoen oso apain eta dotore, ez horixe!, baina horrek are gogo handiagoa ematen zidan lankideen aurrean agertzeko.

Lauaxeta nire zain geratu zen geltokian, trenen joan-etorriari begira, eta nik erredakzioko

bidea hartu nuen. Baina gerturatu ahala larritzen hasi nintzen, izutzen. Hernaniko parrandan Bodega tabernan ikusitako lankideez oroitu nintzen. Nik keinuak egin arren, haiek ez ninduten ikusi; edo irudipen lauso hori nuen behintzat nik gordea mozkorraldi hartako oroitzapen nahasien artean. Aurretik, Leitzan, Patziku Perurenarekin antzeko zerbait gertatu zitzaidala oroitu nuen; orduko hartan pentsatu nuen Patzikuk ez nindula ikusi arreta handiz ari zelako gidatzen, baina harrigarria zen Patzikuk, hain gertu pasatuta, nire diosalari ez erreparatu izana. Ikusezina, entzunezina eta ukiezina izango ote nintzen ba ni ezagutzen nindutenentzat, Lauaxeta Jean Haritxelhar, Jon Kortazar eta abarrentzat bezala? Hori pentsatzea ergelkeria absurdua zela esan nion neure buruari, baina hala ere ez nintzen aurrera jarraitzeko gauza izan. Lauaxetarengana itzuli nintzen eta mendira jo genuen.

Zortzi egun lehenago nire ibilaldia hasi nuenean bezalaxe, Andoaindik Belkoainera jo nuen. Orduan ez bezala, ordea, Lauaxetarekin nindoan, eta Zeanurira zuzenago jotzeko asmoarekin. Iluntzeak Andazarratetik gertu harrapatu gin-

tuen, eta hantxe egin genuen lo, izarrei begira, mendateko tabernan ogitarteko bana jan ondoren.

Andazarratetik Aizarnazabal gertu genuen oso. Nahikoa lo eginda ere, erraza genuen biharamun eguerdirako hara heltzea. Horretaz pentsatzen aritu nintzen loak hartu aurretik, Lauaxetaren zurrunga leunak aditzen nituen bitartean. Nik beti esaten nuen Urolako tren zaharrak itxuratxarki traizionatu zuela Aizarnazabal, Zumarragatik Zumaiarainoko bidea arinago egitearren Urola ibaiaren ondotik urrundu eta gure herria baztertuta utzirik. Baina neuk ere neure herria baztertzea erabaki nuen gau hartan, Aizarnazabaldik ez pasatzea. Ez, trenak bezala, bidea arinago egin nahi nuelako, ezagunen bat ikusi eta hark, aitzitik, ni, ustez agerian izanagatik, ikusiko ez ninduen beldur nintzelako baizik. Neure buruari behin eta berriz esan arren hori gertatzea ezinezkoa zela, beldur irrazional hura uxatzea zen benetan ezinezko gertatzen zitzaidana.

Azpeitirantz jo genuen zuzenean, beraz, biharamunean, eguraldi ona lagun genuela. Zelatungo lepoan atseden hartu genuen, belar gainean eserita. Bi gizon gazte ikusi genituen alde banatatik heldu eta elkartzen. Besarkatu eta beren artean pixka bat hitz egin ondoren guri begira geratu ziren tarte batez. Hurreratu egin zitzaizkigun. Bizkar-zorro bana soinean eta mendiko botak jantzita, mendizale itxura zuten. Bibote mehe eta leuneko gizon txikia zen bata, idun zabaleko alkandora gorriz jantzia; eskuinaldeko masaila ardo koloreko angioma batez estalia zuen onkote itxurako morrosko zabal bat bestea, koadrozko alkandora zuri-gorri-berdez jantzia.

Ez nuen irakurri zaharra Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*. Nobela hartako Daniel Zabalegiren deskripzioarekin guztiz bat zetorren morrosko alkandora koadrodunaren itxura. Daniel Zabalegi pertsonaiaren oinarria Anjel Otaegi zenez, ia ziurtasun osoz nekien nor ziren bi gizon haiek: Juan Paredes Manot *Txiki* eta Anjel Otaegi, Francoren aginduz 1975eko irailaren 27an fusilatu zituzten bost lagunetako bi. Ez ziren Euskal Herriaren alde hildako azkenak, baina bai fu-

silatuta hildako azken euskal abertzaleak («ofizialki» fusilatuta hildako azken euskal abertzaleak behintzat). Orduantxe bete berriak ziren hogeita bi urte. Zelatunera bakoitza alde banatatik heldu izana ez zen kasualitatea. Zarauztik bide zetorren Txiki, Nuarbetik Otaegi, eta Zelatun, azken batean, bi herrien erdi-bidean zegoen gutxi gorabehera.

– Zu Lauaxeta zara, ezta? –galdetu zion Txiki behar zuenak Lauaxetari, agurrezko hitzen ondoren.

– Bai, jauna. Lauaxeta naz.

Niri ez zidaten begiratu ere egin bi gizonek. Zalantza nuen ikusi ere egiten ote ninduten.

– Bilera bat dugu –mintzatu zitzaion berriro ere Lauaxetari biboteduna–. Zatoz gurekin Erniora. Gure zain daude besteak.

– Hemen itxoin beharko deustak, Julen –desenkusatu zitzaidan Lauaxeta belar gainetik jaikita.

Nahi bazuen bizkar-zorroa han uzteko esan nion arren, neuk zainduko nuela, nahiago izan zuen berarekin eraman. Harri eta zur geratu nintzen, ezin erreakzionatuta, hiru gizonak Erniora

igotzen ikusten nituen bitartean. Otaegiren oinetakoez pentsatu nuen. «Mendiko botak zauzkak jantzita baina bizkar-zorroan izango ditik behatzak mingarri estutzen zizkioten zapata beltzak, amak emandakoak, fusilatu zutenean jantzita zituenak», pentsatu nuen neure artean, *Hamaika pauso*-ren irakurketa gogoan. «Lepoa egingo nikek.» Hiru gizon haien atzetik joan eta bilera haren lekuko izan nahiko nukeen, Txikik aipatutako «besteak» nor ziren jakin, zertaz mintzatuko ziren... Baina ezin nuen horrelakorik egin. Argi zegoen ni ez nengoela bilera hartara deitua. Ni ez nintzen fusilatua. Fusilatua? Hildakoa ere ez nintzen barren!

Luzea izan zen itxaronaldia. Lehen hiruzpalau orduak lasai samarrak izan ziren. Inguruan zebilen artzain bat edo besterekin mintzatu nintzen eta zerbait jan ere egin nuen, zahatoa lagun. Baina arratsaldean, eguzkia laino gero eta lodiagoen artean ostentzen zelarik, kezka nagusitzen hasi zitzaidan barrenean. Itzuliko ote zen benetan Lauaxeta nire ondora? Ez nengoen ziur. Lauaxetaren beharra nuela jabetu nintzen. Uste nuen baino askoz ere beldur handiagoa nion ba-

karrik geratzeari. Azkenik, zalantza askoren buruan, Erniora igotzera deliberatu nintzen.

Zerua gero eta ilunagoa zegoen nik bide harritsuan gora egin ahala. Urduritu eta are beldurtu ere egiten ninduen Ernioko gailur gurutzeztatuan aurki nezakeenaz pentsatzeak. Lauaxetarekin ohitu ondoren, orain hildako gehiagorekin sartuko ote nintzen harremanetan? Zein mundutan sartzen ari nintzen? Harrituta nengoen neure buruarekin. Baina Lauaxeta nahi nuen ondoan inondik ere, ezin etsi nuen hura gabe. Ekaitz zakar batek harrapatu ninduen azkeneko metroetan nintzela, baina goraino heldu nintzen hala ere. Han ez zegoen inor, ez bizirik eta ez hildakorik. Gailur mortuan bakar-bakarrik nengoen, gain-gainean sentitzen zen zeru beltzaren azpian, trumoi burrunben eta tximista dirdaien ondoan, haize zakarraren menpe, zaparradako tanta lodiek bortizki bustia, ilunpe artegagarrian mehatxu egiten zidatela ziruditen ehundaka gurutzeren erdian. Bilerak amaitua behar zuen. Edo akaso ez, akaso hantxe ari ziren Lauaxeta, Txiki, Otaegi eta enparauak hizketan artean ere,

nire begi eta belarrientzat atzemanezin. Ezin jakin.

Izututa, lehenbailehen behera egitekotan nintzela, nire betiko ohiturari jarraituz buzoian ezer ba ote zegoen begiratzea bururatu zitzaidan, baina han ez nuen Gasteizko mendizale batek bezperan utzitako txartela baino aurkitu. «Akabo lilura, Julen», esan nion, etsita, neure buruari. «Ez Lauaxetaren konpainiarik eta ez Margaren gutunik. Bazirudik bakarrik geratu haizela.»

Zelatunera heldu nintzenerako ateri zegoen eta haizea ere baretua zen. Inguruko artzain-txabola batean geratu nintzen, barrutik minduta, lur jota. Ilundu baino lehen, afaldu gabe sartu nintzen lozakuan. Arropa bustia eranztea ere nekeza egin zitzaidan, hain nengoen ezer egiteko gogogabetua. Inoiz baino bakardade handiagoa eta sakonagoa sentitu nuen gau hartan.

Ama zenarekin egin nuen amets. Ohe ondora etorri eta ea zeren zain nengoen esaten zidan behin eta berriz, hiltzeko behingoz, hil egin behar nuela derrigor, dena prest zegoela eta ni hiltzea baino ez zela falta. Ni hiltzeko prestatu

nintzen, amak esaten zidan bezala, eskuak bular gainean gurutzatuta, baina ez nekien nola hil.

Zeanurirako bidean aurrera jarraituko nuela erabaki nuen hala ere biharamun goizean. Lauaxeta gabe, ezinbestean. Arratsaldean Elosun nintzen, Azkoitia eta Bergara artean, auzoko taberna bakarreko mahai batean eserita, ogitarteko bat jan ondoren kafetxo bat hartzen. Laja eta Landakandak Madrilen grabatutako disko zahar bat zuten jarria diskogailuan. Oso gustukoa nuen nik disko hura.

Halako batean Laja eta Landakandaren kantua isildu eta Mikel Laboaren «Assentiré de grat» entzuten hasi zen tabernan. Harritu egin ninduen bat-bateko aldaketa hark. Burua jiratu nuen barra aldera, baina han ez zen inor, ez nuen diskoa nork aldatu zuen jakiterik izan.

Kantu hura nire egoera animikoarekin guztiz bat zetorrela ohartu nintzen. Salvador Espriuren poema batekin osatua zen kantua, eta katalanez kantatzen zuen Laboak. «Assentiré de grat», zioen kantuak, «Gogo onez onartuko dut». Bai

baitzekien poetak, bai baitzekien kantariak urria dela eman zaion erremusina: une baten aberastasuna, besterik ez. Nahiko zukeen hala ere poetak, nahiko zukeen hala ere kantariak pitin bat gehiago iraun zezan egunaren argi geldiak, pitin bat gehiago iraun zezaten «altzifreek, mahastiek, soro landatuen ordena garbiak, gure hizkuntzak, maite izan dudan gauza bakoitzaren gaineko begirada pausatu honek!». Bai, horixe zen azken funtsean nire bidaia Lauaxetaren esanetan ganorabakoa: azken begirada pausatu bat bizitzan zehar maite izan nuenari. Ezin nion Lauaxetari hori guztia azaldu, ez nuelako neure ondoan, baina pentsatu nuen Lauaxetak ere ulertua zuela hori, hasiera-hasieratik gainera, kontrakoa adierazi arren.

«Hiltzeko ez nauk sekula orain bezain ondo prestatua izango», esan nuen neure artean Mikel Laboaren kantua amaitu eta ostatuan, inork diskoa aldatu gabe, Laja eta Landakandaren beste kantu bat entzuten hasi zenean. Ez ninduen harritu pentsamendu hark.

Bergarako kartzela zaharra izandako etxea ikusten izan nintzen biharamunean, Angiolilloz oroiturik, Cánovas del Castillo hiltzeagatik garrotez exekutatu zuten anarkistaz, kartzela hartako ziega batean eman baitzituen hark azken egunak. Angiolillo Ernioko bileran parte hartu zutenetako bat izan zitekeela otu zitzadan, eta horrek, inolako oinarri logikorik gabe, kartzela zaharraren inguruetan Lauaxetaren berri izan nezakeela pentsatzera eraman ninduen. Ez nuen, alabaina, han ere Lauaxeta aurkitu. Ez Lauaxetarik eta ez haren aztarrenik.

Bergaratik Angiozarra jo nuen. Angiozartik, Kanpazarko mendatetik barrena, Anbotora jotzeko asmoa nuen, Anbototik, Urkiolatik barrena, Zeanuri ez nuen oso urruti izango eta.

Angiozarko hilerrira gerturatzen ari nintzela, hantxe, kanposantuko ate nagusien aurrean, aste batzuk lehenago, Lauaxeta ezagutu baino lehen eta artean ere *Egunkaria*-ko kazetari nintzela, egin zitzaidan ondoezaz oroitu nintzen.

Kanposantu barrura sartuko nintzela erabaki nuen. Han izan nintzen azken aldian, ondoezaren ondorioz, sartu gabe geratu bainintzen, sa-

rrerako ate beltz burdinazkoak gurutzatu gabe. Pena ematen zidan hala ere ate haietako letrak Lauaxetari ezin erakutsi izanak: «Il nintzan» irakurriko zukeen ezkerrekoan; «eta bizi naiz» eskuinekoan.

Gerturatzen ari nintzela, ate haien ondoan hilarri bat zegoela ikusi nuen. «Hara!», esan nuen neure artean, ateetarantz lasterka abiaturik, «aurrekoan hilarri hori zegoenik ere ez ninduan jabetu. Argazki bat egingo zioat.»

Ez nintzen harritu ondora iritsi eta hilarrian neure izena zegoela ikustean. Nahigaberik ere ez nuen izan. Aitzitik, arindu eta lasaitu egin nin-duen hilda nengoela jakiteak, eta Lauaxetarengandik gertuago sentiarazi ere bai. Hantxe hil nintzela zioen hilarriko testuak, 1997ko iraileko egun batean, zuela hilabete inguru. Kalkuluak egin nituen. Bai, iraileko lehen igandea, huraxe zen ondoeza egin zitzaidan eguna. «Lauaxeta berpiztua ezagutu nuenerako, neu hilda nengoan beraz», pentsatu nuen.

Bizkar-zorrotik makina atera eta argazki bat egin nion neure hilarriari.

Nire eskelak eta nire heriotzari buruzko albisteak biltzen zituzten egunkari ebakinak aurkitu nituen biharamunean Anbotoko buzoian. Harridurarik gabeko aurkikuntza izan zen hura, Angiozarko kanposantu atariko hilarrian nire izena ikustea bezalaxe.

Hil nintzenetik bi egunera argitaratutakoak ziren egunkari puska haiek guztiak. Eskelak urriak eta txikiak ziren. Ni bezalako pertsona bakarti batek ezin zuen besterik espero. Egunkari gehienetako albisteak ere laburrak ziren oso: «J.L.L. 40 urteko aizarnazabaldar gizasemearen gorpua aurkitu zuen atzo goizean inguruko nekazari batek Angiozarko hilerriaren atarian», zioten gutxi gorabehera, gaztelaniaz. «Oraindik argitu gabe dago noiz eta nola hil zen J.L.L., baina uste da herenegun ilunabarretik edo arratsaldetik egongo zela gorpua nekazariak aurkitu zuen lekuan, inor han zegoenik ohartu ere egin gabe, paraje bakartia baita.» Baina *Egunkaria*-ko artikuluan osorik zetorren nire izena, Julen Lamarain Lizaur, nire biografia laburbiltzen zuen laudoriozko paragrafo koxkor batekin eta zutabe bakarre-

ko argazki batekin batera; «euskaltzale jatorra» eta «langile suharra» izan nintzela beti zioen artikuluaren egileak.

Egunkaria-ko artikuluaren eta argazkiaren ebakina Lauaxetari erakusteko gogo bizia sentitu nuen. «Bazakiat nire ospea ez dela hirearekin konparatzekoa», esan nahi izango niokeen, «baina denon beharra dik aberriak. Ez al zaik iruditzen?»

Estepan izena oihukatu nuen lau haizeetara, bete-betean, Anbotoko gailurretik, behin eta berriz, zintzurra erlasten hasi zitzaidan arte. Baina ez zien inork erantzun nire oihuei. Ezta Marik ere.

Zeanurira heldu baino lehen, Burt Lancaster agertzen zen film zahar hartaz oroitu nintzen, luzaz etxetik kanpo izan ondoren Burt Lancaster, lagunen etxeetatik pasatuz, piszinaz piszina, etxera nola itzultzen zen kontatzen zuen filmaz. Amaieran, etxea hutsik eta abandonatua aurkitu zuen, sasiak eta huntzak guztiz janda. Film osoan zehar eguraldi ona zegoen, ez zuen hotzik

pasatzen piszinetan igeri egiten Burt Lancasterrek. Hura etxera heltzearekin bat, ordea, ekaitz gogor batek astintzen ditu bazterrak.

Aurreko egunetan eguraldi grisa izan banuen ere, Zeanurira heldu nintzenean zerua oskarbi zegoen. Zeru argi haren azpian, Marga eta bion oroitzapen kutun zaharretako sagastia, Marga eta bion Gustiz Ederra, txatartegi bihurtuta aurkitu nuen: auto eta kamioi zaharren hilerri handi bat.

Marga hantxe zegoen, nire zain itxura batean, erronbo zuriak zituen igeritako bat jantzita, Coca-Cola banaketako kamioi herdoildu baten ondoan. Ez zen jada 16 edo 17 urteko neskatila. 40 urte inguru zituen, izan ere, nik bezalaxe. Ederra zegoen oso, gaztetxotan baino ederragoa. Zoragarria!

– Ikusi nahi al dizkidazu? –esan zidan irri samurrez, eskuak igeritakoaren atzealdean zituela.

– Bai, jakina! Besterik ez dut nahi. Horretaraxe etorri naiz urrutitik, bidez bide. Hainbeste denboraren ondoren... Azkenean!

Igeritakoaren atzealdeko korapiloa askatu eta titiak erakutsi zizkidan Margak, estreinakoz.

– Gustatzen al zaizkizu? Gustatzen al zaizkizu, Julen?

– Ikaragarri! –esan nuen. Ez zen gezurra. Gaztetako irrika eutsiezin hura sentitu nuen barruan, erraiak dardararazten, gainezka egiteko zorian.

Marga besarkatzera jo nuelarik, ordea, haren bularren artean ezkutatu nuen burua eta malkoak atera zitzaizkidan, aspaldiko partez, oso aspaldiko partez.

– Azkura eragiten al dizu bizarrak? –galdetu nion, bizarra aspaldi moztu gabea nuela gogoratuta.

– Bai, baina ez arduratu. Atsegin zait azkura hori.

Gero biluztu egin ginen biok.

– Zutik daukazu, Julen –esan zidan Margak, nire zakil puztuari irriz begira.

– Bai, zutitu egiten zait.

Barre egin zuen Margak, eta barre egin nuen nik ere. Barre egin genuen, baldar eta ozen egin genuen barre, eta gero, barrez artean ere, Coca-Cola banaketako kamioi herdoilduaren atzeko plataformara igota, aterki hautsi baten eta joste-

ko makina zahar baten ondoan, buruz gora etzan ginen eskutik helduta, larrugorritan.

– Guk ezin dugu larrua jo –esan zuen, barreak hitzak trabatzen zizkiola, Margak.

Barrez, begiak itxita eta zakila ukitu ere egin gabe, hazia isuri nuen, gogotik isuri ere, luzaz eta oparo, zeru urdin garbia neure hazitan blai utzi nahi banu bezala.

Akituta, loak hartu ninduen, eta esnatzean olana berde zahar batekin estalia nuen gorputz biluzia. Marga ez zegoen jada nire ondoan, baina Lauaxeta ikusi nuen kamioitik gertu, zutik, niri begira. Oinen ondoan utzia zuen bizkar-zorroa.

– Estepan! –egin nuen oihu, hunkituta, eta olana baztertu, zutitu, kamioitik jaitsi eta laguna beskarkatzera jo nuen arrapaladan.

Aztoratu egin zuen Lauaxeta nire gorputz biluziaren besarkadaren beroak. Nire besoen artetik askatu eta bestaldera begira mintzatu zitzaidan.

– Ondo jagok, Julen, ondo jagok. Alkarregaz gagozak barriro, baina orain jantzi hadi, mesedez.

– Eta ez gaituk gehiago banatuko?

– Ez. Ez juat uste.

– Zer moduz bilera? –galdetu nion pixka bat geroxeago, jada janzten hasita nengoela.

– Oso ondo. Oso atsegina izan dok. Eta suspergarria. Hobeto sentiazoten haben horreetakoa.

«Hildakoa izatera heltzean beste modu batez ikusten du batek bizitza», esan zion Fernando Pessoak Ricardo Reisi, José Saramagoren *O ano da morte de Ricardo Reis* nobelan, Prazeresko hilerritik irtenik egiten zizkion bisitaldi haietako batean. Baina denbora behar izaten du batzuetan hildakoak horretarako. Nire kasuan behintzat hala izan zen.

Ulertzeko denbora behar izan nuen, baina azkenean jabetu nintzen Lauaxetarekin banengoen Lauaxetarekin egon nahi nuelako zela, ez beste ezergatik. Ez zen egia, beraz, aukeran Lizardi Lauaxeta baino nahiago nuela. Edo Federico García Lorca. Baita zera ere! Zer gara ba? Lauaxeta nahi nuen eta Lauaxeta nuen ondoan. Bizi-

tzan baino libreagoak dira hautuak heriotzan, sinpleagoak eta zintzoagoak.

Badira, guztiarekin ere, oraindik ulertzen ez ditudan gauzak. Hil eta gero ere, Angiozarko ondoezaren ondoren, lanera joaten jarraitu nuen, eta han lankideek ikusi eta entzun egiten ninduten, aintzat hartzen ninduten. Hainbat artikulu idatzi eta argitaratu nituen, gainera, tarte horretan, orain seguru askorik –ez naiz, egia esan, bilatzen saiatu ere egin baina– inongo hemerotekatan ezin aurkitu ahal izango liratekeenak. Lauaxetak eta biok Tolosan Martxelo Otamendirekin topo egin genuenean, Martxelok Lauaxeta ez zuen ikusi baina ni bai, nahiz eta ni ere hila nintzen ordurako. Ez dakit zergatik. Ez dakit Martxelok nola bizi izan zuen une hura eta nola oroituko zuen geroragoan. Misterio bat da hori guztia niretzat. Hil eta gero Lauaxetak ezerez huts eta ilun batean eman zituen 60 urte Gernikan berpiztu artean. Nik, aldiz, beste era bateko bizipena izan dut heriotzaren ondoren, horrela esaterik baldin badago. Fusilatuen patua ere ez da 60 urteko ezerezarena, bestela ez genukeen Txiki eta Otaegi 2035era arte ikusterik izango.

Nik ez dakit, eta Lauaxetak ere ez daki. Beste misterio bat. Non dago Marga? Zergatik erakutsi zizkidan titiak heriotzan, bizitzan ez bezala? Zer heriotza mota da harena? Horretaz ere ez dakit ezer. Tira, heriotza oso kontu misteriotsua da, bizitzako konturik misteriotsuenetako bat, baita hildakoontzat ere, eta badagokio hainbeste inkoherentzia eta kontraesan. Ametitu egin behar zaizkio. Gogo onez gainera.

Gorbeiapeko txatartegian berriro elkartu ginenez geroztik, etenik gabe gabiltza Lauaxeta eta biok bidez bide, aste eta jai, udazken, negu, udaberri eta uda, txararik txara, zelairik zelai, sororik soro, basorik baso, mendirik mendi, herririk herri. Lauaxetari niri bezain atsegin zaio orain mendian oinez ibiltzea, eta baita oskarbi denean izarren azpian eta euria ari duenean eliz atari edo borda batean babestuta lo egitea ere, edo behiala isotermo izandako kamioi-kaxa orain txabola bihurtuan bestela, inoiz edo behin suertatu izan zaigun bezala.

Ez gara, alabaina, geure oilolur heterogeneo eta askotarikotik irteten, prentsa abertzaleko eguraldiaren maparen mugen barruan gabiltza beti. Erosoago eta etxekoago sentitzen gara leku batzuetan besteetan baino, ezin dugu hori ukatu. Min egiten digu erdaren nagusigo lardeariatsuak, geure herrian erdara beltzean aritu beharrak, karral-karral, baina osorik maite dugu gure eguraldiaren mapa, gure aberria, eta gure aberri osoaz gara, ezertaz arduratzerik dugun neurrian, arduratzen. «Aberria ala hil!» esaten da, baina hil eta gero ere hezur-hozten ez den maitasuna da abertzaleak aberriari diona, Lauaxetaren eta bion kasuek erakusten dutenez. Fernando Pessoak ez zion horretaz ezer aipatu Ricardo Reisi, edota ez zuen behintzat halakorik jaso José Saramagok *O ano da morte de Ricardo Reis* nobelan, baina abertzale bat hiltzen denean hildako abertzale bat bilakatzen da, abertzaletasun horren izenean –«nire aitaren etxea» defenditzeko Arestik zioen bezala, edo «gure amaren etxea» bestela, guk hogeitaka urte geroago modu politikoki zuzenagoan genioen moduan– zer egin lezakeen jakin ez arren. Tira, azken ba-

tean, egia esanda, nik neuk behintzat bizi nintzelarik ere ez nuen sekula oso ondo asmatu zer egin nezakeen ezeren alde. Inguratzen ninduen mundua gero eta hierarkizatu eta mediatizatuagoa zegoela argudia nezake aitzakia gisa, baina Lauaxeta ez litzateke ados izango. «Euren beharretan etsipenetik baino ezin abiatu ei diran egungo poeta eta artista ustez moderno horreen antzekoa haz», ekarriko lidake, gupidarik gabe, gogora.

Kantuan oso onak ez bagara ere, kantuan egiten dugu maiz bidea. Denetarik kantatzen dugu, baina badugu ereserki kutun bat: Jose Angel Irigarairen «Zortearen kolpeak», Benito Lertxundik sortu zion doinuarekin.

Nik tarteka argazkiak egiten jarraitzen dut. Ikusten ditudan hilarri guztiei egiten dizkiet argazkiak, baina egiten ditut bestelakoak ere: sasiak guztiz bere egindako Seat 600 bat Zestoako baserri batean, goroldiozko pijamak jantzita etengabeko berriketa patxadatsuan ari diren harri handi batzuk Altzürükütik Ahüzkirako bidean, Castejongo geltokia desolazio lehorrez inguratua... Orain hurrengoan Lauaxetari asto

baten gainera igota egin nion argazkia. Ez zuen berehala amore eman. Behin baino gehiagotan eskatu behar izan nion. Nolanahi ere, oraindik ez dut bidaiako argazki bakar bat ere eraman errebelatzera, eta ez dakigu Lauaxetaren irudia agertu ere egingo den asto gainean atera nion argazki horretan.

Oroitarri, hilarri eta hilobi askoren aurrean egiten ditugu egonaldi luzeak; geureen aurrean ere izaten gara, jakina. Marga, Txiki eta Otaegi ez ditugu berriro ikusi, eta beste hildakorik ere ez zaigu, oraingoz behintzat, suertatu bidean. Jende askorekin egiten dugu topo hala ere. Bigarren mailako errepide batera edo herri txiki bateko plaza ingurura jaisten garelarik maiz ikusten dugu Goizeder, ihesean beti, polizia-autoen uluak eta argi urdin birakariak orpoz orpo; batzuetan, haatik, mendian ere ikusten dugu, herri batetik besterako bidea oinez egiten, eta horrelakoetan gurekin solasaldi labur bat egiteko astia hartzeko moduan izaten da. Mateo Txistu noiznahi ikusten dugu basoan, baina hark ez du sekula guregan erreparatu ere egiten, hain dago bere etenik gabeko ehizean tematua. Gutxiago-

tan izaten ditugu begien aurrean Anjel Lertxundiren *Azkenaz beste* nobelako Nora eta haren aita, haien kalesaren ibilbideen esparrua askoz ere zabalagoa baita. Zuen antz handiagoa duen jendearekin ere egunero elkartzen gara: nekazari, artzain eta mendizale askorekin geratzen gara berriketan, bidean atsedenaldi bat eginez; denda eta taberna askotan sartzen gara janariak, edariak, egunkariak eta beste hainbat gauza erostera; batzuetan autobusa edo trena hartzen dugu eta noizean behin auto-stop egitea ere maite dugu. Zuen antzeko pertsonek ikusi egiten gaituzte, entzun egiten dute guk esaten duguna, ukitu ere egiten gaituzte batzuetan, zuen antzeko pertsonak gurekin mintzatzen dira.

Zuek, ordea, ezin izango gaituzue inoiz ikusi, entzun edo ukitu, zuek ezin izango zarete inoiz gurekin mintzatu, gure berri duzue eta.